



+



Kanpandorreek gordetzen dituzten altxorrak

Maria Jara Perea ekintzaileari elkarrizketa



Ezkerretik hasita, Ainara Urrutia, Oihana Kortazar, Ainara Uribarri eta Malen Osa, 2023an argazkilariekin egindako saioetan. ARITZ GORDO ETA ROGER SALANOVA

Erronka berriei ekiteko gertu daude laurak

Mendi lasterketen denboraldi berriaren atarian, ilusioz daude Malen Osa, Ainara Uribarri, Ainara Urrutia eta Oihana Kortazar / 32-33

Errepide berria egingo dute Arrasate eta Elorrio artean, eta 830 metroko tunela Kanpanzarren / 2

SINADURAK

 VALEN MONUX / 6	 PALOMA MARTINEZ PEREZ / 14
 KARMELE PEREZ LIZARRALDE / 9	 MIKEL GOENAGA / 20
 OIHANA AMESKUA / 13	 AINTZANE OIARBIDE / 40



Hemen garbiketak
 Ura bezain garbia

QR code: www.hemen.com

T.- 943 71 48 45



GARAIA

Start-up-ak | Enpresak
 Ekintzaileak | Autonomoak


BULEGOAK ALOKAGAI
GARAIA PARKE TEKNOLOGIKOAN

60 eta 1.000 m2 artean

Informazioa: ptgaraia@ptgaraia.eus edo 943-03 88 46

Trazaduraren mapa

ITURRIA: GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA



Tunel batek lotuko ditu Arrasate eta Elorrio

Sei milioi euroko aurrekontua izango du Debagoiena eta Durangaldea lotuko dituen trazadura berriaren proiektua idazteak, eta Kanpanzarren gainaldea zeharkatuko duen 830 metroko tunel bat izan da hori aurrera egiteko giltzarria

Julen Murua Mesonero DEBAGOIENA "Kanpanzar gaina zeharkatuko duen 830 metroko tunel bat" izango da Arrasate eta Elorrio lotuko dituen errepide berriaren "giltzarria", Imanol Pradales Bizkaiko Foru Aldundiko Azpiegituretako eta Lurralde Garapenerako diputatuaren hitzetan. Izan ere, atzo elkartu ziren Gipuzkoako Foru Aldundian Pradales eta Maria Ubarretxena, Gipuzkoako Bide eta Azpiegituren diputatua, Elorrio eta Arrasate lotzen dituen N-636 errepidea "osorik hobetzeko aukeratutako konponbidea" aurkezteko.

Proiektuaren aurkezpenean murgildu aurretik, Pradalesek nabarmendu nahi izan zuen bi lurraldeen arteko proiektua bada ere "herri proiektu" batez hitz egingo zutela aurkezpenean: "Beasain-Durango errepidea historikoki herri proiektu gisa ikusi izan delako". Ildo beretik, Ubarretxenak adierazi zuen "oso proiektu ilusionagarria" dela, eta "lurralde eta herrialde mailan hurrengo hamarkadetarako asmo

handiko ekimenak planteatzeko bidea" irekiko duela aurkeztu zuten proiektu berriak.

Aurkeztutako ibilbide berria Elorrioko saihebidetaren amaieran hasiko da, eta, diputatuek jakinarazi zuten, "diseinatutako irtenbidea egungo errepidetik aldenduko da". Bide berriak Igueria auzotik hasi eta Kanpanzar bitarteko bihurtuak saihestuko dituela adierazi zuten, han egitea aurreikusten den tunelari esker, eta, era horretara, "konektibitatea eta bide-segurtasuna hobetzea" izango dute helburu. Kanpanzarreko tunelak "Gipuzkoako aldean izango du irteera, Epeleko lotunean. N-636 errepideko Epeleko tartearekin lotura zuzena

"TOKIKOEN ETA LURRALDEEN ARTEKO KONEKTIBITEA HOBETUKO DA"

MARIA UBARRETXENA, GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIKO BIDE ETA AZPIEGITUREN DIPUTATUA

na izango du, eta AP-1/AP-8 autobideko Arrasateko sarrerarako zuzeneko sarbidea". Diseinatu duten errepide berriak hiru errei izango ditu, horietako bi goranzko noranzkoan, eta han arituko diren ibilgailuek orduko 80 kilometroko abiadura-muga izango dute. Horrek "zirkulazio arina eta segurua" bermatuko duela adierazi zuten diputatuek.

Proiektua idazteak, sei milioi euro Ubarretxenak eta Pradalesek jakinarazi zuten bi erakundeen arteko hitzarmen bat sinatuko dutela eraikuntza-proiektuaren idazketan aurrera egiteko; 6 milioi euro inguruko kostua eta 42 hilabeteko gauzatze-epaia izango

"KANPANZAR GAINA ZEHARKATUKO DUEN TUNELA GILTZARRIA IZAN DA"

IMANOL PRADALES, BIZKAIKO FORU ALDUNDIKO AZPIEGITURETAKO ETA LURRALDE GARAPENERAKO DIPUTATUA

du horrek. Obra osoaren kostua, berriz, 120 milioi euro inguruko izango da eta aurreikuspena da 2031erako erabilgarri egotea. Errepide berriari esker "Arrasate inguruko herritarrak Bilbora edo Loiuako aireportura asko jota 40 minutuan" iritsiko direla gaineratu zuen Ubarretxenak.

Konektibitatea eta segurtasuna

Elorrioko lotunea berriro konfiguratzeko eta biribilgune eta bide berri bat sartzeko "sarbide- eta irteera-mugimenduak" erraztuko dituztela eta "tokiko ena eta lurraldeen arteko konektibitatea nabarmen" hobetuko dela jakinarazi zuten Ubarretxena eta Pradalesek. Izan ere, Bizkaiko foru diputatuak gehitu zuen "egungo errepidetik egunero 7.700 ibilgailu" igarotzen direla eta "%16 ibilgailu astunak" direla. Gaineratu zuen horrenbeste kamioiek zirkulatzeko esan nahi duela "Debagoienean, Goierrin eta Durangaldean jardura ekonomiko handia" dagoela eta "lehiakortasun sozioekonomikoa" kontuan hartu beharreko kontu bat dela.

Konektibitateaz gain, errepidearen segurtasuna bermatzea ere izan da proiektuaren ardatzetako bat: "Egun dauden ezkerretarako birak eta trenbide-pasaguneak kenduz, trazaduraren segurtasuna hobetu egingo da". Trazadura berria aukeratu ostean, Bizkaiko eta Gipuzkoako foru aldundiek "proiektua idazteko eta ondoren behin betiko onartzeko faserantz" joko dutela adierazi zuten.

Bus zerbitzua hobetzea eskatu du EH Bilduk

Eskaeren artean: linea eta maiztasun gehiago, ordutegiak hobetzea eta puntualtasuna bermatzea

J.M.M. DEBAGOIENA

Datozen asteetan Gipuzkoako Foru Aldundiarekin batuko direla iragarri du Debagoieneko EH Bilduk, bailarako "autobus zerbitzuak dituen arazoei irtenbidea" emateko helburuarekin. Udazkenean batzartu ziren azkeneko Aldundiko eta Debagoieneko EH Bilduko ordezkariak, eta "arazoa konpondu gabe" dagoela gogorarazi nahi izan dute azken horiek, ohar bidez.

Hori guztia kontuan izanik, EH Bilduk "estrategikotzat" jotzen du bailarako mugikortasunaren eta garraio publikoaren gaia, eta, ondorioz, Aldundiarekin egitea aurreikusten duten bileran "koalizioarentzat lehentasunak diren urgentziak" plazaratu nahi dituzte: "Besteak beste, linea eta maiztasun gehiago, ordutegiak hobetzea, puntualtasuna bermatzea, informazio handiagoa izatea eta segurtasun arazoei aurre egitea; langileena eta erabiltzaileena".

Elkarlanerako prest

Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Debagoieneko EH Bilduk ez dute akordioarik lortu orain arte egoniko bileretan; hala ere, bailarako koalizioa "prestutasun osoa" adierazi du "urgentziakoa den afera horri irtenbidea emateko".

Gaineratu dute eurak prest egon daitezkeela udaletan dituzten "baliabideak erabiltzeko mugikortasunean dauden beharrei erantzuteko; beste momentu batzuetan ere egin izan dugun bezala gure eskumenekoak ez ziren gaietan". Hala ere, bailarako EH Bilduk uste du "erakunde bakoitzak bere eskumenekoak diren gaietan erantzun behar duela", eta, hori dela eta, "Foru Aldundiari arduraz jokatze" eskatzen diote; kasu horretan, "autobus zerbitzuan beharrezkoak diren inbertsioak burutuz".

Jaiotzek gora egin dute bailaran 2023an zehar

Arrasate izan da 2023. urtean zehar jaiotza kopuru handiena izan duen Debagoieneko udalerrria; Leintz Gatzagan, berriz, ez da jaiotzarik egon, eta, beraz, kopuru txikiena izan duena da. Guztira, 281 haur jaio ziren Debagoienera iaz

Julen Murua Mesonero DEBAGOIENA Guztira, 109 jaiotza erregistratu ziren Debagoienera 2023ko hirugarren hiruhilekoan, Euskal Estatistika Erakundearen arabera (Eustat). Aurreko hiruhilekoak kontuan izanik, gora egin zuen kopuruak –lehenengo hiruhilekoan 93 jaiotza erregistratu ziren eta bigarrenen 79–. 2023an zehar, guztira, 281 haur jaio ziren bailaran, eta, hiruhilekoz hiruhileko, kopuruak gora egin zuen.

ziren, lehenengoan 19 eta bigarrenen 21; guztira, 55 jaiotza.

Horretaz guztiaz gain, nabarmentzekoa da hiruhileko eta herri bakoitza kontuan hartuta 1.000 biztanleko jaiotza-tasa handiena izan zuen herria Eskoriatza izan zela, 2023ko hirugarren hiruhilekoan 3,34ko jaiotza-tasa izan baitzuen. Leintz Gatzaga izan zen 2023an zehar jaiotzarik izan ez zuen Debagoieneko udalerrri bakarria.

EAEn ere handitu da

Iazko azkenengo hiruhilekoan 3.478 haur jaio ziren Euskal Autonomia Erkidegoan; horietatik 1.763 Bizkaian, 1.150 Gipuzkoan eta 565 Araban. Bigarren hiruhilekoarekin alderatuta, hirugarrenean EAEn 240 jaiotza gehiago egon ziren. Hala ere, 2022. urteko hirugarren hiruhileko datuekin konparatuz gero, EAeko jaiotza-tasak %1,6ko jaitsiera izan zutela ikusten da. Probintziak aztertuta, jaitsiera handiena Gipuzkoan gertatu zen: %3. Bizkaian ere ehunekoak behera egin zuten, %1,2; eta Araban, berriz, igo egin zen; %0,2.

Arrasaten jaiotza gehien

Debagoiena osatzen duten bederatzi udalerrietatik jaiotza kopuru handiena izan zuen herria Arrasate izan zen; azkenengo hiruhilekoan 38 haur jaio ziren han, eta aurreko bi hiruhilekoetan 25; guztira, 88 haur. Bigarren jaiotza kopuru handiena izan zuen udalerrria Bergara izan zen; azkenengo hiruhilekoan 24 haur jaio ziren han, eta aurreko bi hiruhilekoetan 18 eta 25, hurrenez hurren; guztira, 67. Segida horretan, Oñati izan zen hirugarren jaiotza kopuru handiena izan zuen bailarako herria: azkenengo hiruhilekoan 15 jaiotza egon

Debagoieneko 2023ko jaiotza datuak

	JAIOTZAK HIRUHILEKO BAKOITZEKO			JAIOTZA-TASA 1.000 BIZTANLEKO		
	H1/2023	H2/2023	H3/2023	H1/2023	H2/2023	H3/2023
Arrasate	25	25	38	1.15	1.15	1.75
Bergara	18	25	24	1.22	1.70	1.63
Oñati	19	21	15	1.65	1.83	1.31
Elgeta	1	1	2	0.91	0.91	1.82
Antzuola	3	3	5	1.40	1.40	2.33
Leintz Gatzaga	0	0	0	0.00	0.00	0.00
Eskoriatza	5	2	14	1.19	0.48	3.34
Aretxabaleta	8	14	10	1.12	1.95	1.40
Aramaio	0	2	1	0	1.39	0.69
DEBAGOIENA	79	93	109	1.26	1.48	1.74

ITURRIA: EUSTAT

Ura URAREN EUSKAL AGENTZIA | AGENCIA VASCA DEL AGUA | EUSKADIKO ITUN BERDEA | EUSKO JAURLARITZAREN GOBERNUA VASCO

Betidanik, beste inork baino gehiago irabazi diogu urari. Baina inoiz ez dugu izan dena galtzeko orain dugun arriskua.

EZ DAGO URA BAINO INDARTSUAGORIK

Elena Arzak, Chef.
3 Michelin Izar, 2012ko Munduko Emakume Chef Onena.

www.indartsuagoak.eus

Esnekien sektorearen aldeko apustua egin dute

Gomiztegi eta Ama Txo gaztagileak sortu berri den Euskal Esnekigileen Elkartearen parte dira. Sektorea indartzeko, egindako lanari ikusgarritasuna emateko eta esnekien kontsumoari bultzada emateko sortu dute elkarte; 29 kidek osatzen dute

Iñigo Barrena DEBAGOIENA

Gipuzkoako, Bizkaiko eta Arabako 29 esnekigilek Euskal Esnekigileen Elkartea eratu berri dute. Hain zuzen, esnekigileen, gaztagileen eta jogurt-egileen apustu bateratua da, gazta onduak, freskoak, jogurtak, esne pasteurizatua, gurina eta abar ekoizten eta eraldatzen lan egiten duten artzainak, behizainak, ahuntzainak eta transformatzaileak batzen dituen; haien artean dira Debagoieneko Ama Txo eta Gomiztegi. Sektoreko ekoizleekin batzartu, bilerak egin eta eman beharreko pausoak zehaztu dituzte.

Elkartea duela urtebete jarri zuten martxan bost ekoizleek, eta tartean zen Ama Txo; ekoizlearen artean babesa izateko jarri zuten abian. "Hutsune bat ikusten genuen. Elkarrengandik ezer gutxi genekien, eta, gabezia berberak genituela ikusita, sektorearentzat onurak ekarriko zituen elkarte bat eratzea erabaki genuen", adierazi du Txomin Alberdik, Ama Txoko gaztagileak. Urtebeteko epean bost ekoizle izatetik 29 izatera igaro dira, eta denbora horretan batu da Gomiztegi ere. "Ideia zein zen komentatu zigutenean ondo iruditu zitzaigun. Horrek bide emango digu talde moduan babesa izateko, esperientziak trukatzeko eta beste ganaduzain eta ekoizle batzuk ezagutzeko", dio Gomiztegiko Ekain Muruak.

Era berean, elkarteak sektoreko profesionalen interesak ordezkatuko eta gauzatuko ditu administrazioaren aurrean, eta osasun-agintaritzarekin koordinatzeko bitartekaritza eskainiko die ekoizleei. Gainera, formakuntzak eskaintzeko asmoa ere badute, ekoizleen prestakuntza mailan eragiteko. "Modu horretan, onurak lortu nahi ditugu ekoizleak garenontzat. Pauso horiek emanda



Gomiztegiko gazta ekoizten duten tokia. TXOMIN MADINA

HIRU ABELTZAINZA-ESPEZIEREN ESNEKIAK EKOIZTEN DITUZTEN EKOIZLEAK BATU DIRA

kontsumitzaileen zein administrazioaren aurrean batasun bat erakutsi nahi dugu", adierazi du Alberdik.

Ekoiztutakoa ezagutzera eman

Elkartea osatzen duten kideek, guztira, 105 produktu ekoizten dituzte. Batzuek esne propioa erabiltzen dute; beste batzuek, aldiz, euskal jatorriko esnea erosi eta eraldatzen dute. Hala, aitzindaria da elkarte; izan ere, lehen aldiz batu dira hiru abeltzaintza-espezieren esnekiak ekoizten dituzten profesionalak. Hori dela eta, Gomiztegiko Ekain Muruak dioenez, "konbentzitu-ta" dago eurek ere "goi mailako" produktuak ekoizten dituztela, eta hain ezaguna den Idiazabalgo gaztaren marka horretaz gain badaudela beste batzuk; eta kalitatezkoak, gainera. Hain zuzen, horixe da elkartetik pla-

zaratu nahi dutena. "Errekonozimendu bat eduki nahi dugu. Jendea kontziente izatea gure produktuak erosten dituenarekin egiteko modu bat, gertukoa, eta bizitzeko modu bat eta filosofia bat dagoela horren atzean", dio Muruak.

Euskal Esnekigileen Elkartearen helburu nagusia ez da komertziala, baina sakonean edo zerrendaren amaieran dagoena da. Egindako lana ezagutzera emateaz gain, ekoiztutako produktuen salmentan eragina izatea ere badu helburu moduan. "Ez da helburu nagusia. Gu ere hor gaudela erakutsi nahi dugu, baina guztiaren amaieran helburu komertzial bat ere badu elkarteak. Sektoreari bultzada eman diezaiokeelakoan gaude", adierazi du Ekain Muruak.

Ateak zabalik

Elkartetik argi utzi nahi izan dute ateak zabalik daudela ekoizle berrientzat. Gainera, elkarreko kide izan nahi duenak ireki berri duten webgunean izango du informazioa, eta, bestalde, egiten duten lana ezagutzeko interesa duen ororentzat ere balio du.

Martxan dago Euspot-en hamahirugarren edizioa

Aurten landu beharreko gaia 'Telefono mugikorrek eta adin txikikoak' izango da, gizartean pil-pilean dagoena

I.B.K. ARETXABALETA

Euspoteko parte hartzaileek 30 segundoko ikus-entzunezko bat egin beharko dute, mugikorrek adin txikikoei eskaintzen dizkieten aukera eta mehatxuak azaltzeko erronkarekin. "Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza eta Politika Sailburuordetza da aurtengo babesle nagusia, eta gaia Euspot-era ekarri nahi izan dute, kontzientziazioa lortzeko", adierazi du Arantzazu Lagunillak, Artemaneko zuzendariak. Lanak bidaltzeko azken eguna maiatzaren 20a izango da, goizeko hamarrak baino lehen, Wetransfer bidez, euspotlehiaketa@arteman.eus helbidera.

3.000 euro saritan

Aurten ere 3.000 euro banatuko dituzte sarituen artean. Guztira, sei kategoria izango dira: Spotik onena (1.000 euro); Publikoaren

saria (500 euro); Gazteen saria, 18 urtetik beherakoak (500 euro); Musika sinkronizazio onenaren saria (300 euro); Mondragon Unibertsitateko ikasleen spotik onena (500 euro); Arizmendiko ikasleen spotik onena (250 euro). Publikoak maiatzaren 24tik (12:00etatik) 27ra arte (12:00ak) bozkatu ahalko du; sari bana-keta, berriz, ekainaren 6an izango da (19:00), Arkupe kultur etxean.

Hamahiru urteko ibilbidea

Hasieratik gaur egunera teknologia berriei esker lanen maila "nabarmen" igo dela aitortu du Lagunillak. Aretxabaletako alkate Gari Iturbek, berriz, garrantzia eman dio sorkuntza euskaraz egiteari: "Gaur egun bizi dugun egoera ikusita, sorkuntza euskara egitea garrantzitsua da, nire ustez".

Copreci eta Aita Menni saritu ditu LH Duala Euskaraz-ek

Urnietako Salestarrak-Magale Lanbide Heziketako ikastetxean egin den LH Duala Euskaraz egitasmoaren aitortza ekitaldian, euskarazko Lanbide Heziketa eta ikasleen lan munduratzeko euskaraz gauzatzeko garaian erreferente diren lantokien eta ikastetxeen jarduna aitortu eta praktika onak partekatu dituzte. Aurten, Copreciren, Aita

Menniren eta Elkarmediaren ibilbidea aitortu dute programaren sustatzaileek, lan-eremuan euskararen erabilera sustatzeko erakutsi duten konpromiso erdugarriatik.

Laneki elkartearen, Foru Aldundiaren eta Eusko Jaurlaritzaren arteko elkarlanean oinarrituta, LH Duala Euskaraz ekimenaren helburua da ikasleen euskararen ezagutza maila lan-esparrua euskaratzeko akuilu izatea eta euskaraz arlo horretan duen balioa azpimarratzea.

Langabeziak gora egin du Debagoienean urte hasieran

2024ko urtarrilean 2.424 langabe zeuden bailaran, eta %7,90ekoa zen langabezia-tasa; aurreko hilabeteko datuarekin alderatuz gero, 76 pertsona gehiago zeuden lanik gabe. Are gehiago, urtebeteko epearekin konparatuz gero, 2023ko urtarriletik gaur egunera arte ez da horrelako daturik erregistratu Debagoienean: udan, abuztuan, jo zuen

goia langabeziak, 2.373 langabezirekin eta %7,73ko langabezia-tasarekin.

Herrietako egoerari dagokionez, ia gehienetan egin du gora langabeziak. Arrasaten dago tasarik handiena: %11,07; ondoren, Eskoriatza (%7,47) eta Bergara (%7,22) daude. Langabeziak behera egin duen herri bakarra Elgeta da, abenduan baino lau langabe gutxiagorekin. Leintz Gatzagak ez du aldaketarik izan eta Aramaion ez dago daturik.



ikastolenelkartea

ikastola

Otsailak 7 - 23 > Aurre
matrikulazioa



Txantxiku
Ikastola



arizmendi
ikastola



ZABALIK

VALEN MOÑUX

'Toconao'-ren pinportak

Nire dedikazio profesionala industria arlokoa ez den arren, Antzuolan lan egiteak plastikoaren industria gertutik ezagutzeko aukera eman dit. Irakurle batzuek agian ez dakite plastikoa manufacturatzeko behar den lehengai gaztelaniaz *granza* deitzen den produktua dela; bolatxo batzuek osatzen dute eta hainbat formatu eta koloretan aurkezten dira.

2024aren hasieran, Galizian gertatutako plastikozko pelleten isurketaren berria eman zuten. Nik, jende askok bezala, *pellet* hitza material birziklatu konprimituarekin osatutako erregaiarekin lotzen nuen. Oso material praktikoa eta iraunkorra da eta gero eta gehiago erabiltzen da etxeetan eta industrian. Denbora bat behar izan nuen ohartzeko *pelletei* buruz ari zirela; Antzuolako eta Debagoieneko enpresa

PEDANTERIA PROBINTZIANO A DAGO ALFERRIKAKO GALIZISMOA ERABILTZEKO JOERAN

askotako langile askorentzat hain ezagunak ziren *granza*-bolatxoek buruz.

Sinestezina da, baina gaztelaniazko komunikabide guztiek frantseseko *pellet*

esamoldea erabiltzen dute plastikozko bolatxoak aipatzeko orduan. Uste dut nolabaiteko pedanteria probintzianoa dagoela alferrikako galizismoa erabiltzeko joeran. Halaber, albistea dramatizatze eta amplifikatzeko asmoa dagoela ere susmatzen dut. Askoz ere zirraragarriagoa da "grave vertido de *pellets* en la Costa Cantábrica" "un barco vierte un contenedor de bolitas de plástico en Galicia" baino.

Zorionez, hedabide euskaldunetan ez da egon desoreka linguistiko hori; izan ere, *bolatxoak* eta, batez ere, *pinportak* hitzak erabili dituzte normaltasunez. Azken hori nire gustukoena da gaztelaniaz hitz eginda ere: *pinportas de plástico*.

Tristeza da, gainera, *pellet* hitza erabiltzean gaztelaniazko umoristek eta Interneteko meme sortzaileek aukera galdu dutela txantxak egiteko, *Toconao* izeneko itsasontzia bolatxoaren sortzailea izanda: *el Toconao de las pelotillas*.

MARRAZKIZ

ALEX UGALDE



HANDIK ETA HEMENDIK

Lau sagar

NEREA LOIOLA

'BERRIA'-N ARGITARATUA

[HTTPS://LABUR.EUS/CDLAU](https://labur.eus/cdlau)

Lanetik iritsi berri da eta umeen merienda prest utzi nahi du beste ezer baino lehen. Bildu ditu ogitartekoak auzo berriko etxe berriko sukalde berrian, sartu ditu poltsan edateko jogurt batzuk eta frutontzira gerturatu da. Pieza bakarra dago. Nola ba, apustu egingo luke goizean lauzpabost zeudela. Erlojuari begiratu dio: ordubete barru aterako dira umeak ikastolatik eta korrika saioa egin nahi zuen aurretik.

Aldameneko auzoko betiko denda txikira joaten bada, ez

du izango nahi beste korrika egiteko astirik; auzo berrian kate handi batek zabaldu duen *city* supermerkatuara joaten bada, bai. Auzo berrian denda txikiren bat egongo balitz, bertara joango litzateke; beti babestu izan du bertako komertzioa, erosle arduratsutzat du bere burua. Baina auzo berrian ez du inork halakorik zabaldu. Auzo berriko etxebizitzaren etxabeetan salgai dauden lokalak eskuragaitzak dira merkataritza txikientzat.

Udalak egiten ditu tarteka bertako komertzio txikia sustatzeko kanpainak, baina ze eredu bultzatzen da benetan? Nolako erraztasunak jartzen zaizkie merkataritza

txikiei? Nolako trabak? *Bed and breakfast* erako auzoak eraikitzen badituzu, sinesgarritasunik badu hauek bizigarri egiteko zure asmoak?

Kirol arropak jantzita jaitsi da etxepeko supermerkatu handira, total, lau sagarrentatik ez da ezer gertatzen, konbentzitu du bere burua. Gaur bakarrik. Azkenean, bertan zela aprobetxatuz, oilasko bularkiak, gazta, afaltzeko arrautzak, zorroko patata batzuk eta tomate frijitua ere erosi ditu. Horregatik, iluntzean ez da betiko denda txikitik pasatuko. Baina gaur bakarrik, errepikatu dio bere buruari.

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEAwww.goiena.eus

Argitaratzailea

Goiena Komunikazio Taldea
Kooperatiba Elkarte
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

Lehendakaria

Monika Belastegi.
Zuzendari nagusia
Iban Arantzabal.
Eduki zuzendaria
Eneko Azkarate.

Erredakzio batzordea

Eneko Azkarate, Goiatz Arana,
Monika Belastegi, Mirari Altube.

Zuzendari komertziala

Mireia Larrañaga.
Administrazio zuzendaria
Agurtzane Gaintzarain.

Diseinu arduraduna

Iñaki Iturbe.

Hizkuntza arduraduna

Sergio Azkarate.

Harpidetza eta banaketa arduraduna

Igone Osinaga.

Sailletako arduradunak

Xabier Urzelai (Kirola),
Aitziber Aranburuzabala (Kultura).
Maketazioa
Imanol Soriano,
Aitor Lagoma,
Amaia Martínez de Arenaza.

Publizitatea

Mireia Larrañaga, Ziortza Martin,
Amaia Mundiñano.

Administrazioa

Ane Berezibar, Iratxe Bengoa,
Leire Etxebarria.

HARPIDETZA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.eus

PUBLIZITATEA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
publi@goiena.eus
EGOITZA NAGUSIA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05
Telegram eta WhatsApp:
688 69 00 07
berriak@goiena.eus

Lege Gordailua: SS-965/2014

ISSN: 2174-369X
Tirada: 18.550 ale

Inprimategia:

Zeroa Multimedia

GOIENAK ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.



GOIENA KOMUNIKAZIO TALDEA

LAGUNTZAILEAK



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatiko Udala



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaioko Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagako Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia

BERBAGAI

"Kanpoko talentua ezinbesteko izango dugu"

MARIA ALONSO DAITEKE ENPRESAKO GIZARTE-AHOLKULARIA

Miren Arregi Amasorrain ARRASATE Garaia Parke Teknologikoa ezagutza partekatze, profesionalak konektatzeko eta talentuaren kudeaketan berritzeko agertoki bilakatu da asteen, eta hitzaldia eskaini du Daiteke aholkularitza enpresako Maria Alonso arrasatearrak. Etorbizuneko lanaz aritu da. **Etorbizuneko lana jada sortuta dauden sektoreetan egongo da?** Batzuk mantenduko dira, eta sektore berriak ere sortuko dira. Bi erronka nagusi aipatu behar ditut: batetik, teknologikoa; eta bestetik, erronka berdea. Eta horren eraginez lana sortuko da automatizazioan, robotikan, informatikan, ingeniariaren industrian eta komunikazioan eta marketinarekin lotura duten lanpostuetan. **Eraldaketa digitalak, trantsizio energetikoak, erronka demografikoak... Aukera berriak eskainiko dituzte, beraz.** Bai, baina kudeaketa egokia ezinbestekoa izango da,



Maria Alonso, Arrasaten. M.A

ahultasunak aukera bilakatzeko. Esaterako, erronka demografikoari aurre egiteko, batez ere, hiru kolektiborekin lan egin beharko da: kanpotik datorren jendearekin, kanpotik

datorren talentuarekin, emakumeekin eta gazteekin. Erronka energetikoari dagokionez, politika publikoak ezinbestekoak izango dira erronka horrek erasango dituen sektoreak

laguntzeko, eta eraldaketa digitalak aukerak dakartza, baina prestatu egin beharko dugu, polarizaziorik sortu ez dadin.

Kudeaketan dago gakoa? Aurre hartzean?

Elkarrekin lan egin beharko dute enpresa munduak, hezkuntza alorrak eta erakunde publikoek, norabide berean, erronkei aurre hartzeko. Beste modu bateko lanak sortuko dira eta denok prest egon beharko dugu erronkei aurre egiteko.

Nola ikusten dituzu enpresak? Ari dira prestatzen?

Bai, baina denbora eta errekurtsio gutxi dituzte. Kezka badute eta ari dira lanean, baina gehiago behar da.

Erakunde publikoek zein erantzukizun dute, alde horretatik?

Gakoa hor dago; enplegua bultzatzen duten politikak behar dira. Egiten da, baina badaude hobetzeko gauzak. Halere, EA Eren egoera nahiko pribilegiatua da, horri dagokionez.

Ikasketak lan merkatuarekin batera aldatu beharko dira?

Badago elkarlana. Harreman hori ezinbestekoa da, hezkuntza zentroek jakin behar dute zeintzuk diren enpresen beharrak. Bultzatu

egin behar dugu elkarlan hori; halere, esan behar da badagoela. Adibide bat sistema duala da, jendea prestatzen baitu enpresen beharretara.

Langile kualifikatuen falta dagoela ere esaten da; zer egin horri buelta emateko?

Kanpoko talentua erakartzea da horretarako aukera bat. Prestatu egin behar ditugu gure enpresetan txertatzeko. Horretarako ez da bakarrik enpresa prestatu behar, baizik eta ingurune guztia. Azkenean, pertsona bat kanpotik baldin badator familiarekin, hezkuntza, osasuna, auzoa... dena gertu egon behar da familia hori hartzeko.

Zein ezaugarri bilatuko dituzte enpresek langileetan?

Egokitzeko eta komunikatzeko gaitasunak, erresilientzia, aldaketara egokitzeko gaitasuna, lantaldean aritzeko gaitasuna, pentsamendu kritikoa, sormena...

Erretiro kopuru handia aurreikusten da datozen urteei begira?

Bai, eta hori arazoa da. Errelebo asko izango direlako batera; modu planifikatuan egin beharko dute trantsizio hori, ezagutza galdu ez dadin eta transmisioa egoki egin dadin.



Realaren eta Vila-realaren arteko partidarako sarrerak futbol zelaiko tokirik onenean

GOIENAKIDEENTZAKO ESKAINTZA

Reala-Vila-real norgehiagoka beste modu batera ikusteko aukera bikaina duzue eskura zuek eta zuek aukeratutako beste lagun batek:

Reale Arena futbol zelaiko premium gunetik.

Partida otsailaren 23an, egubakoitza, 21:00etan izango da.

Parte hartzeko azken eguna: otsailaren 18a.



Egin Goienakide eta Realak ikusteko aukera izango duzu!

goiena"
kide

Okm:
batzen gaituen
distantzia

Ezin errazagoa da zozketan parte hartzea!



1. Aplikazioa deskargatu.

2. Zozketak atalean sartu eta parte hartu.

Gertu. Zorte on!





Eva Abuin, Jasone Giraldo eta Iñigo Garitano, planaren aurkezpenean. E.A.B.

Aniztasunetik, bizikidetzarantz

Arrasateko Udalaren II. Bizikidetzeta eta Aniztasun Plana aurkeztu dute, 2024tik 2027ra gauzatzeko asmoa dutena. Planaren helburu nagusia izango da giza eskubideekin konprometitutako herria eraikitzen jarraitzea, aniztasun mota guztiak aintzat hartuz

Eneko Azurmendi Barrena ARRASATE Udalbatzak martitzenean eman zion onarpena 2024tik 2027ra artean gauzatu gura duten planari. Nabarmentzekoa da bigarren plana dela onartutakoa; 2020-2023 artean gauzatuak jarraipena emango diona. "Edozelan ere, bada diferentzia esanguratsu bat; izan ere, lehenak aniztasun kulturean eta kulturen arteko bizikidetzan oinarritutako ekintzak bakarrik planteatzen zituen, eta bigarrena harago doa, aniztasuna modu zabalagoan ulertzen baitu", azaldu du Jasone Giraldo, Arrasateko Udaleko Bizikidetzeta Saileko zinegotziak.

Herriko eragileekin elkarlanean arituta eta iaz egindako hausnarketa-prozesu baten baitan hainbat hutsune identifikatu zituzten, eta horiei erantzuteko beharra ikusi. "Batetik,

aniztasun hitza betiko fokutik ateratzeko beharra ikusi dugu; eta, bestetik, kolektiboek eskatzen dute haien eskubideak aintortzea eta haien berezitasuna berrestea, hainbat dimentsiori dagokienez, hala nola etnia, kultura, hizkuntza, erlijioa, ideologia, desgaitasuna, generoa eta abar", dio Giraldo.

Sailen arteko elkarlana

"Anbizio handiko" plana da, eta udal mailan, adibidez, eguneroan lan egiteko modua aldatzea ekarriko dute planak jasotzen dituen lan-ildoek, sailen arteko

UDALBATZAK AHO BATEZ ONARTU DU PLANA, ETA ALDERDI GUZTIEK JO DUTE BEHARREZKOTZAT

elkarlana sustatuz, hain zuzen. Horretarako, teknikari propio bat kontratatuko du Udalak, planaren arlo teknikoaz arduratuko dena, Gizarte Zerbitzuetako teknikari Iñaki Garitanok azaldu duenez.

Horrez gain, datozen urteetan gauzatu dituzten ekintzen berri eman du Garitanok: "Ekintza guztiak planifikazio eta zehaztapen konkretua dute: nori zuzendua dagoen, ekintzaren deskribapena eta helburua definituz, horren ardura politikoa eta teknikoa identifikatuz, lehen-tasun maila adieraziz, eta haien betetze maila ebaluatuko duten irizpideak definitzen ditu. Horrek planaren betegarritasun bermea ematen digu".

Lehentasuna: begirada aldatzea
Lehentasun nagusia begirada aldatzea dela dio Bizikidetzeta

Hiru urteko ekintza-plana da

Hamasei lan-ildo eta 24 ekintza jasotzen ditu planak:

- **Ekarpenak jaso** Arrasate inklusiboago bilakatzeko, Udaleko sail guztien ekarpenak jasotzea eta horiek abiaraztea.
- **Adierazpen instituzionalak** Elkarbizitzaren alde eta diskriminazioaren aurkako adierazpen instituzionalak gauzatea.
- **Herritarrei harrera egitea** BAZek eta Udaltzaingoak herritarrekiko harremanetan duten laguntzaile eta bideratzaile lana sustatu eta lantzea; Harrera, Orientazio eta Informazio Zerbitzuarekin jarraitu eta indartzea.
- **Aniztasun sarea** Aniztasun mota guztiak jorratzen dituzten elkarte, erakunde eta eragileekin koordinatzea eta harremanak mantentzea.
- **Formakuntza** Aniztasun kontzeptuaren zeharkakotasuna eta kulturartekotasunaren ikuspuntua Udaleko sail guztiak lantzeko, eragileei formakuntza ematea aniztasuneari.
- **Hizkuntza aniztasuna** Komunikazio era guztiak kontenplatu eta ahalbidetzea: piktogramak, itzultzaileak eta abar.
- **Euskara eta hezkuntza** Ikasle etorkinengan euskararen ezagutza indartzea; ikastetxeetan DBHn gauzatzen den Bizikidetzeta Tailerrak garatzen jarraitzea eta LHko azken mailetan garatzen hastea.
- **Haurrak eta gazteak** Bereziki, haurren eta gazteen aukera berdintasuna sustatzea, guztiak gizartean aukera eta eskubide berberak izateko eta ekitatea bermatzeko.
- **Hirugarren adina** Hirugarren adinekoengan begirada aktiboa eragiten duten ekintzak sustatu, landu eta garatzea.
- **Espazio berriak sortu eta indartzea** Gai zehatzak lantzeko espazioak sortzea, momentu bakoitzean sortzen diren beharrei erantzuteko.
- **Planaren difusio eta dibulgazioa** Udalaren eta herritarren artean plana sozializatzeko eta ezagutzeko prozesuak sustatzea.
- **Etxebizitza** Auzokako banaketa orekatua bultzatzea, bizilekuari dagokionez; herriko etxebizitza eta eraikin hutsen identifikazioa egitea; Txasetan bizikidetzeta sustatu eta estigma negatiboa kentzeko ekintzak bultzatzea; alokairuak ahalbidetzeko sentsibilizazio-kampainak egitea; aterpetxe ereduaren lanketa egitea.
- **Errolda soziala** Errolda sozialaren lanketa egitea, eta hura gauzatzeko protokoloa sortu eta zabalkunde egitea.
- **Enplegua** Pertsonen errealitate eta gaitasunetara egokitutako formakuntza sustatu eta paraleloki eskualdeko egitasmoekin lantzea; langabezian eta eskusio arriskuan dauden herritarrei lan-merkatara sarbidea errazteko tresna eta baliabideak eskaintzea, pertsona horiek trebatzea.
- **Genero aniztasuna** Feminismoa eta LGTBI+ Sailarekin elkarlanean zehar-lerroak sortzeko ekintzak sustatzea.
- **Elkar ezagutza** Elkar ezagutzarako espazioak sortu edo indartzea, eta horien parte hartzea sustatzea herritarren artean.

zinegotziak; herritar orok egunerokoa aniztasunaren betarrekotatit ikustea, nolabait. "Hori hala bada, berez etorriko dira hobekuntzak", dio. Era berean, bizirik dagoen plan bat dela azpimarratu du: "Ondorioz, aldaketak izan ditzake bidean.

UDAL GOBERNUAK DIO HERRIKO ELKARTEAK ETA ERAGILEAK FUNTSEZKOAK DIRELA PLANA GAUZATZEKO

Etengabe ebaluatzen joango gara eta beti zabalik egongo da hobekuntzetarako. Guztia egiteko daukagu, eta ekarpenak ongi-etorriak izango dira".

Gaineratu du horretarako ezinbestekoak izango direla herriko eragileak, "orain arte moduan". "Haiek izan dira honen bultzatzaileak, eta guri erantzutea dagokigu", azpimarratu du Giraldo. Era berean, Feminismoa eta LGTBI+ Saileko zinegotzi Eva Abuinek eskerrak eman dizkie elkarte eta eragile guztiei, lanetan laguntzeagatik.

BAZek aurten ezarritako ordutegiari eutsiko dio

EAJk eta PSE-EEK mozio bat aurkeztu dute otsaileko osoko bilkuran, "murrizketarik gabeko Biztanleriaren Arreta Zerbitzuaren aldekoa"; edozelan ere, EH Bilduk eta Elkarrekin Arrasatek aurka bozkatu dute, eta, ondorioz, mozioak ez du aurrera egin

Eneko Azurmendi Barrena ARRASATE Urtarrila ezker, ordutegi berria du BAZek. Astelehenetik egubakoitzera 07:30etik 15:00ak arte egoten da zabalik, bi salbuespenekin: eguenetan 07:30etik 18:00ak arte ematen du zerbitzua eta zapatuetan, 09:00etatik 13:00etara.

Hori salatzeke, jeltzaleek eta sozialistek mozioa aurkeztu zuten martitzeneko osoko bilkuran. "Arrasatearrentzako ezinbestekoa den zerbitzu honek murrizketa handia izan du, Arrasateko Udal Gobernuaren aldebakarreko erabaki baten ondorioz. Modu horretan, urtean 524 ordu gutxiagoko zerbitzua izango dugu herritarrok, eta 227 arratsaldetan irekita egotetik 45 arratsalde irekita egotera pasako da". Hori dela eta, lehengo ordutegira itzultzea eskatzeaz gain, prozesu parte-hartzaile bat ere eskatzen zuen mozioak.

Hainbat aldaketa bulegoan

Edozelan ere, Udal Gobernuak bi koalizioek ezezko botoa eman zuten eta Kepa Urteaga EH Bilduren bozeramaileak zera adierazi zuen: "2015etik ez du legea betetzen BAZek, eta moldaketa batzuk behar ditu. Horretan dihardugu lanean, eta guk ez dugu uste zerbitzuaren murrizketa denik, kontrakoa baizik:



Martitzenean egin zuten osoko bilkura; mozioak ez zuen aurrera egin. E.A.B.

zerbitzua indartu egin dugu, langile bat gehiago jarri dugulako. Gainera, esan behar da ordutegia aldatuta ere Gipuzkoa osoko ordutegi malguena daukala Arrasatekoak".

Ordutegiaz gain, BAZek izan duen aldaketetako bat langile kopuruan dago. Izan ere, langile bat gehiago egongo da aurrerantzean. Hala, zazpi langile edukiko ditu BAZek -horietako hiru, jardun mugatuan-.

Halaber, aldaketa fisikoak ere izango ditu bulegoak; izan ere, bezeroaren eta langilearen ar-

teko maila kendu egingo dute eta panel bereziak jarriko dituzte, gertutasuna eta intimitatea lortzeko. Horrekin batera, izapideak egiteko makina bat 24 orduan martxan izatea aurreikusten du Gobernuak. Izapideen gidaliburuari dagokionez, eguneratu egingo dute, eta horretarako lizitazioa ere eskatuta du Udal Gobernuak.

Urteagaren esanetan, aldaketa horiek denbora beharko dute: "Prozesu hau aldakorra da, eta, bidean zerbait moldatu behar bada, moldatu egingo dugu".

NIRE USTEZ

KARMELE PEREZ LIZARRALDE

Euskara eta euskal kultura

Hiztunen euskara-gaitasuna hobetu beharraz asko hitz egiten da, baina zehaztasun gabe aipatzen da kultur hezkuntza. Zer da, baina, hizkuntza bat bere kulturatik aparte? Ozen aldarrikatzen dugu euskararen transmisioa euskal kulturaren transmisioarekin konektatu beharra, ezinbestean. Mundu berdindu honetan, herri izaten jarraituko badugu, konexioak egiteko erreferenteak behar ditugu historian eta mitoetan, literatura eta musikan, arte eta zientzietan, lan-molde eta ofizioetan, ohitura eta errituetan, eguneroko bizitzan eta ospakizunetan, entretenimendu eta kiroleetan, sozializazio eta gobernantza moldeetan... Ia dena baita kultura, garaian garaiko tradizioz eta berrikuntzaz jantzia, collage bihurtuta ere, euskaratik interpretatzen eta adierazten ikasi behar duguna. Ikasi behar dugula diot, irakasleok, familiok eta herritarrok, oro har, galduta baititugu sarri konexio horietako asko. Pista asko aurkitu ditut Xamarren *Biziaroak*, *herri kultura* liburuan. Eta pentsatu dut zein garrantzitsua den iragana ezagutzea, oraina ulertu eta etorkizuna imajinatzeke. Euskaratik eta errenditu gabe. Herri-begirada eta herri-adierazpena garatzen jarraitzeko.

OHARRAK

'Tortura Arrasaten, genero ikuspegitik'

Otsailaren 14an aurkeztuko dute, 18:30ean, Kulturateko areto nagusian, Intxorta 1937 Kultur Elkartearen eskutik.

Ikastaroa: 'Aurpegiako makillaje naturala'

Bertako produktuen azokaren baitan egingo dute, otsailaren 17an, Seber Altuben. Izena emateko, bi bide: 943-25 00 00 zenbakira deituta edo izenemateak. arrasate.eus webgunean.

San Isidro elkartearen batzar orokorra

Otsailaren 18an egingo dute. Lehen deialdia 11:30ean izango da eta bigarrena, 12:00etan.

'Karkabatik herria' zikloa bueltan da

Lehen solasaldia Jokin Bergararen *Adaxka lehorrak*. *Talka ekosozialaren biharamun politikoak* liburua ardatz hartuta egingo dute, otsailaren 21ean, 19:00etan, Irati Topalekuan.

'Ecstatic dance' saio bat gehiago

Ekin Emakumeak Elkarteak antolatuta, otsailaren 23an egingo dute, 18:00etatik 20:00etara, Mesedeetako ikastetxean, Agurtzane Altunaren eskutik. Izena eman daiteke elkartearen bertan.

Zatoz gu ezagutzera

Eskola txikiak,
familia giroan

Aurten dohainik

Deitu hitzordua
hartzeko.

Arrasateko
HAURRESKOLAK



MUSAKOLA haurreskola
Elkano 8 • Tel.: 943 79 13 03

BEDOÑABE haurreskola
Alfontso VIII 1 • Tel.: 943 79 76 86

ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN

EUSKO JAURLARITZA
DEPARTAMENTU BILA

GOBIERNO VASCO
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN

Elkartasunez jantziko dute gaur parrokia

Harreman gobernuz kanpoko erakundeak antolatuta, kontzertu solidarioa egingo dute gaur San Juan Bataiatzailearen parrokian, 20:00etan. Goikobalu Izartxo, Goikobalu Txiki, Goikobalu Abesbatza eta Arrasateko Gazte Abesbatza arituko dira kantuan

Amaia Ramirez de Okariz

Kortabarria ARRASATE

Elkartasunez jantziko dute gaur, zapatua, Arrasateko parrokia, Harreman gobernuz kanpoko erakundeak antolatuta helburu argia duen kontzertua antolatu baitute: "Era guztietako ezbeharrak pairatzen dituzten eta premia larriko egoerak bizi dituzten planetako eremuetako pertsonak ezagutaraztea eta laguntzea; horregatik, eskerrak eman nahi dizkiegu abesbatza horiei, ekarpen paregabeagatik".

Maialen Gonzalezen zuzendaritzapean arituko da Goikobalu Izartxo; Goikobalu Txiki eta Arrasateko Gazte Abesbatza,



Goikobalu Izartxoak abesbatza. GOIKOBALU

berriz, Txomin Maidaganek eta David Vargasek zuzenduko dituzte; eta Goikobalu Abesbatza, azkenik, Iñaki Maidaganek.

Proiektuen ezagutza

Kontzertuen bitartez, Harremanek helburu du Indian eta Mozambikeren "persona askori etorkizun duinagoa izaten laguntzen dieten" proiektuen berri ematea, eta baita herritarrak bazkide edo laguntzaile gisa parte hartzea animatzea ere. Hain justu, Mundukideren eskutik, Mozambikeren nekazariekin batera egiten du lan; Indian, berriz, harreman-erretxe batean dihardu lanean, "familia oso pobreetako 200 haur baino gehiago" artatzen.

Jasotako diruari dagokionez, Harremanek azpimarratu du "jarraipen zorrotza" egiten diola bildutako diruaren erabilerrari, eta zuzenean proiektueta bideratzen dutela: "Ez dago bitartekaririk eta ez dago egitura gasturik". Izan ere, euren lana boluntarioa dela erantsi du: "Mundu justuago, jasangarriago eta solidarioago bat pertsona guztientzat lortzeko beste asmorik ez dugu".

Ahoz Aho jaialdian izango dira Charo Pita eta Odei Arregi

Datorren egunean, hilaren 15ean, Arrasatera iritsiko da Ahoz Aho jaialdia, eta Charo Pita galiziarra eta Odei Arregi euskal herritarra izango dira Kulturaten, 18:00etan. Ipuin kontalariak dira biak, eta hurrentzako ipuinak kontatzen arituko dira. Hilaren 21ean, 28an eta martxoaren 20an ere izango dira ekintzak.

Nagusientzako laguntza digitalaz aritzeko hitzaldia

Nagusientzako laguntza digitalaz arituko dira hilaren 13an, martitzenean, Kulturateko areto nagusian, Arrasateko Nagusien Kontseiluak antolatuta, 17:30ean. Home Care Lab proiektuko kide Begoña Calleja eta Monika Navajas izango dira hizlariak, eta adinekoentzako eta haien elkarreentzako tresna digital erabilgarriez hitz egingo dute.

EZ DUGU IZATERIK ASKE HAI EK GABE
Unai, Arbe eta Peixoto Arrasatera!
IRATI • TAUPA • ILUNTZ
MONTE • DAT • OSORIK

etxera

ELKARLANEAN ERAIKITAKO ESKOLA ANITZA

goieskola

debagoleneko euskal
eskola publikoa



MATRIKULAZIOA otsailaren 7tik 23ra

Guztion eskola, guztion artean



baikara



Arrasate
Institutua

ARRASATE HERRI ESKOLA

Bedoñabe
Alfonso VIII, 1
943 79 20 69

Musakola
Elkano 10
943 79 04 49

Erguin
Uribarri auzoa 36
943 79 77 74

arrasatehe@arrasatehe.eus

ARRASATE INSTITUTUA

DBH eta Batxilergoak
Santander Teresa 25
943 89 94 78

arrasateinstitutua@arrasatebhi.eus

ARRASATE

Bideoa
ikusgai:





Jon Olivares eta Aitziber Garmendia, eszenatokian. TANTTAKA

'Esnearen kolorekoa' antzezlanana etzi, domeka

Tanttaka Teatroren azken lanak geldialdia egingo du Amaia antzokian, Aratustek girotzeko. XIX. mendeko Ingalaterran girotutako antzezlanean Mireia Gabilondo eta Jon Olivares bergarrek dihardute, beste hainbat aktore ezagunekin batera

Mireia Bikuña Madrid ARRASATE
Nell Leyshonek 2019an idatzitako izen bereko liburuan dago oinarrituta Tanttaka Teatroren azken lana: *Esnearen kolorekoa* (domeka, 19:30, Amaia antzokia). XIX. mendeko nekazaritza giroko Ingalaterrako baserri batean bizi den neskato bat du protagonista. Aitziber Garmendia da Mary. Harekin batera egongo dira oholtza gainean Mireia Gabilondo eta Jon Olivares bergararrak, Miren Arrieta, Joseba Apaolaza eta Jose Ramon Soroz. "Oso gustura gaude orain arte egindako bide laburrekin. Istorio oso polita da eta ikusleek ondo jaso dute", esan du Gabilondok.

Pertsonaia bereziak egongo dira oholtza gainean, urtaroen eta baserriko lanen konpasean isurtzen den ingurune bukoliko batez inguratuta. Maryren (Aitziber Garmendia) ahaleginari esker, beste pertsonaia guztiek izango dute zentzua istorio horretan.

Arrasate Musikal
Domekako antzezlanaz gain, egongo dira beste aukera batzuk kultura kutsuarekin Aratusteez gozatzeko. Arrasate Musikalek emanaldi bikoitza egingo du asteburuan. Gaur, barikua, ohiko duten Aratuste kontzertua egingo dute, 18:30ean, Amaia antzokian. Eskolako hainbat taldek parte hartuko dute eta, guztira, 100 bat musikari pasako dira eszenatokitik, askotariko piezak interpretatzeko. Sarrera debalde da.

Bihar, zapatua, Arrasate Musikaleko Big Band Txarangaren txanda izango da. Kalerik kale ibiliko dira, herritarrek dantza egitera animatzeko. Big Band taldeak urteak daromatza txar-

ANTZERKIA, MUSIKA EMANALDIK, DISKO FESTAK, KALEJIRAK ETA BESTE ARATUSTEETAN

ranga-lanak egiten ospakizun zehatz batzuetan.

Pailazo emanaldia
Asteburuaren ostean, Aratuste-martitzena ere indartsu etorriko da. Bereziki, neska-mutikoendako hainbat hitzordu egongo dira. 17:00etan, disko festa egongo da, Txatxilipurdiren eskutik, Biteri plazan, eta ordu berean, pailazo emanaldia Amaia antzokian. Tomaxen Abenturak taldeak *Azken festa* ikuskizuna egingo du. Tomaxen eta Muxiren azken urtea izango da hauxe, eta urte hauetan guztietan egingo dako ikuskizunetako pasarte onenak batu dituzte, agurtzeko. Aratusteetako azken orduetan musika izango da protagonista herriko kaleetan. Samasiku txarangaren kalejira 17:30ean, erraldoi eta kilikien kalejira 18:30ean eta Nemux taldearen disko festa 19:30ean. Azken ekitaldia sardina-ehorzketa izango da, gaueko bederatzietan, Herriko Plazan.

"Txotxongilo bakoitzak emozio bat adierazi gura dio ikusleari"

CORRADO MASSACI TXOTXONGILO-EGILEA

Erakusketa ipini du Kulturaten, martxoaren 2ra arte

M.B.M. ARRASATE

Txotxongiloen ametsak erakusketa ipini du Corrado Massacik Kulturaten. Atzo, eguena, zabaldu zituen ateak, eta martxoaren 2ra arte egongo da zabalik.

Zer ikusi ahal izango dugu erakusketan?

Hari-txotxongiloak, hainbat estetikarekin: japoniarrak, txinatarrak, afrikar estilokoak... Denak nik eginak. Txotxongilo surrealistak dira, onirikoak. Gizakiari eta ametsen munduari buruzko gogoetak egiten dituzte.

45 urte daromatza txotxongiloak egiten; nola eboluzionatu du txotxongiloak egiteko moduak?

Asko eta azkar. Ni neu nire jatorrira itzultzen ari naiz, eta, alde horretatik, sinpletasuna bilatzen dut. Txotxongilo bakoitzak emozio bat adierazi nahi du, ikusleari begira. Helburua da erritmo eta mugimendu batzuen bidez, eta, nire kasuan, txotxongilo baten bidez, emozioak transmititzea.

Nola sortzen duzu txotxongilo bat?

Lehenik, pertsonaia bati buruzko ideia bat sortzen da, existitu daitekeena edo ez. Gero, txotxongilo horrekin kontatu nahi dudala erabakitzen dut, eta, gero, pertsonaia horrek behar dituen mugimenduak zehazten joaten naiz. Txotxongilo guztiak desberdinak dira. Mugimendu desberdinak dituzte. 45 urte hauetan, ez ditut inoiz bi txotxongilo berdin egin. Ez nuke jakingo zenbat egin ditudan esaten,



Massaci txotxongilo batekin. M.B.M.

baina badakit denak desberdinak izan direla.

Mugimenduek harrapatzen dute ikuslea?

Bai. Mugimenduekin kontaktzen dut istorioa, eta ikusleak jakin-mina du nola egingo dudan jakiteko. Haurrei zein helduei gustatzen zaie. Belaunaldien artekoa da.

Bisita gidatuak egingo dituzu hilaren 16an eta 23an; nolakoak izango dira?

Bi egun horiek publiko orokorrarentzat izango dira. Txotxongilo batzuen istorioa kontatuko dizuet, etortzen den jendearen profilararen arabera. Bi egun horietarako, aurrez eman behar da izena, kultura@arrasate.eus helbidean. Gainera, tailerrak eta bisita gidatuak egingo ditut eskoletako umeekin, txotxongilo bat nola eraiki daitekeen ikus dezaten.

'Memorias de la mar ciega' liburua aurkeztuko dute gaur

Etxean aurkeztuko du Josu Arteaga arrasatearrak bere azken eleberria: gaur, egubakoitza, Kulturateko Jokin Zaitegi gelan, 19:00etan. Patxi Irurzun idazle eta laguna izango du alboan aurkezpen-ekitaldian. Desacorde argialetxearekin publikatu duen liburuaren ale batzuk salgai egongo dira. Liburu-denda askotan eros daiteke dagoeneko.



Euskal dantzak gaur, Aratusteak hasteko

Lagun Artean dantza taldeak, Trikiti Eskolak eta txistulariek elkarlanean antolatu dute gaurko ekitaldia. Biharko egitaraua ere prest dago, baina, eguraldi txarra eginez gero, kalejira bertan behera geratuko da eta mozorro lehiaketa frontoian egingo dute

Idoia Aranbarri Arzuaga ARAMAIO

Gaur emango zaie hasiera Aratusteei, Lagun Artean dantza taldeak herriko trikitilari eta txistulari taldearekin elkarlanean antolatutako kalejirarekin. 19:00etan abiatuko dira, plazatik, eta herrian zehar Euskal Herriko Inauterietako dantzak egingo dituzte ikasturte honetan osatu diren zazpi taldeek, hala nola txantxoak, Altsasuko momotxoroen dantza, Zuberoko maskaradetako godalet dantza eta Lantzeko zortzikoa.

Oihane Vicente dantza irakasleak aurreratu du inoiz dantza ez duten dantzaren bat edo beste egingo dutela. Hori guztia, "arropa koloretsua" jantzita, Inauteri giroan murgiltzeko. Gaurkoaz gain, Martxoaren 8aren bueltan ere kalera irtengo direla adierazi du Vicentek.

Trikiti kontzerturik ez

Azken urteetan trikiti jaialdiarekin hasi izan dira Inauteriak Aramaion, baina aurten ez dute egingo. Horren ordez, kalera aterako dira 30 trikitilari inguru dantzariekin batera. Aritz Alustiza trikiti irakaslearen esanetan, ekitaldia beste taldeekin elkarlanean egin eta kalera ateratzea erabaki dute. Hala ere, ez du baztertzaren hurrengo urteetara begira kontzertua egitea.

Zapatuan ere festa

Bihar, berriz, arratsalde parteko antolatu dute festa; baina eguraldiak baldintzatuko du egitaraua. Eguraldi onarekin 17:30ean, kalejira egingo dute, frontoitik hasita, eta herriko plazan amaituko da. Ondoren, ohiko mozorro lehiaketa egingo dute han eta, behin sariak emanda, txokolate-jana egingo dute. Azkenik, disko festarekin borobilduko dute eguna. Eguraldi txarra egiten badu, ordea, kalejira bertan behera geldituko da eta 18:00etan mozorro lehiaketa



lazgo mozorro lehiaketako talde bat. GOIENA

MOZORRO LEHIAKETAN PARTE HARTZEKO DEI EGIN DIE ARAMAIOKO UDALAK HERRITARREI

egingo dute frontoian. Azaldu dute erabakia gaur, ostirala, hartuko dutela eta Udalaren komunikazio kanaletatik jakinaraziko dietela herritarrei.

Mozorro lehiaketa

Aratusteetako hitzordu nagusietako bat da mozorro lehiaketa eta gaur arte izena emateko aukera egon bada ere, egunean bertan ere eman ahal izango da. Hori horrela izanik, Aramaioko Udalak herritarrek mozorroto eta parte hartzera animatu ditu. Gutxienez lau pertsonako taldeetan edota banaka har daiteke parte eta gaia librea da.

Mozorro onenak eta sormenak sariak izango dituzte. Haurren nahiz 14 urtetik gorako kategoriatan banatu dituzte taldekako sariak eta bi kasuetan, lehen sarituak 150 euro jasoko ditu; bigarrenak, 90 euro. Bes-

talde, originaltasuna 90 euroekin sarituko dute; horretan, ordea, sari bakarria egongo da eta banakakoa edo taldekakoa izango da.

Martitzenean eskolaren txanda

San Martin eskolan martitzenean ospatuko dituzte Aratusteak, desfilearekin eta ikuskizunarekin. Urteroko ohiturari jarraituz, 14:30 inguruan, kalejira egingo dute eskolatik plazara HH-2tik LH-6ra bitarteko 90 ikaslek, gutxi gorabehera. Eskolak ez du aurreratu aurtengoan aukeratu duten gaia. "Egunean bertan jakingo da", azaldu dute. Aukeratutako gaiaren bueltan jantzi-ko dira eskolako ikasleak eta plazan egingo duten ikuskizunak ere horixe izango du ardatz. Ekitaldia amaitzeko, txokolate beroa eta bizkotxoa dastatzeko aukera izango dute ikasleek, eskolako aterpean.

Aratusteekin amaitzeko, arratsaldeko bostetatik aurrera, Ludotekan egingo dituzten maskara eta karioken tailerretan parte hartzeko aukera izango dute herriko txikiek. Bost urtetik beherako haurrek heldu batekin joan behar dute.

Puntuz berdinduta Igoa eta Agirre, bigarren eta hirugarren postuan

Bertsolari Txapelketako azken final laurdena domekan jokatu da, eta Martin Abarrategi igoko da oholtzara

I.A.A. ARAMAIO

Arabako Bertsolari Txapelketako bigarren final laurdena jokatu zen domekan Oionen, eta bigarren eta hirugarren postuan 259,5 punturekin berdindu zuten Xabi Igoa eta Manex Agirre aramaioarrek. Aroa Arrizubieta gasteiztarrek eskuratu zituen puntu gehien (261,5) eta finalerdietarako zuzenean sailkatu zen.

Azken final laurdena otsailaren 11n jokatu da, Laudion, Kasinoan, 17:30ean hasita, eta han arituko da Martin Abarrategi: "Gogotsu nago txapelketarako,

baita bertso-saioan ahalik eta onena emateko ere". Txapelketa nolakoa izango den aurreikustea "zaila" dela dio, baina horrek emango diola "halako emozio puntu bat eta erakargarritasun apur bat".

Abarrategi izango da aramaioar bakarra oholtzan: "Aramaioarrekin abestu nahi badut, fasez pasatu beharko dut". Horretarako ordea, beharrezko puntuak eskuratu beharko ditu Asier Otamendi, Felipe Zelaieta, Izar Mendiguren, Iñaki Viñaspre eta Unai Andaren aurka.

NIRE USTEZ

OIHANA AMESKUA

Iritziak iritzi

Nire ustez du izena GOIENA aldizkariko leiho honek. Izenak iradokitzen du espazio honen izana; hitz gutxitan, mila karakterek hartzen duten luzeran, iritzia emateko tartea da honako hau. Erraz eta arin egiten dute hori askok; iritzia ematea, alegia, Niri, ordea, kosta egiten zait. Sentimendu anakroniko samarra pizten zait horretaz eta hartaz nire usteak plazaratzean. Sare sozial digitaletan, lagunarteko elkarrizketetan edota familia bazkarietan, iritzi emaille konpultsibo bilakatzen gara... Eta halere, erreparatu puntu bat ematen du hori bera modu kontzientean egiteak.

Greziarrentzat iritzia *doxa* zen, maila eskaseko ezagutza. Platonen arabera, haitzuloan gatibu direnek hormako itzalak baino ez dituzte ikusten eta hura errealitate bakarria dela uste dute. Iluntasunean erdi itsu dabilena *doxa*-n oinarritzen du bere munduko ezagutza. *Doxa* eta *dogma* gertu dauden hitzak dira. Lehenengoa bigarrena bilakatu ez dadin, iritzia ematea haitzulo barruko itzalak harrapatzeko eta ulertzen saiatzeko jolasa baino ez dela gogoraziko diot neure buruari.

OHARRAK

Korrikako arropa-salmenta

Gaur, 16:30etik 18:00etara Korrikako arropa-postua jarriko dute kultur etxeko sarreran, eta 18:00etatik aurrera erretiratuen elkarte aurrean; eurria bada, elkarte barruan jarriko dute.

Korrika batzordea egunean

Hirugarren bilera egingo dute, 19:00etan, KZgune ondoko gelan.

Dirulaguntza eskaera

Mugitzeko arazoak dituzten pertsonak taxia garraibide alternatibo modura erabiltzeko laguntzen urteko deialdia kaleratu dute. Eskaerak aurkezteko azken eguna urriaren 31 da. Informazioa, Udalaren webgunean.



Txapel Txin eta Kaparrak taldea oholatza gainean. MIRARI ALTUBE

Festak eztanda egiteko zain daude herritarrak

Gaur bertan hasita herria Aratusteetan murgilduko da, datorren martitzenera bitartean. Egun handia domekakoa izango da, non, eguraldiari aurre eginez, irudimena, umorea eta koloreak ez diren faltako herriko kaleetan barrena

Iñigo Barrena ARETXABALETAKO

Etzi, sormenaren eta irudimenearen erdigune bilakatuko dira, beste behin, herriko kaleak. Aratusteak, ordea, gaur hasiko dira, arratsalderako kiroldegian Leizarra musika eskolakoek antolatu duten emanaldiarekin. Motorrak bertzeko balioko du, domekan festak eztanda egin aurretik.

Eguraldi iragarpenak ez dira aldekoak, momentuz, baina Udaleko Kultura zinegotzi Ibai Zangituk aitortu duenez, euriarekin ere "aurrera" egingo dute aurreikusita duten egitarau osoarekin. Era berean, azken orduko aldaketarik "ez" dagoela adierazi du.

Atzerako kontaketa

Eguraldi txarrarekin bada ere, izango dute non gozatu. Goizeko txistularien dianak paso emango dio ondoren egingo den txino dantzari. Horiek amaitu bezain pronto hasiko da kuadrillen desfilea. Zangituren hitzetan, eta esan du, barrez, batzuk "larri" ibiliko direla domekara begira. Larritasunak larritasun, desfile koloretsua izango da, eta musika ere jarriko dio Gesaltza txarangak bazkalordura arte. Kiroldegian zein pilotalekuan egingo dituzten bazkarietan hartuko dituzte indarrak, arratsaldeko kalejira, DJ eta mozo-rra lehiaketaren sari banaketari begira. Eguna Santa Ageda

neska-mutilen dantzarrekin borobilduko da.

Gune morea Mitarten

Indarkeria matxistarik gabeko aratusteen alde, gune morea izango da, domekan, Mitarte kalean, 18:00etatik 22:00ak arte.

Martitzenean, txikienean txanda

Goizean Irulitxa txarangarekin kalejira egingo dute eskolako umeek; eguraldi txarra bada, Haur Hezkuntzakoak frontoira joango dira eta Lehen Hezkuntzakoak, berriz, kiroldegira. Arratsaldean buruhandiak eta kalejira izango dituzte; azkenik, Txinen hiletarekin Aratusteei agur esango diete.

Egitaraua

Hemen, gaurtik hasi eta domekara bitarteko egitaraua:

Egubakoitza, otsailak 9

- **18:00** Egubakoitz Argal jaia, Leizarra musika eskolako antolatuta.

Domeka, otsailak 11

- **10:00** Diana, Aretxabaletako txistulari taldearekin.
- **11:45** Txino dantza Santa Ageda neska-mutilen eskutik.
- **12:00** Kuadrillen desfilea.
- **13:00** Kalejira Gesaltza txarangarekin.
- **14:30** Herri bazkaria Ibarra kiroldegian, J&J DJak girotuta.
- **15:00** Bazkari *golfoa* Iturrigorri pilotalekuan.
- **17:30** Kalejira Gesaltza txarangarekin.
- **18:00** DJ Mikeltxi Herriko Plazan.
- **18:45** Mozorro lehiaketaren sari banaketa ekitaldia Herriko Plazan.
- **19:00** Santa Ageda neska-mutilen dantza saioa.
- **Ostean**, DJ Mikeltxi Herriko Plazan.

Martitzena, otsailak 13

- **11:00** Kalejira Irulitxa txarangarekin.
- **18:00** Buruhandien kalejira Irulitxa txarangarekin.
- **20:00** Txinen hileta.



NIRE USTEZ

PALOMA MARTINEZ PEREZ

Ikasteko aukerarik ez?

43 urteko emakume migratua naiz, amatasunean eta boluntario lanean hamabost urtez aritu dena. Orain, goi mailako modulu bat ikasten ari naiz. Ikasturtearen hasieran jakinarazi ziguten praktikengatik Gizarte Segurantzaren kotizatuko dugula. Oso berri ona da! Bereziki, nire profila duen emakume batentzat. Baina zer gertatzen da paperik gabeko pertsonekin?

Orain arte, Lanbideko prestakuntza pertsona guztientzako aukera izan da, izena emateko eskatzen zen baldintza bakarra erroldatzea baitzen. Adibidez, adineko pertsonen zaintzako ziurtagiri profesionala ikasten duten asko "egoera irregularrean" dauden pertsonak dira; gehienak, emakumeak. Aldaketa honekin ez dute ikasteko aukerarik? Zer erantzun emango dio egoera honi Lanbidek?

Argi dago mundu kapitalista honetan "legezkoak" garenek eskubideak lortzen jarraitzen dugun bitartean, "legez kanpo" dauden pertsonak, aldiz, berdin jarraitzen dutela: diru beltzean gure nagusiak zaintzen, kopak zerbitzatzeko eta paketeak banatzen ekonomiari aportatzen diote, soldata eskasak truke.

INPLANTOLOGIAKO ESPEZIALISTAK 3D TEKNOLOGIA BERRIENAREKIN

DURANA HORTZ KLINIKAN BERRIKUNTZAREN ALDEKO APUSTUA EGITEN DUGU.

DURANA KALEA 22 • ARETXABALETAKO • TEL.: 943 79 93 55

Txoko feminista sortzeko prozesua abiatzear da

Emakumeen ahalduntzea bideratuko duen gunea izatea da asmoa, eta, hori zehazteko, otsailean hasi eta ekainera arte iraungo duen Tril izeneko lanketari ekingo diote, Udalak deituta; izena emateko epea zabalik dago, hilaren 22a arte

Mirari Altube ARETXABALETAKO

Emakumeen ahalduntzerako txoko feminista bat sortzeko prozesua abian jarri gura du Aretxabaletako Udalak. Hain zuzen ere, herritarrekin batera egin gura du lanketa hori, otsailean hasi eta ekainera bitartean –zapatuetan, 09:00etatik 13:00etara–, eta, horretarako, alde aurretik eman behar da izena, honako galdetegi hau beteta: <https://labur.eus/4qopn>. Azken eguna otsailaren 22a da. Argibideak gura izanez gero, Udaleko Berdintasun Sailera jo daiteke: berdintasuna@aretxabaleta.eus.

2015etik datorren eskaera

Txoko feminista baten proposamena 2015ean egin zuten lehenengoz; orduan, Erdu emakume elkarteak deituta 80 emakume inguru elkartu ziren Arkupen. Ordutik hona, ia bederatzi urte pasatu dira, eta orain, aurrerapausoak emateko ordua dela iritzita, Udala gertu dago "proiektua bultzatzeko", gune hori bideratu arte. "Horregatik, gardentasunez, txokoa ireki bitarteko pausoak herriko emakume eta feministekin batera eskuz esku eman nahi ditugu", adierazi dute Berdintasun Sailetik.

Miriam Mendozaren ipuin kontaketa hilaren 21ean

Udal liburutegiak ipuin kontalarrien saioak antolatzen jarraitzen du hilabetean behin, eta oraingoan, Miriam Mendozaren gonbidatu du. 5 eta 8 urte bitarteko neska-mutikoendako saioa egingo du otsailaren 21ean, 18:00etan. 30 lagunentzat dute lekua eta izena alde aurretik eman behar da, liburutegian bertan.

Lau lan-saio, zapatuetan

Lau saio izango dituen lanketa bat egingo dela iragarri dute; Tril izena jarri diote prozesu horri, Aretxabaletako lehen emakume taldearen omenez. Lehenengo saioa otsailaren 24an egingo dute, eta talde sustatzailerak sortu eta egitasmoa definitzen hasiko dira. Bigarrena, martxoaren 23koa, herri mailan ezagutzera emateko eta lokala egokitzeko saioa izango da. Hirugarrenean, apirilaren 27koan, txokoaren antolaketa eta kudeaketa nola egin zehaztuko dute. Eta laugarrenean, maiatzaren 25ean, proiektuaren gaineko lanketa egingo dute, "lagunartean zabalduz".

Eztabaida-prozesua izanik izen-ematea saio guztietarako izango dela iragarri dute antolatzaileek. Eta gaineratu dute fase bakoitzaren emaitzak publikoak izango direla eta Udalaren webgunean emango dute la prozesuaren berri.

Martxoaren 8a prestatzen

Bestetik, gaur, egubakoitza, Martxoaren 8aren bueltako lanketa egiten hasiko dira. Atxabaletako Mugimendu Feministak deitutako batzarra, ez-mistoa, 18:00etan izango da, udaletxe zaharrean.



Iazko Martxoaren 8an egindako Manifestazioaren une bat. MIRARI ALTUBE

ARATUSTEAK

Aretxabaleta 2024

INDARKERIA MATXISTARIK GABEKO ARATUSTEEN ALDE!

GUNE MOREA

Otsailaren 11n, Mitarten 18:00-22:00

INDARKERIA MATXISTA KASUETARAKO ARRETA TELEFONOA: 900 84 01 11

(24 ordu). Etxeko indarkeriaren edo sexu-erasoen biktima izan diren emakumeentzako informazio eta arreta-zerbitzua. SATEVI.

ARETXABALETAN EZ DA INOLAKO ERASORIK ONARTUKO!

Mobiliario
ARENAZA

**ALTZARIAK
DISEINUA
APAINKETA**

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETAKO

Elkarteen arteko sarea sendotzen

Aretxabaleta girotzen jarrai dezaten, eragileen arteko harremanak estutu gura ditu Udalak, baita baliabideak eskuratzeko erraztasunak eman eta agenda bateratua sortu ere

Mirari Altube ARETXABALETA

Herriko elkarteetako ordezkariekin eta beste hainbat eragilerekin bilera egin zuten udal ordezkariak iazko urrian. Ibai Zangitu Kultura zinegotziak eta Nerea Zubillaga Ongizate zinegotziak Aretxabaletako ia 60 elkarte gonbidatu zituzten batzar hartara, eta 40 lagunetik gora batu ziren Arkupen. "Eskatu genien ahalegin berezia egin zezatela agertzeko, esku artean dugun ekimena garrantzitsua delako guztiontzat, eta oso pozik gaude jaso genuen

erantzunarekin", adierazi du Zubillagak.

Han elkartu ziren, esaterako, gizartegintzan diharduten Aratz, Gu Haziak Gara, Caritas, Basotxo eta Atxabalata Lagunkoia; kultura arloan lan egiten duten Kuartela, Lekaixoka, Debagoieneko Antzerki Plataforma eta txistulariak, besteak beste; kirolaren bueltan dabiltzan UDA, Arlutz xake taldea eta Dorleta-ko Ama txirrindulari elkarteak; gobernuz kanpoko erakunde diren Yaakar eta Hiruatx; gastronomia elkarteak eta auzoe-

tako jai batzordeak; baita ikas-tetxeak eta guraso elkarteak ere.

Harremanak "estutzea"

Aretxabaleta oso herri bizia dela uste dute udal ordezkariak: "Eta hori da, hein handi batean, askotariko elkarteak ditugulako, eragile horiek oso inplikaturik daudelako herrian eta ekintza asko antolatzen dituztelako". Era berean, uste dute ez dagoela eragileen arteko behar beste harremanik: "Hori ikusten da, adibidez, agenda bat planifikatzeko orduan: egun batzuetan



Aratz elkarteko kideak kalea batukada doinuekin girotzen, iazko urrian. MIRARI ALTUBE

ez dago ezer eta hurrengoan bost batera". Gainera, aurretik herri-gintzan jardundakoak izateak lagundu egin dezakeela uste du Zubillagak: "Gu, orain udal jardunean gauden gehienok, beste aldean ere egon izan garenez, uste dugu Udalak erraztu egin

**UDALAK DITUEN
LOKALEN GAINKO
AZTERKETA BAT EGIN
GURA DA, ERABILERA
EZAGUTZEKO**

ditzakeela hainbat kontu, baita baliabideak eskura jarri ere". Eta horretan lehen pausoak emateari ekin diote.

Agenda bateratua

Hainbat lan-ildo zehaztu zituzten, eta horiek garatzen joan gura dute orain. Batetik, herriko eragileen zerrenda bat osatzea adostu zuten, erreferentziatzeko pertsona bat izendatuta, eta hori guztiakin partekatzea, sare bat osatzeko.

Bestetik, Udalak dituen lokalen gaineko azterketa egin gura



*ondo
pasan!!*



**ara
tuste
ak**






EGUZKIGRAF
inprimategia



Aretxabaletako Industrialdea F-0-4
Araba ibilbidea
20550 Aretxabaleta
Tfnoa: 943 791 844
E-mail: info@eguzkigraf.com

Zer deritzozu ekimenari?




AIORA PADILLA
HIRUATX ELKARTEA

"Eragileen arteko sare bat osatzea positiboa da, sinergiak sortzeko, batik bat, eta herrira begira ere ekimen interesgarriak sortu daitezkeelako. Gure beharrik handiena da ekintzak antolatzeko jendea eta denbora, bai sentsibilizazio arloan, bai elkartzun proiektuetarako dirua batze aldera".




JOKIN ANTIXIA
ARATZ ELKARTEA

"Alde onak ditu: taldeak ezagutu, agenda koordinatua izan eta beharrak zerrendatu. Guretako interesgarriena da agenda koordinatua izatea. Gure beharrak beste batzuk dira; gu saiatzen gara kultura bitartez ongizate soziala lortzen desgaitasun intelektuala duten pertsonengan; gutxi asko da".



MAIDER SARRIEGI
DORLETAKO AMA TXIRRINDULARI ELK.

"Elkartzeak sinergiak aurkitzea errazten du, eta baliabideak elkarbanatzea ere bai. Gure kasuan, onuragarria izango da klubak herrian eduki ditzakeen beharrak nola konpondu edo koordinatu jakiteko. Estruktura txikiko taldea izanik, laguntza instituzionala beharrezkoa dugu edozer antolatzeko".



UNAI BENGOA
LEKAIXOKA BERTSO ESKOLA

"Elkarlana beti da aberasgarria. Are eta interesgarriago egiten duena da Udaletik baina, aldi berean, herrigintzan ibili diren bi pertsonarengandik etortzea deialdia; sinesgarritasun handiagoa ematen dio. Guk ez dugu behar berezirik; lxoturekin eta Loramendirekin bagabiltza ekintzak antolatzen".

koan edo dirulaguntzak eskatzeko orduan zailtasunak agertu zituzten zenbaitek, ez dutelako jakintzarik edo denborarik; horiek errazteko pertsona bat jartzea aipatu zen".

Hirugarrenik, espazio egonkor baten beharra aztertzeotan geratu ziren: "Hiru hilabetean behin elkartzeko, esaterako. Hori harremanak estutzeko lagungarri izan daiteke, eta, horren osagarri, Whatsapp talde bat sortu; hori, baina, erabat zehaztu barik geratu zen".

Bukatzeko, agenda bateratua sortzea dago, eta hori aztertzen hasita dago Udalak: "Barrura begira, elkarleen eta Udalaren arteko kudeaketarako, behintzat, sortuko dugu, gutxienezko antolaketa bat egon dadin geure artean. Eta gero, aztertu beharko da agenda hori zelan erakutsi herritarrei". Lehen bileran onartu zuten Arkupeko sarreraren alboan dagoen gunean Udalaren eskaintzaz gain herriko eragileen agenden berri ematea.

Horiek guztiak eta kontu gehiago lantzeko eta adosteko otsailean beste bilera bat deituko dutela adierazi du Zubillagak.

dute, horien erabilera ezagutzeko: "Gero eta eragile gehiago daude herrian, batzuk aktiboagoak eta beste batzuk sasoi baten aktibo izandakoak baina orain ez. Horregatik, jaso gura dugu bakoitzak zertarako eta

noiz erabiltzen duen, eta hala banaketa egokiagoa egin", argitu du Zubillagak, eta gaineratu: "Lokal horretan sortzen diren beste kontu batzuk ere ezagutu gura ditugu; gastuak, esaterako". Lokalez gain, Udalak beste ba-

liabide batzuk ere baditu, eta horiek ere eragileen esku uzteko gertu dago. Gainera, eragileek eurek ere daukaten materiala partekatze gogoia adierazi zuten: "Oso proposamen polita sortu zen haien aldetik: euren

esku dituzten baliabideen inventario antzeko bat egin eta horiek eskatzeko eta uzteko sare bat sortzea".

Batzar hartan beste behar batzuk ere jarri zituzten mahai gainean: "Hitzarmenak egitera-

BiHOTZEZ ikasi

KURTZEBARRI ESKOLA haur eta lehen hezkuntza (2-12 urte)

HITZORDUA ESKATZEKO DEITU: 943 89 91 46
zuzendaritza@kurtzebarri.eus

MATRIKULAZIO EPEA
Otsailaren 7tik 23ra

ZATOK GU EZAGUTZERA!

goieskola
baikara
KURTZEBARRI ESKOLA

Gorosarriri gorazarre, pieza dantza bihurtuz

Eduardo Gorosarri konpositore eskoriatzarraren 'Nasteborraste' piezarekin dantza bat sortu dute, eta Aratusteetako martitzenean aurkeztuko dute herritarren aurrean dantza taldeko kideek eta propio dantza horretarako animatu direnek, 19:00etan

Imanol Beloki Unamuno ESKORIATZA Eskoriatzako Udalak Aratusteetako martitzena euskal kutsukoa izatea nahi duela-eta, *Nasteborraste* dantza sortu dute. Horren baitan, besteak beste, Eskoriatzako Eduardo Gorosarri konpositoreak sortutako musika piezari izen bereko dantza egin diote. Dantza sortzearen proposamena Beheko Errota musika eskola dantza taldeko irakasleak berak egin zuela dio. "Batez ere, hemengo janzkera edo dantzen gainean galdetzen nuen, eta, zerbait bertakoa sortzeko bide horretan, dantza egitea pentsatu nuen", dio Idoia Lahidalgak, Beheko Errota musika eskola dantza taldeko irakasleak.




Nasteborraste dantza ikasten izan diren dantzarietako batzuk. TXOMIN MADINA

Txistulariek aukeratutako pieza Musika aukeraketa izan zen lehenengo urratsa, eta, gero, musikari dantza ezarri diote. "Txistulariei eman genien egin nahi genuenaren berri, eta beiraiek pieza aukeratu ostean hasi ginen dantza sortzen. Abesti hori ez zegoen sortuta dantza-zeko ideiarekin, hala adierazi ziguten txistulariek, baina, dantzarako alai eta dibertigarria izan zitekeen kanta eskatuta eta aukeratuta, dantza ere horrelakoa sortu dugu. Hasiera batean Aratusteetako martitzenean

dantza egiteko helburuarekin sortu dugun arren, edozein unetan dantza egiteko modukoa dela esango nuke", dio Lahidalgak.

50 lagunek dantzatuko dute

Beheko Errota musika eskola dantza taldeko kideek gustura jardun dute ikaste-prozesuan, eta, dantza taldeko kideez gain, dantza egitea gustuko duen zenbait eskoriatzarrek ere parte hartu dute saioretako ikastaroetan, ikaste prozesuan. Hala, otsailaren 13an, Aratusteetako martitzenean, dantza taldeak



Piezaren partitura. ESKORIATZAKO UDALA

36 lagun batuko dira, eta dantza egin nahi zuten beste hamazortzi eskoriatzar.

Jantziei dagokienez, Aratusteetatik kanpo egin daitekeen dantza dela kontuan izanda baina Aratusteetan estreinatuko denez, kukumarro jantzita egingo dute. "Arropak ez du eraginik dantzan. Garrantzitsuagoa izango da dantza ondo egitea, dantzariak gozatzea, eta talde osoak nola erantzungo duen jakiteko gogoz nago", dio Lahidalgak.

Euskal Aratusteak, egun osoz

Miren Diaz de Gereñu eta Mainer Otamendi eskoriatzarrak dira dantza taldean ez egon arren *Nasteborraste* dantza ikasten izan diren bi parte-hartzaile. "Lehenengo entseguaren ostean, tutorial batzuk bidali zizkigun irakasleak etxean praktikatzeko, eta, bigarren entsegua eginda, ari gara... Hutsetik dantza bat ikastea oso polita da, eta Eskoriatzan sekula ez dugu izan bertako dantza bat. Ideia horrek ilusio berezia egiten du", dio Otamendik. Diaz de Gereñuk gaineratu duenez, "Gorosarriren pieza hori berreskuratzeko modu bat da, eta Idoiak egin duena da berreskuratzeko horrekin dantza bat sortzea. Gero, errotzea izango da helburua...".

Haurren dantzak kiroldegian

Aurten, Aratusteetako martitzenean, Luis Ezeiza eta Arizmendiko ikasleak kalejiran abiatuko dira Manuel Muñoz kiroldegira, eta han, 11:00etan, ohiko ekitaldia egingo dute. Jaialdia Manuel Muñoz kiroldegian izango da, eta haiek ere euskal Aratusteak ardatz egingo dute aurtengo ekitaldia. Ikasleak kantxan egongo dira eta familiakoak eta ikusleak, harmailetan.

Zortziko bat da dantza berria



IDOIA LAHIDALGA
DANTZA
IRAKASLEA

Nasteborraste dantzak hiru minutu irauten du, eta ezaugarrietako bat da ez dela abesti bat hasi eta bukatu berdin egiten dena. Hau da, ez da dantza homogeneoa. Zati ezberdinak ditu, zortziko bat da; zortzikoaren tempo antzekoan doa, balsa du, eta baita kalejira ere. Entzuten dugunaren arabera, modu batera edo bestera dantzatuko dugu, eta dantzari horrek dinamismo puntu bat ematen dio. Hala ere, adi egon behar duzu une bakoitzean zein dantza egin behar duzun jakiteko; kontzentrazioa ezinbestekoa da. Hala ere, dantzaren blokeak nahiko markatuta daude, eta ez da dena jarraian egiten. Emaizta polita dela esango nuke, eta dantza emakumeentzat zein gizonezkoentzat dela adierazi nahi dugu.

50 DANTZARIK ESTREINATUKO DUTE 'NASTEBORRASTE' DANTZA BERRIA, PLAZAN

EDORTA ZUBIZARRETA

ESKORIATZAKO ALKATEA

GOIENA TELEBISTA, 'HARIRA'

OTSAILAREN 16AN, EGUBAKOITZA, 18:20, 20:20 ETA 22:20

BIDALI ZUK ERE GALDERA:

berriak@goiena.eus 688 69 00 07

EPEMUGA: OTSAILAK 12, ASTELEHENA



DESKARGATU
GOIENA
APLIKAZIOA

goiena
Zu hemen zaude.





Aresko Saskibalo Eskolako kideak Aresko martxako kartel eta kamisetekin, Manuel Muñozeko aurkezpenean. JOKIN BEREZIARTUA

Zabaldute Aresko martxarako izen-ematea

Aresko martxaren seigarren aldia martxoaren 10ean izango da; aurten ere, Aretxabaletan hasi eta Eskoriatzan amaituko da. Dagoeneko eman daiteke izena, Aretxabaletako Ibarra kiroldegian edo Eskoriatzako Manuel Muñoz kiroldegian

Imanol Beloki Unamuno **ESKORIATZA**
Aresko Emakumeen Martxaren eguna zehaztu dute Eskoriatza Kirol Elkarteko eta UDAko kideek. Seigarren edizioa izango da aurtengoa eta martxoaren 10ean egingo dute, eguerdiko hamabietan iritenda. Aurten ere *Emakumeok bidea eraikiz* lelopean egingo dute oinezko martxa berezia, eta Aretxabaletatik Eskoriatzarako bidea egin behar da, iaz bezala.

Horrekin batera, ohitura dutenez, bi emakume omenduko dituzte: lehena Aretxabaletan martxa irten aurretik eta bigarrena Eskoriatzan, martxa amaitzen denean. Omenduak nortzuk izango diren, bestalde, aurrera-

go jakinaraziko dute; izan ere, oraingoz, izena emateko aukera otsailaren 14ra arte dagoela jakinaraztea izan da euren lehen-tasuna. Hala ere, laster jakinaraziko dute nortzuk diren omendia jasoko dutenak.

Aresko martxako kamisetak

Aresko martxako edizio guztietan atera dituzte antolatzaileek kamisetak, eta aurten ere berriak atera dituzte. "Eskoriatzako eta Aretxabaletako kiroldegietan eman behar da Aresko martxarako izena, eta kamiseta berriak ere salgai izango dira haietan. Izena ematearekin batera, kamiseta nahi dutenek neurria zehaztu beharko dute, martxoaren

10ean jaso dezaten eta oinezko martxa kamiseta soinean dutela egin dezaten. Hori da asmoa...", adierazi du Izar Gomezek, Aresko martxako antolakuntzako kideak.

Aurreikuspen positiboa

Gomezek martitzenean Eskoriatzako Manuel Muñoz kiroldegian egindako agerraldian iragarri zuenez, aurtengo edizioa ere jendetsua izatea nahi dute, eta, bide batez, herritarrek animatu nahi dituzte egitasmoan parte hartzera. Zehaztu duenez, aurreko bost edizioek zapore gozoa utzi dute antolakuntzan, eta aurtengoa ere halakoa izatea espero dute.

Astebururako, bandaren kontzertua eta Aratuste-zapatua

Eguenean Urdelardero Eguna ospatuta, gaur, egubakoitza, musika bandaren kontzertua izango da, 20:00etan, Zaldibar antzokian. *Zinemaren festa* izenpean, pelikuletako piezak eskainiko dituzte herriko musikariek.

Aratuste-zapatuan, berriz, Ad Libitium txaranga hasiko da kaleak alaitzen, eta baita trikitilariak ere. Gero, 13:00etan,

mozorro desfile-lehiaketa egingo dute, eta parte hartu nahi dutenek desfilea hasi aurretik Luis Ezeizaren patiora joan beharko dute. Ondoren, herri bazkaria egingo dute kiroldegian, eta txartel guztiak agortuta daudela jakinarazi du Eskoriatzako Udalak. Amaitzean, 16:00etan, DJ Moto egongo da bazkalostea girotzen, eta 18:15ean, mozorro lehiaketako sari banaketa egingo dute plazan. Eguna borobiltzeko, Laket taldea izango da 18:30etik 21:15ak arte plazan.

Domekan dantzak egingo dituzte Santa Ageda neska-mutilek

2006an jaiotako eskoriatzarrek dantza egin zuten astelehenean, Santa Ageda egunean, Fernando Eskoriatza plazan. Beteta izan zen plaza kintoen dantzak ikusteko, eta Eskoriatzako txistulariek lagunduta ederto egin zuten dantza 33 lagunek. Domeka honetan berriro eta azkenengoz egingo dute, 19:00etan, leku berean.

Herri kirolean lehiatu ostean, elkarrekin bapo bazkaltzera

Aratuste-zapatuko herri bazkariko aurtengo menua Ina Esnal gatzagarrak egindako baba-jana izango da

Imanol Beloki Unamuno GATZAGA

Leintz Gatzagako Udalak eta Gurel Guraso Elkartek elkarlanean antolatuta, Aratustean zapatuan ospatuko dituzte Leintz Gatzagan, eta, horretarako, egun osoko egitaraua prestatu dute.

Jaiak hasteko, 12:00etarako egin dute lehenengo hitzordua. Hala, San Migel plazan batuko dira eta herri kirol lehiaketa egingo dute. Gatzagarrak izango dira parte hartuko dutenak, eta, prestatutakoaren artean, askotariko probak gainditu beharko dituzte parte-hartzaileek. Jokoak girotzeko eta gosea egiteko sagardo-kupela jarriko dutela jakinarazi du Leintz Gatzagako Udalak.

Pintxo lehiaketa eta baba-jana

Horrekin batera, pintxo lehiaketa ere egingo dute, eta parte hartu nahi duten herritarrek pintxoak eraman beharko dituz-

te plazara 12:00etarako. 13:30ean, berriz, Ixi Salaberrik eta Ina Esnalek osatutako epaimahaia erabakiko du irabazlea. Gurel Guraso Elkarteko kideek herritarrek animatu nahi dituzte pintxoak egin eta lehiaketan parte hartzera. Hala, zenbait pintxo egoten badira, lehia ere handiagoa izateko asmoz. Herri bazkaria, berriz, 14:30ean izango da, eta pintxo lehiaketan epaimahai gisa arituko den Ina Esnal gatzagarra izango da baba-jana prestatuko duen sukaldaria.

Musikarekin amaitu

Eguna amaitzeko, eta bazkaria arintzeko, 17:00etan, musikarekin animatutako arratsalde-pasa egingo dute. Hasiera batean asmoa musika plazan jartzea da, baina, eguraldi iragarpena ez denez oso ona, frontoian edo elkartean jarriko dute.



Iaz, Aratuste-zapatuan, zenbait herritarrek ateratako talde argazkia. AITOR AGIRIANO

Argindarra banatzeko sarean konponketak egin dituzte asteen

Leintz Gatzagan energia elektrikoa banatzeaz arduratzen den Leintzargi enpresakoei jakinarazi dutenez, Iberdrolak argindarra banatzeko sarea hobetzeko eta handitzeko lanak direla-eta hornidura elektrikoaren mozketak programatuta egin zuten eguazten goizean. Tarte batez argia moztu arren, lanak amaitu zituzten.

Korrika herritik pasaz zeneko erretratuak batu gura dituzte

Leintz Gatzagako Korrika batzordea eratu zuten, eta dagoeneko hasiak dira ekintzak zehazten lan-bileretan. Horietako bat da herritarrek Korrikan parte hartzera animatzea, eta, horretarako, Korrikako edizio guztietan herrigunetik Korrika pasatu deneko argazkiak batzen ari dira, gero ikus-entzunezko musikatuta osatzeko.

"Etxeko zaintzaileentzako araudia bidegabea da"

IRATI AIZPURUA ALKEZAR ABOKATUA

Etxeko zaintzaileentzako eta haien kontratzaileentzako zerbitzu berriaren gidaria da abokatu donostiarra: "Ezin gara zaintzaz aritu etxeko langileen egoeraz berba egin gabe"

Jokin Bereziartua Lizarazu BERGARA Abokatu moduan "ikuspegi feministik" egiten du lan Irati Aizpurua Alkezarrek (Donostia, 1987). Etxeko langileei begira Udalak martxan jarri duen zerbitzu juridiko berria gidatzen dihardu, Ehunduren bulegotik. **Zein da gidatzen ari zaren Udalaren zerbitzu berriaren helburua?**

Udalak aholkularitza juridiko zerbitzu berritzailea jarri zuen martxan 2023ko azaroan, garatu nahi duten Berdintasun Planari lotuta. Zerbitzu hori etxeko langileei eta euren enplegatzaileei dago zuzenduta. Izan ere, etxeko langileek erregimen berezia dute Gizarte Segurantzaren eta lan-erregimena antolatzeke araudi berezia dago; eta araudi horren inguruan egon daitezkeen zantzak argitzeko, zerbitzu juridiko hori eskaintzea erabaki zuten. Beste herri batzuetan badaude halako zerbitzuak; gehienak, Emakumeen Etxeetatik bideratuak. Bergarako Udalak, baina, apustu garbia egin du.

Behin martxan jarrita, nola doa?

Oso harrera ona izan du, etxeko langileen erregimenaren inguruan beti egon ohi dira eta zantzak, eta horiek argitzeko kontsulta juridiko bat eskura eta doan izatea eskertzeko da herritarrentzat. Hala ere, hitzordua eskatzeko argi adierazi nahi dut edonor etor daitekeela galdarak egitera; ohartu gara mugak daudela hitzordua eskatzeko.

Zein da etxeko zaintzaileen egoera? Ze hutsune bete nahi duzue?

Etxeko langileen auziaren irakurketa ikuspegi feministatik egin beharra dago, langileen gehiengo emakumea delako eta askotan zaintza-lana delako, historikoki emakumei lotutakoa. Araudi berezi bat aplikatzen zaie, eta, zoritxarrez, erregimen hori sortu zenean gainerako langileek baino eskubide eta babes gutxiago zuten langile haiek. Egoera hori bidegabea dela diote hain-



Irati Aizpurua Alkezar, Ehundu bulegoaren atarian, eguztuzten. JOKIN BEREZIARTUA

"LAN BAKARTUA IZATEAK ZAILDU IZAN DU HAIEN ESKUBIDEAK MODU KOLEKTIBOAN DEFENDATzea"

batek, baita nik neuk ere, eta azken urtean aldaketa txiki batzuk egin dira legedian egoera hobetzeko; adibidez, 2022ko amaiera ezker, langabezia-sarirako kotizatzen dute. Zerbitzu horren helburua ez da bakarrik langileek euren eskubideei buruzko informazioa ematea; garrantzitsua da baita ere familiek informazioa jasotzea, kontratatzeke orduan, esaterako, haien lan-baldintzak betetzen ari diren jakin dezaten. **Nola hobetu daiteke, zure ezagutzatik, etxeko langileen egoera?**

Etxez etxeko lan horrek modu bakartuan egotera behartzen ditu hainbat emakume, eta, orain gutxira arte, horrek asko zailtzen zuen modu kolektiboan euren eskubideak defendatzea. Orain, aldiz, badaude elkarrekin euren baldintzei buruz hausnartzen dihardutenak; gainerako langileen baldintzen antzekoak lor-

tzeko bidean erreklamazioak egiten dira. Adibidez, langabezia-prestazioa izan dezaten lortu da. Askotan pasatzen zaie lan batzuk egiteko kontratatuak direla eta gero lan-zama asko handitzen zaiela. Era berean, barneko langile izateari uzteko aldarrikapena ere gero eta ozenago entzuten da; ia egun osoan zainduaren etxean egoten dira, eta, ordu guztiak lanordu ez izan arren, psikologikoki lotura handia dago. Horrek osasun mentalean ere eragin dezake.

Zaintza erdigunean jartzeko aldarria gero eta ozenago ari da entzuten...

Azken greba feministan etxeko langileen egoera presente egon zen, nahiz eta elkarrekin batzuk ez ziren ados azaldu. Ezin gara zaintzaz aritu etxeko langileez berba egin gabe, besteak beste, helduen zaintzaren arduraren parte handi bat eurek daramatelako. Hala ere, greba hartan ama guztien ahotsa ozenago aldarrikatu izana eta zaintza-lanetan duten papera argiago islatu izana eskertuko nukeen. Zaintzaren planteamendu integrala egiteko, lehenik, diagnostiko egokia beharko genuke. Eta, hortik hasita, hobekuntzei ekin.

Identifikatu dute 100 autotik gora kaltetu zituen pertsona

GOIENAK jakin duenez, identifikatu dute urtarrilaren 19tik 20rako gauean 100 autotik gora kaltetu zituen pertsona. Kalte-delitu egotziko diote eta atestatua amaitu ondoren instrukzio eta lehen auzialdiko epaitegian deklaratu beharko du. Udaltzaingoa harremanetan jarriko da kaltetuekin, kalte-ordainak nola eskatu azaltzeko.



Atzerako ispilua apurtuta. GOIENA

NIRE USTEZ

MIKEL GOENAGA

Ongi etorri, zahartzaroa

Zahartzaroa hitzak badu halako gutxiespen zentzua. Apur bat. Hirugarren adina esaten zaio baita. Baina gure bizitzako garaietako bat da. Ez dator ezustean. Denboraren poderioz baizik, ezinbestekoan. Gaztetan urrun ikusten genuena gero eta gertuago dago. Beste gauza bat da noiz onartzen edo sentitzen dugun zaharrak garela. Pasa den eguztuzten, Goienagusik antolatuta, hitzaldia izan zen Seminarixoan, hamabostean behin bezala. Goienagusi Debagoienean jarduten duen kultura elkarte da. Bazkideen batez besteko adina 70 urtekoa da; horietatik, 42 bergararrak. Hainbat jarduera antolatzen ditu urte osoan bailarako herrietan –astero bi hitzaldi, bisitak eta mendi irteerak hilerro, irteera kulturalak, ikastaroak...-. Bere xedea: zahartzate prozesu hobea eta luzeagoa izatea. Bergaran bada San Joxepe ere, erretiratuen elkarte, 1.700 bazkide baino gehiago dituena. Aukera zabala eskaintzen du: ikastaroak, tailerrak, bidaia, Kulturaldia. Badu bere abesbatza baita. Hau ere bada zaintza. Goienagusi eta San Joxepe moduko elkarrekin dauden bitartean, zaintzen gaituztenak, ongi etorri, zahartzaroa.

OHARRAK

Erramu-zapatua: postua jartzeko izen-ematea

Martxoaren 23an San Martin plazan, Ibargarain, Seminarioko patioan eta Simon Arrieta plazan egingo den erramu zapatuko azokan postua jartzeko izena eman daiteke www.bergara.eus-en, otsailaren 14ra arte.

Kartzela zaharreko irakurketa taldea

Otsailaren 15ean, 18:30ean, solasaldi kolektiboa egingo dute Mikel Antza idazlearekin, *Atzerri* liburuaren gainean.

ZinemaOn zineklubaren otsaileko eskaintza

Hilaren 14an, Win Wenders-en *Perfect days* filma ikusi ahaliko da; hilaren 21ean, Jonathan Glazer-en *The zone of interest*; eta hilaren 28an, Negu kolektiboaren *Negu hurbilak*. Azken film horretako zuzendarietako bat den Ekain Albite bertan egongo da. Pelikulak Seminarixoan ikusi ahaliko dira, 20:00etan; sarrera hiru euro da.

Kafe Konpon ekimena: hurrengo saioa

Otsailaren 14an elkartuko dira, San Joxepe erretiratu elkarrekin egoitzako bigarren solairuan (16:00). Dei egin diete herritarrei joan daitezten: "Etxeko tresnaren bat hondatuta duzula? Etor zaitez eta elkarrekin konponduko dugu!".

Emakume zientzialariei aitortza, bigarren urtez

Udalak eta Laboratorium museoak herriko ikastetxeei begira sortutako emakume zientzialarien bideo lehiaketa antolatu dute aurten ere, eta 26 ikaslek hartu dute parte; sari banaketa ekitaldia otsailaren 16an egingo dute, museoan, 12:00etan

Jokin Bereziartua Lizarazu BERGARA
Angeles Albariño, Hipatia Alejandria, Inge Lehmann, Lisa Randall, Mary Agnes Chase, Marie Curie, Mileva Maric, Ada Lovelace... Haiek eta beste hainbatek osatzen dute emakume zientzialarien zerrenda, historia egin eta urte luzez zegokien aitortzarik jaso ez dutenak. Hala, aurten ere herriko ikastetxeekin elkarlanean gogora ekarriko dituzte izen horietako batzuk Laboratorium museoan egingo duten sari banaketan.

Iazko ikasturteko esperientzia aberasgarriaren ostean, aurten ere antolatu dute LHko bosgarren eta seigarren mailetakako ikasleei



Iazko ekimeneko saridunak, Laboratorium museoan egindako ekitaldian. GOIENA

zuzendutako emakume zientzialarien gaineko bideo lehiaketa. Udalak aditzera eman du aurten behera egin duela parte hartzeak; aurten, 26 ikasle animatu dira bideoak aurkeztera, eta sari banaketa ekitaldia otsailaren 16an egingo dute, Laboratorium museoan, 12:00etan.

Iaz antolatu zuten lehen aldiz

Iazko sari banaketan Berdintasun zinegotzi Ainhoa Letek zioen "ekimen interesgarria" izan zela ikasleekin egindako lanketa: "Emakume zientzialarien inguruan egin izan ditugu bestelako lanketa batzuk, baina formatu honetan planteatu dugun lehen aldian izan da". Letek gaineratu zuen "oso gustura" zeudela ikasleekin artean lehiaketak izan zuen harrerarekin: "Interesgarria izango litzateke lehiaketa errepikatzea. Ondo dago lanketa hauek ikasleekin egitea, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunean aurrera egiteko. Izan ere, emakumeen lana ezkutuan geratu izan da askotan; ezagutzen ez den lana da, eta hori ikusgarri egiteko modu bat da ekimen hau".

Belaunaldi arteko kafe tertulia gaur Mariaren Lagundian

Mariaren Lagundiak eta Udalak elkarlanean antolatuta, adinekoen eta gazteen arteko belaunaldi arteko kafe tertulia egingo dute gaur, otsailak 9, 10:30etik 12:00etara. Ekimenaren helburua da belaunaldi arteko ikuspegitik interesgarriak diren gaien inguruan jardutea, "tarte atsegin bat pasatuz eta elkarrekin egoteko gune bat sortuz". Eta, gaurko esperientziaren ostean, beste foro batzuk antolatuko dituzte bertan ateratako gaietan sakontzeko, eta gai horietan oinarritutako irrati saioak ekoiztea ere badute aurreikusita. Lanbide Heziketako ikasleak 65 urtetik gorako bergararrekin elkartuz gero bi aldeendako ondorio onuragarriak lortuko direla uste dute antolatzaileek.

Ekimen hori dator iaz Udalak eta Mariaren Lagundiak abiatutako gizarte arloko lanketa batetik, Bergarako adinekoak erdigunean jarrita askotariko proiektuak martxan jarri nahi dituen.



AURREMATRIKULAZIOA
OTSAILAREN 7TIK 23RA



Mariaren Lagundia Ikastola
MARIAREN LAGUNDIA

Baso Eskola irekia

otsailak 18 → 10:30

Bisita personalizatuak

943 76 25 40



mariaren_lagundia_ikastola



Mariaren Lagundia Ikastola



Barrocal sakerako prest, iazko binakako txapelketako finalean. ADOS

Barrocal etxean, Adosen binakako txapelketan

Bergararrak bikote egingo du Naroa Agirrerekin, eta aurkari izango dituzte Arrieta eta Ruiz de Larramendi (domeka, 11:30); beste norgehiagokan, Ruiz de Infantek eta Galeano antzuolarrak jokatu dute gorriz eta Etxekoloneak eta Mendiburuk urdinez

Mireia Bikuña Madrid BERGARA

Ados pilota taldearen binakako txapelketak geldialdia egingo du domekan udal pilotalekuan –sarrera bost euro da–. 11:30ean hasiko den jaialdia bi partidu izango ditu, eta horietako batean etxeko pilotariak jokatu du, Maddi Barrocalek, Naroa Agirrerekin bikote eginez. "Etxean jokatzea gozamina da: familia, lagunak, ezagunak... Beste ukitu bat ematen dio partiduari. Baina, era berean, horiek ere badira urduri egoteko arrazoiak. Dena den, prest nago partiduari aurre egiteko. Harmailetara begiratu barik, pilotan jokatze-ko", esan du Barrocalek.

Arrieta eta Ruiz de Larramendi izango dituzte kontrario. Beste partidua Ruiz de Infantek eta Leire Galeano antzuolarrak eta Etxekoloneak eta Mendiburuk jokatu dute.

Txapela berrestera

Adosen txapelketak 58 partidu izango ditu, guztira, eta dome-

kakoa seigarrena izango da Barrocal-Agirre bikotearendako. Bostetik hiru irabazi dituzte, oraingoz. Laugarrenaren bila irtengo dira etzi. "Orain arteko partiduen antzera, hori ere zaila eta gogorra izango da. Badakigu nola jokatzen duten Arrietak eta Ruiz de Larramendik, eta guk geuk partidu serioa egin beharko dugu irabazi nahi badugu", azpimarratu du.

Pilotari bergararrak 18 urte ditu, baina badaki zer den txapelketa hori irabaztea: iazkoa irabazi zuen, Olatz Ruiz de Larramendiarekin bikote eginez. Oraingo hau ere begiz jota dauka: "Iaz, txapelketa biribila egin genuen Olatzek eta biok. Partidu guztiak irabazi genituen, eta

"ETXEAN JOKATZEA GOZAMENA DA, BAINA URDURI EGOTEKO ARRAZOA ERE BAI"

MADDI BARROCAL, PILOTARIA

maila bikaina erakutsi. Polita litzateke txapel hura berrestea. Ez da erraza izango, baina bidea luzea da oraindik".

Ados pilota elkarte

Eneritz Arrieta eta Maite Ruiz de Larramendi izango ditu kontrario Bergararako pilotariak. Atzeko koadroetan egongo da beasaindarra. 50 urte ditu eta dagoeneko esan du denboraldi bukaeran erretiroa hartuko duela. Bitartean, indartsu dihardu pilotan. "Gazteak indartsu datoz, baina oraindik ere disfrutatu egiten dut frontoian, eta gustura bukatu gurako nuke nire ibilbidea", esan dio GOIENARI. Domekarako gogotsu dago.

Bestalde, Ruiz de Larramendi bera izan zen Ados pilota elkarte sortu zuena, Iera Agirrerekin batera. "Egia esan, pozik gaude emakumezko pilotariak profesional izateko helburuarekin sortu genuen proiektuak hartu duen bidearekin. Pauso sendoak ematen gabiltza".



Hormaetxea eta Etxaniz partidua hasi aurretik, epailearekin. J. ARANBURU

Lau eta Erdikotik kanpo Ander Etxaniz, detaile txikiengatik

Hainbat alditan markagailuan aurretik egon arren, 20-22 galdu zuen Hormaetxeren kontra

M.B.M. BERGARA

Bigarren jardunaldian geratu da Soraluze Lau eta Erdiko Txapelketa etxeko ordezkari barik. Ander Etxanizek galdu egin zuen Oier Hormaetxeren kontra hilaren 6an: 20-22. Detaile txikiengatik galdu zuen. Hainbat alditan aurretik egon zen markagailuan. Are gehiago, 17-21 atzetik egonda ere, gai izan zen 20. tantora iristeko. 20-21ekoarekin, Hormaetxek itxi zuen partidua. "Urduri nengoen; beziki, etxekoan aurrean gauzak ondo egiteko gogoagatik. Horren adibide, jarraian, saketik egin-

dako bi faltak. 17nako berdinketarekin ere, normalean egiten ez ditudan hutsak egin nituen. Hilabete geldi egon ostean, egin-dako lanarekin gustura bukatu nuen, baina pena handiarekin ere bai", esan du Etxanizek.

Promes mailako partidua Etxeberriak irabazi zuen, 22-10, Sarasibarren kontra.

Hirugarren jardunaldia

Otsailaren 13an jokatu da hirugarren jardunaldia, 19:30ean: promes mailan Zabaleta-Labaka partidua, eta nagusien mailan Murua-Canaval.



GOIENA

Amateur mailako ikuskizuna

Gimnasia erritmikoko amateur mailako Gipuzkoako lehen fasea jokatu zuten aurreko zapatuan Labegarietan. Hamabost klubetako gimnastak aritu ziren tapiz gainean; tartean, Arrasate Dragoi eta Bergarako Ariznoa klubak. Uztaiak, pilotak eta zintak erabili zituzten koreografiak egiteko, taldeka eta banaka.

Dena gertu dago mozorro festari hasiera emateko

Gaurtik martitzenera bitartean askotariko ekintzak izango dira Inauteriak ospatzeko, eta gaur, esaterako, Bergarako Musika Bandak eta Orkestra Sinfonikoak Aratusteetako kontzertua emango dute; 'Goiena.eus'-en izango da ikusgai

Idoia Aranbarri Arzuaga BERGARA
Martitzeneko pella eta torrada ikastaroarekin eta atzoko sorgin dantzarekin sartu da Bergara Aratuste giroan, eta datozen egunetan emango die jarraipena Inauteriei (Ikus. 38. eta 39. orriak). Egitarauaren barruan, Bergarako Musika Bandak eta Orkestra Sinfonikoak urteroko kontzertu berezia eskainiko dute, 22:30ean hasita, Udal Pilotalekuan.

35. edizioan, *Bixamona Erdi Aroan* izenburupean arituko dira musikariak, eta Aritzeta abesbatza eta Debako Kulunka dantza taldea izango dira gonbidatuak, beste hainbat abeslari eta antzezlerekin batera; dena, 150 lagun inguru. "Ikuskizunean parte hartuko duten ia denak herrikoak dira, eta bolutarioki denak. Eskerrak eman nahi dizkiegu. Baita Bergarako Udalarari ere, haren ezinbesteko laguntzagatik", dio Enrike Txurruka zuzendariak.

Aurreratu du "beti bezala" kontzertuak bi zati izango dituela: lehenengoan, Musika Bandak hiru pieza motz interpretatuko ditu, eta horiek izango dira pieza herrikoia den *Ihauterietako dantzak; 1492, The conquest of paradise* filmeko doinu nagusia, Vangelis konpo-



lazo Aratuste kontzertuaren irudi bat. GOIENA

sitoreak sortutakoa; eta Frantziako Daft Punk Medley taldearen disko doinuena bilduma.

Bigarren zatiak izango du ikuskizunaren izenburuarekin lotura, eta Erdi Aroa bidaiatuko dute; hala ere, Txurrukaren hitzetan, "hori ez da aitzakia izango era guztietako musika ez entzun ahal izateko". Horregatik, Erdi Aroko musikaz gain, soinu-bandez, diskoteka doinuak, swing musikaz eta egungo pop eta folk doinuak jantziko da frontoia: "Gustu guztietara egokitutako aukeraketa egin dut".

Oraindik sarrera batzuk geratzen dira salgai, eta Seminarixoko leihatilan edo webgunean eros daitezke, zortzi eurotan. Pertsona bakoitzak gehienez ere sei sarrera eros ditzake. Halaber, Goiena telebistak osorik grabatuko du eta *Goiena.eus*-en zuzenean ikusi ahalko da. Ondoren, Goiena telebistan izango da ikusgai: hilaren 17an, 22:00etan; eta hilaren 18an, 17:00etan.

Tekno gaua kartzela zaharrean
Aratusteak ospatzeko, tekno gaua egingo dute kartzela zaha-



Pella eta torrada ikastaroa Gure Ametsa elkartearen martitzenean. P.U.

Hasiera goxoa pella eta torradekin

Martitzenean, ohiko pella eta torrada ikastaroa egin zuten Gure Ametsa elkartearen. Gorka Lobato sukaldaria gidari, hamabost lagunek hartu zuten parte. Lobatok esan du "giro alai eta atsegina" izan zutela. Prestatutakoa jateko aukera izan zuten.

rean bihar, zapatua, 21:00etatik 06:00etara bitartean. Hauexek jarriko dute musika: Jon Malax, Elaine MRK, Anomalia, Alexander M, Ima eta Zumi. Sarrera bost euro da.

Ikastetxeetan ere festa

Bergarako ikastetxeetan ere Aratuste giroan murgilduko dira, baina eguraldiak baldintzatuko egitarauarekin. Mariaren Lagundia Ikastolak eta Aranzadi Ikastolak gaur ospatuko dituzte Aratusteak. Mariaren Lagundiak *Amalurra* gaia aukeratu du, eta, eguraldi ona bada, 15:00etan aterako dira kalejiran herriko kaleetan barrena, herriko plazara iritsi arte. Eguraldi txarra bada, berriz, ikastolan egingo dituzte ekintzak.

Aranzadi Ikastolan euskal Inauteriak ospatuko dituzte, eta, 15:20an jolastokian dantzak egin

ostean, aterako dira kalera. Herriko zenbait txokotan geldialdiak egingo dituzte dantzatzeko, eta, atzera, ikastolara itzuliko dira, arratsaldeari amaiera emateko buruhandi eta erromeriarekin. Eguraldi txarra bada, Seminarixoko karpapean egingo dute.

San Martin Agirre Herri Eskolan, aldiz, martitzenean, hilak 13, egingo dute ospakizuna, eta *Bergarako lanbideak* da aukeratu duten gaia. Eguraldi ona bada, 15:00etan aterako dira kalejiran herriko plaza aldera. Ibilbidean zehar geldialdiak egingo dituzte dantzak egiteko.

HERRIKO IKASTETXEEK GAUR ETA MARTITZENEAN OSPATUKO DITUZTE ARATUSTEAK

'Hona bostekoa!'-ren aurkezpen solasaldia gaur Aroztegin

Aroztegin dagoen *Hona bostekoa!* komiki-bilduman hartu du parte Kote Camachok, eta lanaren aurkezpen-solasaldia egingo du gaur, 19:00etan. Geuretik Sortuak proiektuaren erakusketa ikusgai dago, otsailaren 16ra arte. Camachorekin batera hartu dute parte Unai Gaztelumendik, Aritz Ibarrek, Eñaut Aiertzaguenak eta Iñaki Martiarenak.

UGARTE
ARROZTEGIA - ALTZARIAK

Proiektuak · Koltxoak
Horma-armairuak
Altzariak neurria
Ateak · Eskailerak ·
Leihoak · Tarimak ·
Egur lanak

ALTZARI DENDA
Ikerleku zeharbidea
Tel.: 943 034630

ARROZTEGIA
San Juan 1a
Tel.: 943 765491

BERGARA
aroztegia@ugartearoztegia.com

21
K
KALITATEA

Entzuna Registratu Nº00/025

Sugoi

**ERLOJUAK,
ARTIKULU
ELEKTRONIKOAK,
KALKULAGAILUAK...**

Fraiskozuri plaza 8.
943 76 59 54 BERGARA

Kabutzia

ARRANDEGIA

Fraiskozuri 6
BERGARA
Tel.: 943 76 56 62



Hartza, Tximinoa eta Hezitzaila, iaz, Herriko Plazan eginiko dantza ikuskizunean. IMANOL SORIANO

Kalera ateratzeko prest dira Hartza eta Tximinoa

Dantza saioa, herri bazkaria eta Sutan txarangaren kalejira izango dira bihar, Oinarin dantza taldeak eta Antzuolako Udalak antolatuta. Halere, gaur hasiko da jaia herrian, pailazoen ikuskizunarekin; martitzenean, berriz, Landatxopekoen txanda izango da

Amaia Ramirez de Okariz

Kortabarria ANTZUOLA

Urtean behin, Inauterietan, ir-teten dira Hartza eta Tximinoa kalera, Hezitzailaek lagunduta, eta hala izango da aurten ere, 10:30etik aurrera arituko baitira auzoz auzo dantzariekin batera. Izan ere, Oinarin dantza taldeak antolatuta, orduan hasiko dute kalejira 60 dantzarik; hain justu, helduenak arituko dira horretan, herritarrak. Sorgin dantza ez ezik, Luzaideko (Nafarroa) polka ere egingo dute, eta, ostean, 12:30ean, dantza saioa izango da; eguraldia lagun izanez gero, Herriko Plazan egingo dute; hala ezean, eskolako patioan. Helduez gain, gainera, 105 haur eta gazte arituko dira dantzan, hala nola banakoa, zintza dantza eta Zuberoko makil dantza egiten.

Inauteriak, ordea, ez dira goiz horretan amaituko, Antzuolako Udalak egun osoko egitaraua antolatu baitu, jaiari indar handiago emateko asmoz. Hala, dantza saioaren ostean, herri

Egunotako egitaraua

Martitzenera arte ospatuko dira Inauteriak Antzuolan.

Hilak 9, gaur:

- **17:00** Azken festa ikuskizuna, Torresoroan.

Hilak 10, bihar:

- **10:30** Dantzarien kalejira.
- **12:30** Dantza saioa, Herriko Plazan.
- **14:30** Herri bazkaria.
- **18:00-21:00** Sutan txaranga.

Hilak 13, martitzena:

- **18:30** Mozorro jaia, Landatxopen.

bazkaria egingo dute udal pilotalekuan, 14:30ean; guztira, 286 txartel saldu dituzte. Amaitzeko, berriz, Sutan txaranga arituko da kaleak alaitzen, 18:00etatik 21:00etara.

Gaur, ikuskizuna

Antzuolako Herri Eskolan gaur arratsaldean ospatuko dituzte Inauteriak, eta, ondoren, Udalak antolatuta, haurrentzako ikuskizuna izango da, Torresoroan, 17:00etan: Tomaxen Abenturak pailazoen ikuskizuna aurkeztuko dute.

Martitzenean, Landatxopen

Landatxope jubilatuen elkartearen ostean ospatuko dituzte, mozorro jaia egingo baitute martitzenean, otsailaren 13an, elkartearen bertan, 18:30ean hasita. Merienda izango dute lehendabizi, eta, ondoren, ohiturei hutsik egin gabe, mozorro onenak sarituko dituzte; horrenbestez, lehiaketan parte hartu nahi izanez gero, mozorro-tuta joan beharko da.

"Beste etapa bat hasiko dut, eta ilusioz heltzen diot urteari"

IBAI LARREA KORRIKALARIA

Hitzarmena sinatu du La Sportivarekin; "gogotsu" dago

A.R.K. ANTZUOLA


La Sportivako mendi lasterketen taldean arituko da Ibai Larrea korrikalaria (Antzuola, 2002). Urtarrilean hasita, bi urterako hitzarmena adostu du, hasiera batean, 2025eko abendura arte, luzatzeko aukera dagoen arren. **Espero al zenuen horrelakorik?** Ez da egun batetik bestera izan. Iaz, euren materiala bidaltzen aritu ziren, eta banuen susmoa agian interesa izan zezaketela ni taldean sartzeko. Otsailean egin da publiko, baina uda ez-kero gabiltza hitz egiten.

Zer du horrelako hitzarmen batek?

Sare sozialak erabiltzeko eskatu didate, argazkiak-eta igotzeko, La Sportiva aipatzen eta marka erakusten. Lasterketei dagokienez, ekainaren 20an Italian egingo den batean parte hartzeko baldintza jarri didate, La Sportivak antolatzen baitu. Osterantzean, egutegi propioa egiteko aukera eman didate, ontzat eman beharko luketen arren.

Izango al zara A8M lasterketan?

Egiteko asmoa nuen, baina joan den astean abisatu zidaten La Sportivako guztiok elkartzeko topaketa bat egitekoak direla Bartzelonan, eta asteburu ho-



Ibai Larrea. LA SPORTIVA, ANTON GUARESTI

rretan egingo da, justu. Beraz, ezin izango naiz Antzuolan egon.

Zer espero duzu urte honetaz?

Sekulako gogoia dut. Beste etapa bat hasiko da niretzako. Marka batean sartzeak ate gehiago irekitzen dituela uste dut, ezagutzera emateko aukera gehiago dituela, eta baita bidaiatzeko eta kanpoko lasterketak egiteko ere. Sekulako gogoia dut, eta ilusioz heltzen diot urteari.

Eta etorkizuna?

Hasiera batean, itxura oso ona du eta jarraitzeko gogoz nago, baina ikusiko da nola nabilen.



ANELKAR

Anelkarrek 803,5 euro batu ditu

Anelkar elkartasun taldeak, abesbatzarekin eta txistulariekin batera, Santa Ageda eskea egin zuen joan den domekan, hilaren 4an. 30 lagun inguru batu ziren, eta 803,5 euro jaso zituzten Kongo eta Senegalgo proiektu batzuk bultzatzeko. Hala, Anelkar taldea eskertuta dago herritarrekin, eta hori bera adierazi nahi izan die.



Joan den domekan landatu zituzten zuhaitzak Azaldegietan. ANDONI IPARRAGIRRE

210 zuhaitz landatu dituzte Azaldegietan

Pagoak landatu dituzte batik bat, baina baita urkiak, gorostiak eta arantza zuri batzuk ere, "baso ekologikoki orekatua" eratzeko asmoz; basogintza taldeak, ordea, urrats gehiago egiteko, bilera egingo du eguenean. Atsedeen-gunea ere konpontzen dabilta

Amaia Ramirez de Okariz Kortabarria
ANTZUOLA

Paisaia berria izango du aurreantzean Azaldegietak, edo, behintzat, helburu hori du herriarrez osatutako basogintza taldeak, 210 zuhaitz landatu baitituzte bertako basoen alde egiteko asmoz. "Bertako zuhaitzak landatu ditugu; gehienak pagoak

izan dira, baina baita urkiak, gorosti batzuk eta arantza zuri batzuk ere; denetarik pixka bat", adierazi du Andoni Iparragirrek, basogintzako taldekideak.

Joan den domekan, otsailaren 4an, egin zuten landaketa, horretarako propio antolatutako baituzten Zuhaitz Eguna Antzuola Herri Eskolak, Arrola Mendi Elkarteak

eta Antzuolako Udalak. 09:00etan elkartu ziren herritarrak Herriko Plazan, eta Azaldegietara jo zuten. Heldu zein haur, 24 lagun elkartu ziren, eta Iparragirrek azaldu du "goiz polita" pasatu zutela, hamaiketako eta guzti. "Basogintza taldeko lehenengo ekintza ondo atera da; gustura gelditu gara eginiko lanarekin".

Basogintza taldeak xede du "baso ekologikoki orekatuak" eratzeko, eta elkarte bat sortu nahi du horretarako. Bazkide egiteko aukera izango lukete herritarrek, eta baita urtean ekarpen ekonomiko bat egiteko ere, ekintzetan parte hartzearekin batera. Ingurumen hezkuntzan ere eragin nahi dutela adierazi dute. Nolanahi ere, eguenean, hilaren 15ean, eman go dituzte xehetasun gehiago, bilera irekia egingo baitute, 19:00etan, Orlanen.

Atsedeen-guneko konponketa

Zuhaitzak landatzen ez ezik, Azaldegietako atsedeen-gunea konpontzeko lanean ere badihardute auzolanean herritarrek, Juan Kruz Lizarralde Antzuolako Udaleko Ingurumen zinegotziak jakinarazi duenez, ingurumena zaintzea jomuga atsedeenlekuaren hesitzeko lanean baitihardute. Hala ere, Lizarralde azken hilabeteotan jatzotako gertaera batzuk salatu ditu, haren hitzetan, hainbat baitira hesitzen dabiltazen eremura sartu eta belardia hondatzen duten gidariak, motorretakoak zein quadetakoak. "Berreskuratzeko asmoz gabilta lanean, baina dena dago apurtuta; han badago biodibertsitatea, esate baterako, igelen putzuak, eta, beraz, ingurune naturalak errespetatzea eskatu nahiko genuke; azken batean, zaintzaren ardura denona da".

Egiten dabiltazen konponketen helburua ingurunea "txukun eta erabilgarri" jartzea da, Lizarralderen hitzetan, eta baita horrela mantentzea ere. Horretarako, egurrezko hesia jartzen hasita daude atsedeen-gunean, eta Ingurumen zinegotziak aurreratu du martxoan amaituko dituztela lanak; alabaina, ohartarazi du oinezkoek eremurako sarbidea ez dutela mugatuta izango, eurentzako gune izatea baitute xede. Horrez gain, landatu berri dituzten zuhaitzen ingurua ere hesituko dute, alambre-sarea erabilita.

Udalarenak dira lur horiek guztiak, eta, horrenbestez, Lizarralde erantsi du Udala ari dela lanak egiteko baliabide ekonomiko eta materialak jartzeko, hala dagokiolako.

"BERTAKO ZUHAIKAK LANDATU DITUGU; GEHIENAK PAGOAK IZAN DIRA"

ANDONI IPARRAGIRRE,
BASOGINTZA TALDEKO KIDEA

"AZALDEGIETA BERRESKURATZEN GABILTA; APURTUTA DAGO DENA, ORDEA"

JUAN KRIZ LIZARRALDE,
INGURUMEN ZINEGOTZIA

Gorka Etxezarreta eta Markel Lete izan dira musean garaile

35 bikote aritu dira Euskal Herriko mus txapelketan, eta bostek eskuratu dute hurrengo faserako txartela

A.R.K. ANTZUOLA

Markel Lete eta Gorka Etxezarreta izan dira garaile Euskal Herriko mus txapelketako Antzuolako finalean, eta zuzenean sailkatu dira Gipuzkoako faserako. Hala ere, beste lau bikote ere lurraldeko txapelketan izango dira, hurrenez hurren: Txomin Esnaola eta Iker Gardoki; Aratz eta Josue Madariaga; Juan Kruz Lizarralde eta Paulo Iparragirre; eta Ander Aranburu eta Ion Etxezarreta.

Guztira, 35 bikote aritu dira txapelketan, eta, hiru kanpora-

keta jokatu ondoren, zortzi izan ziren joan den domekan, hilaren 4an, egindako finalean. Hain justu, aurrez aipaturiko bikoteez gain, Patxi Irizar eta Isidoro Quintana, Axier Unamuno eta Mikel Gabilondo eta Petro Iglesias eta Jabi Iglesias izan ziren finalean.

Finala, Zuberoan

Martxoaren 9an egingo da Gipuzkoako kanporaketa, Iruran, 15:00etan, eta, final nagusiari dagokionez, martxoaren 23an izango da, Altzain.

Aurretiazko borondateei buruz arituko dira eguenean

Landatxope jubilatuen elkarteak antolatuta, aurretiazko borondateei buruz arituko dira Jesus Millan medikua eta Felix Garcia erizaina hilaren 15ean, eguenean, 18:00etan, Orlanen.

Antolatzaileek azaldu dutenez, bizitzaren amaieran hartu beharreko erabakietan laguntzea dute helburu, adibidez, norberak izan ditzakeen balioei eta lehen tasunei buruz pentsatu eta hausnartuta: "Nola irudikatzen duzu zure osasuna etorkizunean? Zer-nolako zaintzak izatea gustatuko litzaizuke?".

Hala, Landatxopek, Osakidetzarekin elkarlanean, hitzaldian parte hartzeko gonbita egin die herritarrei.

GORA ETA BEHERA



Auto bat Botonen utzita, apurtuta

Herritar batek salatu duenez, auto bat utzita dago Boton inguruan, apurtuta. Haren arabera, ezkutuan dago, baina handik erretiratzea komeni da.

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI? berriak@goiena.eus edo 688 69 00 07.



Elgetako alkate Ibon Unzetabarrenetxea Gallego, Goiena telebistako platoon, otsailaren 6an. L.Z.L.

"Errealitatera egokitzen da aurrekontua, eta anbizio handikoa da"

Aurreko agintalditik datozen proiektuak gauzaten amaitu eta lehen aurrekontua prestatzea izan dira alkatearen hilabeteotako zeregin handienak. Herria hobetzen jarraitzea eta Udalaren egoera ekonomikoa saneatzen joatea dira erronka nagusiak

Larraitx Zeberio Lekuona ELGETA Egunotan bete da urtebete Elgetako EH Bilduko herri batzararak maizteko udal hauteskundeetarako alkatetzarako hautagai izango zela jakinarazi zuela. Hauteskundeetarako prestatu, kanpaina egin, hauteskundeak irabazi eta alkate da ekaina ezkeren Ibon Unzetabarrenetxea (Elgeta, 1993). Urte "intentsua" izan dela adierazi du, eta ikasketa prozesu handia.

Agintaldiko lehen erabakiak Udal tasen eta ordenantza fiskalen %1,9ko igoera orokorra onartzea eta aurreko agintalditik etorritako proiektuak gauzaten joatea izan dira lehen zeregin garrantzitsuenak –Arantzeta ura eramatea eta pump-track-gunea–.

Udalbatzak, bestalde, berriki onartu du 2024ko udal aurre-

kontua; agintaldiko lehenengoa. "Errealitatera egokitzen den aurrekontua da, eta, aldi berean, anbizio handikoa. Azken urteotako aurrekontu handiena da kopuruz [ia bi milioi euro], eta horrek adierazten du badagoela gogoia gauzak egiteko". Sarrera arruntekin ez dira, ordea, gastu arruntak estaltzen. "Kezkagarria da, baina udal baliabideak ondo kudeatu beharko ditugu, eta udal tasak eta zergak berrikusi. Sarrera gehiago ere topatu beharko ditugu", esan du alkateak.

Udalaren soldata politikaren inguruan galdetuta, alkateak

"AKASO, AGINTALDI AMAIERARAKO KIROLDEGIAK BIGARREN SOLAIRUA IZANGO DU"

esan du pertsonal gastua txikia dela; izan ere, Udalak ez du tekninaririk. "Uste dut, bestalde, positiboa dela langileen soldatek gora egitea. Nik gehiago igoko nituzke, baina ezin dugu, sarrekek ez dutelako ematen".

Ura Arantzeta Aurrekontuko inbertsio nagusia Arantzeta ura eramateko proiektuak jasoko du -75.000 euro-. "Aurreko agintalditik datorren proiektua da. Ezin izan zen 2023an gauzatu, eta 2024ko aurrekontuan txertatu behar izan dugu", esan du alkateak.

Pump-track-gunea Aurrekontuan, bestalde, 72.593 euro aurreikusi dira pump-track-gunerako. Proiektuak osorik 100.000 euroko inbertsioa ekarri du. "Pozik gaude. Nekeza izan da gauzatzea, baina gauza

berria da herrian, eta jendea etengabe dago galdezka ea noiz zabalduko dugun. Aste honetan izango da. Uste dugu, gainera, kanpoko jendea ere erakarriko duela Elgetara".

San Roke kaleko irisgarritasuna Obretan da kalea. "Ur zikinak eta euri urak banatzen ari dira. Urteetako eskaera da. Lanak amaitzen direnean egingo ditugu irisgarritasun lanak: gaizki dauden baldosak konpondu, eta bestelakoak". Alkateak aurreikusten du bizpahiru aste iraungo dutela oraingo obrek, eta ondoren hasiko ditu Udalak irisgarritasun lanak.

Eguneko zentroa eta jangela Udalak 26.000 euroko inbertsioa aurreikusi du eguneko zentroa eraberritzeko. "Mugitzeko espazio falta dutela adierazi zuten eguneko zentrotik aspaldi, eta arkitektoekin aztertu dugu egoera. Planteatzen duguna da espazioa berrantolatzea", dio alkateak. Jangela proiektuak ere aurrera egingo duela dirudi. "Arkitektoak kontratatuko ditugu proiektua lantzeko. 12.000 euro bideratuko ditugu aurten horretara. Erabilerarik gabe dagoen Espaloiko jantokira pasa nahi dugu eskolako jantoki zerbitzua, eta jakin nahi dugu egingarria den. Ideia da kafe antzokiko sukaldia erabiltzea eskolako jantoki zerbitzuko sukalde moduan. Umeez bertan prestatutako janaria jango lukete".

Kiroldegiko bigarren solairua Agintaldiko proiektu izarra da eta 8.772 euroko diru-lerroa du 2024rako. "Proiektu oso potentea da; diru asko jarriko dugu bertan. Une honetan ikusi nahi dugu norainoko anbizioarekin jokatu dezakegun. Arkitektoek definituta dute non zer kokatu, eta gure asmoa da herritarrekin kontrastatzea. Dena ondo badoa, akaso, agintaldi amaierarako eduki dezakegu bigarren solairu bat kiroldegian". Erabilera askotariko bi gela, gimnasia gela bat eta rokodromo bat egitea da asmoa.

"GARRAIO ZERBITZUA HOBETZEKO EKARPENAK JASOTZEKO PROZESU BAT IREKIKO DUGU"

Garraio publikoa Alkateak argi du zerbitzua hobetu egin daitekeela. "Herri txikia gara eta uste dut ez gaituztela kontuan hartzen. Orain dela gutxi ireki genuen galdetegi bat adinekoendako, eta eskaeretako bat zen Arrasateko ospitalera joateko zerbitzua. Bagabiltza lanean. Debagoieneko alkate guztiak joan ginen Aldundira Azahara Dominguezekin hitz egitera, eta hainbat kezka helarazi genizkion. Laster zabalduko dugu prozesu bat herritarren proposamenak jasotzeko. Jakin nahi dugu zelan hobetuko lukeen zerbitzua. Helaraziko ditugu erantzunak Aldundira, eta ea, behingoz, mugikortasun efiziente bat lortzen dugun".

Lan giroa oposizioarekin Oposizioarekin harreman ona dagoela esan du Unzetabarrenetxea, eta hori eskertzekoa dela. "Iker Lakarekin harreman zuzena daukat: edozer gauza denean elkarridituzten diogu eta berba egiten dugu. Bakoitzak, noski, bere ideiak ditu, baina errespetuz helarazten ditugu, eta uste dut hori garrantzitsua dela, eta ona herriarendako. Hasieratik esan genuen elkarlanean arituko ginela, eta horretan ari gara; proposamenak egiten dizkigute eta landu egiten ditugu. Gure aldetik ere proposamenak jasotzen dituzte. Uste dut agintaldi polita izan daitekeela bien arteko elkarlanean".

Hamaika batzorde Aurretik zegoen batzorde kopuruari Berdintasun batzordea gehitu zaio agintaldi honetan. Elgetaren tamainarako asko ez ote diren galdetuta, alkateak esan du herritarren mesedetan dela: "Erosoago etortzen dira intereseko gai konkretuak lantzen diren batzordeetara. Batzordeak tresna ezin hobekak dira proposamenak egiteko. Ikusiko dugu emaitza zein den". Horrekin batera, Unzetabarrenetxeak uste du Berdintasun batzordea ezinbestekoa dela eta haren lekua eduki behar duela.

Pozik da alkatea, Elgeta "berpizten" ikusten duelako. Hala adierazi dute herritarrek *Harrera* saiorako egindako inkestetan, eta ados da alkatea: "Gauzak antolatzen ari gara Udaletik, eta herriko eragile asko ere indarra hartzen ari dira. Oso garrantzitsua da herriarendako".

Beste urrats bat instalazio fotovoltaikoa gauzatzeko

Ixotzen energia komunitateak eta Elgetako Udalak frontoiko teilatuaren lagapen-hitzarmena sinatu dute. Pauso garrantzitsua da Udalak teilatu hartan dagoeneko martxan duen instalazio fotovoltaikoaren ondoan komunitatearena gehitzeko

Larraitz Zeberio Lekuona ELGETA

Ixotzen energia komunitateak sorreratik izan du herrian bertan plaka fotovoltaikoen instalazio bat ipintzeko asmoa, eta egunotan gauzatu da kokapena ahalbidetuko duen lagapen-hitzarmena. "Udalak bere jabe-gokoa den teilatu bat ahalbidetzen digu. Hitzarmenik gabe ezingo genuke plakarik ipini han", azaldu dute Ixotzeneko ordezkariak: "Ezinbestekoa da Udalaren aldetik une oro jaso dugun babesa".

Udalak dagoeneko martxan duen instalazioaren ondoan libre dagoen espazioa erabili ahal izango du Ixotzenek. "Udala Ixotzeneko bazkide-laguntzailea da eta proiektu hori oso interesgarria iruditzen zaigu herritarrek modu partekatuan sortuko den energiari aprobetxamendua ateratzeko. Elgetako energia komunitatea lan bikaina egiten ari da herrian energia berri-tzagarriak bultzatzeko", adierazi du Ibon Unzetabarrenetxea alkateak. "Harro egoteko moduko erabakia hartu dugu, eta eredu-garria inguruko herrietan egon daitezkeen egitasmoetarako".

Autokontsumo partekatua

Iraunkortasunerantz egin behar den prozesuaren aldeko konpro-



Miren Ibarbia, Roberto Sanz, Ibon Unzetabarrenetxea eta Maialen Garate. IXOTZEN

misoa berretsi dute Udalak eta Elgetako energia komunitateak. Autokontsumo partekatua oinarri duen proiektua izango da frontoiko teilatuan jarriko dena. "Hasiera batean, aurrera goaz Nafarkoop-ek egin digun aurrekontuarekin, eta kalkulatu dugun lehenengo dimentsionaketa 45 kW inguru emango dituzten 97 bat plaka jarriko genituzke. Hainbat herritarrek agertu dute instalazio hartara konektatzeko interesa. Aurreikusten dugu ia 50 kontagailu izango direla, gutxi gorabehera".

Ixotzenetik azaldu dute gehienbat etxebizitza partikularrak direla interesa dutenak, baina tartean badaudela elkarre gastronomikoak, dendak eta tabernak ere.

2023ko martxoan eratu zen Ixotzen, sei hilabeteko lanketaren ostean, eta urtarrilean sinatu zuen 50.000 euroko ekarpena ziurtatuko dion hitzarmena Fagor Taldearekin. "Uste dugu instalazioa eginda egon daitekeela uda aurretik. Gero, ikusi egin behar dugu noiz lortzen dugun Iberdrolarekin martxan jartzea".

Aratuste-barikua ospatzeko, txokolate-jana eta disko festa

Eskolako neska-mutikoen kalejirarekin hasiko dira ekintzak; eguraldi txarra bada, frontoian izango da

L.Z.L. ELGETA

Kokoen eta Hartzaren aste bukaera izan zen aurrekoa, eta honako honetan bestelako moztarren festa izango da herrian. Herri Eskolan egun osoko egitaraua prestatu dute. Arratsaldean egingo dituzte urteroko kalejira eta dantzak. Ikusteko dago eguraldia dela-eta ekintzak non egingo diren. Ziurrenik, udal pilotalekuan izango dira.

Txokolatea eta dantzak

Eskolako ekintzak amaituta, Maala guraso elkarteak hartuko

du lema, eta 16:30ean txokolate-jana egongo da. Eguraldi txarra dago iragarrita, eta ondo sartuko da txokolate beroa.

Gorputza mugitzeko aukera izango da ondolik; izan ere, Udalak *Dantza-saltsa* izeneko dantzaldi-ikuskizuna antolatu du 17:00etarako. Ezagunak dira *Dantza-saltsa*-ko lagunak Elgetan. Aurreko urteetako Aratuste-barikuan ere izan dira herria giroten. "Denetik egongo da: modako abestiak, betiko erritmo martxosoak, jolasak, probak eta koreografiak", esan dute.

Bost partzela daude libre herriko baratze parkean gaur egun

Elgetako baratze parkeak 50 metro karratuko hogeitaz partzela ditu, eta gaur egun bost libre daude. Guneak erabilera ona izan du 2015eko ekainean martxan jarri zenetik, eta horrela izaten jarrai dezan bost partzela horiek interesa duten herritarren eskaeren zain daudela jakinarazi du Elgetako Udalak. "Kanpaina bat jarri dugu martxan herritarrek jakin dezaten partzela horiendako jabe bila gabiltzala", azaldu du Ingurumen zinegotzi Miren Ibarbiak. "Ehun euroko fidantza eskatuko da, eta hobariak daude errentaren arabera". Interesatuak udaletxean jaso dezakete informazio gehiago.

Maiatzaren bi jaialdi garrantzitsu izango dira herrian

Elgetan ospatuko da aurten Debagoieneko Mankomunitateak urtero egiten duen Puntaik Punta Bidezidorren Jaialdia. Maiatzaren 10etik 12ra izango dela iragarri dute antolatzaileek; tartean, Elgetako Turismo zinegotzi Ione Elkorok: "Hasita gauden Mankomunitatearekin batera egitaraua prestatzen; oraingoz, ezin dugu askoz gehiagorik aurreratu".

Bestetik, Euskal Mendizaleen Federazioak jakinarazi du maiatzaren 18an egingo duela mendurrenoko ekitaldia. 1924ko maiatzaren 18an sortu zen, Elgetan, eta Udala harremanetan da Euskadiko eta Nafarroako federazioekin.

IBON UNZETABARRENETXEA

ELGETAKO ALKATEA

GOIENA TELEBISTA, "HARIRA"

OTSAILAREN 9AN, EGUBAKOITZA, 18:20, 20:20 ETA 22:20



DESKARGATU
GOIENA
APLIKAZIOA

goiena
Zu hemen zaude.





Xabier Igartua, Zerbitzuetako batzordeburua, eta Alaitz Alvaro, energia bulegoko arduraduna, Oñargiko bulegoan. O.E.

Energiaren kontsumoa, kontsultatzeko moduan

Trantsizio energetikoaren baitan Udalak kontsumo energetikoa neurtu eta murrizteko duen helburuarekin, udal eraikinen kontsumoa zenbatekoa den bistaratu du webgune batean, ekintza-planak zehazteko. Herritarrek ere ikus dezakete euren kontsumo ohitura

Oihana Elortza Gorositza OÑATI

Energiaren kontsumoa murrizteko helburuarekin, udal eraikinetako argiaren, uraren, gasaren eta erregaiaren kontsumo datuak bildu eta horien jarraipena ari da egiten Oñatiko Udala, datu horiek esku artean izanda helburua betetzeko hartu beharreko neurriak erabakitzeke. Informazio hori bistaratu egin du orain astean aurkeztu duen webgune baten bitartez: energiabulegoa.oñati.eus.

Kiroldegiak kontsumo handiena

Udal webgunetik ere hel daitekeen helbide horretan sartu eta *Informazio energetikoa* dioen aukeran klik eginez gero ikus daiteke udal eraikinen kontsumo gastua zenbatekoa den. Ikusten da, esaterako, Zubikoa kiroldegia dela energia gehien kontsumitzen duen udal eraikina, eta haren segidan datoz Urgain, udaletxea, gaztelekua, Pake Leku, Azkoagain, euskaltegia, Udaltzaingoa, Txiki Txoko eta kale garbitzaileen pa-

bilioa. SIE aplikazioaren bitartez, automatikoki jasotzen ditu kontsumo datuak Udalak, eta jaso ahalaz bat egongo dira ikusgai. "Ezinbestekoa da monitorizatzea ze kontsumo dugun udal eraikinetan: argia, ura, gasa eta ibilgailuen erregaiak. Aplikazio horrek informazio hori barnebiltzen du eta gure fakturen azterketak egiten ditu. Lagungarria den tresna da Udalak urtetik urtera egin beharreko kontsumo murrizketan pausoak emateko", azaldu du Udal Zerbitzuen batzordeburu Xabier Igartuak.

Norberaren kontsumoa

Dagoeneko ikusgai dagoen webgune horretan, baina, norberak duen energia kontsumoa ere

UDAL WEBGUNETIK ERE BADUTE SARRERA ENERGIA DATUAK KONTSULTATU DAITEZKEEN ORRIAK

kontsulta daiteke, *Aholkularitza bulegoa* aukeran. Horretarako, erregistratu egin beharko du webgunean bertan, faktura jasotzen duen izen berarekin. "Argindarraren kasuan, merkaturatzaile guztiek informazioa sartzen duten aplikazio horretan edozein herritarrek ikus dezake, etxetik, bere kontsumo ohiturak. Baita kontratatuta duen eta kontsumitzen duen potentzia artean alderik dagoen edo ez. Egonez gero potentzia murriztu ahal izango du eta horrek fakturan ere jaitsiera ekar dezake".

Urtebete Energia Bulegoak

Hain zuzen ere, fakturak nola irakurri eta kontsumoen eta potentzien arteko diferentziak izan dira herritarrek duela urtebetetik hona zabalik dagoen Energia Bulegoan egin dituzten kontsultarik ohikoena. Hango informazioa webgunean pilatu dute orain, baina bulegoak zabalik jarraituko du aurrez aurreko zerbitzua ere eskaintzen.

GORA ETA BEHERA



Garibai auzoko lurrak, hondatuta

Garibain Fagor taldea egiten ari den lantegiaren inguruan "txikizioa" ikusi du irakurle batek, eta hori salatu, "Fagor Taldeko iraunkortasun arduradunak" non diren galdetuz.

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI? berriak@goiena.eus edo 688 69 00 07.

Zomorroi buruzko erakusketa egongo da ikusgai astelehenean

Xomorroak. Animalia txikiak, ikuskizun handia izeneko erakusketa zabalduko du Natur Eskolak datorren astelehenean, 18:00etan, kultura etxean. Bizidunen espezieen artean ugariena eta zabalena da zomorroena. Gizaki bakoitzeko 200 milioi intsektu omen daude munduan, eta zomorro motak, ezaugarriak, bizirauteko garatu dituzten mekanismoak, nola elikatzen diren, nola ugaltzen diren eta ekosisteman zein funtzio duten ikasteko balioko du erakusketak. Egunean bertan, gainera, *Arraio tximista* liburua aurkeztuko dute.

Martxoaren 3ra arte egongo da zabalik, egunero.

Herri batzarra egingo du gaur, egubakoitza, Oñatiko EH Bilduk

EH Bilduk herri batzarra egingo du bihar, 18:00etan, Bilgunean. Gai hauek landuko dituzte: *Koapen politikoa eta egungo tesuinguruaren irakurketa, ikuspuntu nazionaletik; Udalgintzako deskargua, legealdi planaren aurkezpena; Herrigintzako bererantolaketa eta martxan jarritako lan-ildoak; eta Debagoieneko proiektuaren azalpena.*

Emakumion Etxea nork eta nola erabili ari dira definitzen

Erabakitze fasean dago sartuta Emakumion Etxea, eta espazio hori nork, nola eta zertarako erabiliko duen eztabaidatzeko saioa egin zuten zapatuan Eltzian. Lehen zatian, etxean emango diren ekintzen eta zerbitzuen inguruan hausnartu zuten, talde txikietan batuta. Bigarrenetan, etxean zein gauza ez diren gertatuko jarri zuten mahai gainean. Horretarako, bost ardatz izan zituzten eztabaidagai: jarduera ekonomikoak, elkarteak, gizonetakoak, adina eta hirugarrenei espazioen uztea.

Oraingo fase honen barruan beste bi saio egingo dituzte, otsaileko eta martxoko zapatu banatan.

Astelehenean da mojei buruzko lanaren aurkezpena

Oñatiko emakume mojen izaera, bizimodua eta ekarpena ikuspegi feministatik izenburua duen lana egin dute Jone Arrazola Maiztegik eta Itsaso Manias Muñozek Selma Huxley Barkham ikerketa bekarekin, eta astelehenean aurkeztuko dute liburua, Santa Anan, 18:30ean. Irudi erakusketa 14an zabalduko dute, antzokiko sarreran.

Erantzi iluna eta jantzi kolorea: Inauteriak dira!

Inauteri Txikiaren ostean dator zapatuko jai nagusia. Zortzi dantza prestatu dituzte Oñatiko Inauterian parte hartuko duten herritarrek; horietako bat, 'Kilika', berria. Martitzen iluntzera arte iraungo dute Aratusteeek aurten ere

Oihana Elortza Gorostiza OÑATI

Oñatiko Inauteri Txikian parte hartu duten hiru ikastetxeetako LH-5 eta LH-6 mailetakoko ikasleak eta irakasleak izan dira aurten ere herriko Inauteriak ospatzen lehenak. Atzo, Eguen Gizona, arratsaldean egin zuten festa euren, eta martitzen iluntzera arte iraungo du.

Makilak indarra hartuko du

Zapatuko Oñatiko Inauteri festa izango da jendetsuena. Abenduan hasi zituzten entseguak herritarrek, Eltzian, eta martitzenean egin zuten azkena. Dantzari horiekin batera aterako dira, noski, Hartza eta Kondea eta Kondesa, Borreroak inguruan dituztela. Kalez kale ibiliko dira goizean zein arratsaldean. Zortzi pieza dituzte prestatuta: bost dantza –*Ume handia*, *Habenera*, *Ordu txikitan*, *Artzaren polka* eta *Kilika*–, bi kalejira eta balsa. *Kilika* dantza, gainera, berria da; Mikel Albistegik egin du pieza eta Oñatiko Inauterietako lantaldeak sortu du dantza. Aurrerapen moduan, makilak pisu eta indar handia hartuko du aurtengo dantzetan. Dantza horien doinuak, bestalde, musika estudio batean grabatu dituzte, Inauterietako musikariak eurak Mutrikuko estudio batera joan-



Herriko ikasleak, atzo egindako Inauteri Txikiko festan. GONTZAL BELATEGI

da. Hezkuntzara bideratutako Hurretik plataforman zintzilikatu dituzte gero, herriko ikasleek lantzeko eta ondare moduan gordeta izateko.

Bestalde, Oñatz dantza taldekoek ere parte hartuko dute neguko ospakizun horretan. Domeka arratsaldean ibiliko dira kalez kale bolant dantzak egiten.

Pailazoen ikuskizuna

Martitzen arratsaldean, berriz, Gari, Lontxo eta Joxelontxo pailazoak joango dira *Txaplin* ikuskizuna eskaintzera Zubikoara.

Ohiko tokietan daude salgai sarrerak, hiru eurotan. Bestalde, ikuskizun hori bukatu orduko egongo dira elizbarrutiko misio taldekoak txokolatea banatzen plazan. Gineako Oñati ikastetxerako izango da batuko duten dirua. Iluntzean plazan egingo den DJ festarekin bukatuko dira aurtengo Inauteriak.

Ikastetxeek ere bai

Zelan ez, herriko ikastetxeak ere batuko dira Inauteri festara. Horrela, dena eguraldiak aterrunea errespetatzen badu, Urgainen

ikastetxean bertan ospatuko dituzte gaur, egubakoitza, goizean –11:00etatik aurrera–, eta kalera irtenda Txantxiku ikastolan, arratsaldean –15:00etan hasita–. Dena dela, Zubikoa kiroldegira joateko aukera ere izango dute biek beharra ikusiz gero. Elkar Hezikoak datorren martitzen goizean mozorrotuko dira, kalera aterata eguraldia ona bada edo ikastetxe barruan txarra bada.

Eta eguaztenean, berriz –garizuma–, karapaixoen sasoiak hasiko da.

Egitaraua

Otsailak 10

- **11:00** Oñatiko Inauteriak kalez kale, Eltziatik; 13:30ean bukatuko da goizeko jarduna, plazan.
- **17:00** Arratsaldeko konpartsa hasiko da Zubikoan; 20:00etan amaituko da, plazan.

Otsailak 11

- 11:00 Urrezko Aizkora.
- 18:00 Bolant dantzak Oñatz taldearekin, kaleetan zehar.

Otsailak 13

- **17:00** Tutik Clowns taldearen *Taplin* ikuskizuna, Zubikoan.
- **18:00** Txokolate solidarioaren banaketa herriko elizbarrutiko misio taldearen eskutik, plazan.
- 18:00 Erraldoiak eta buruhandiak. Jarraian, DJ festa, plazan.

Oñatiko emakume sortzaileen lanak erakutsi gura dituzte

Emakume sortzaileen hamabostaldia egingo dute herrian datorren hilabetean, martxoan, eta, horren barruan, Oñatiko emakume sortzaileen lanen erakusketa egin gura dute. Edozein arte diziplina lantzen duten eta Oñatin jaio edo bertan bizi diren emakume artistek parte hartu ahal izango dute. Erakusketa horretarako, baina, izena eman behar da aurrez, eta erakusketa horretara zer eta nolako lana eramango lukeen azaldu behar du artistak, erakusketan ahalik eta diziplina artistiko ezberdin gehien erakutsi gura dituztelako eta lan asko berdinak badira aukeraketa egin behar du dutelako.

Otsailaren 14ra arte eman daiteke izena, kultura etxean edo udal webgunean. Informazio gehiago behar izanez gero, kultura etxean galdetu daiteke, bertara joanda, telefonoz –943-78 03 53– edo postaz –kultura.idazkaritza@onati.eus–. 26an erantzungo dituzte eskaerak.

'Punkaren beste alde' dokumentala eguaztenean

Burrunda Faktoriaren eskutik, Arrasateko Perlata musika taldeak egindako *Punkaren beste alde* ikus-entzunezkoa emango dute datorren eguaztenean, otsailak 14, Antixena gaztetxean, 19:00etan. Jesusi Etxebarria musika irakasle ohi arrasatearra da dokumentalaren ardatza. Habi, Ziraun eta Sara Sozoya ere izango dira otsailean.



Gualbi
aholkularitza

ZERGA, KONTABILITATE ETA
LAN ARLOKO AHOLKULARITZA

ABOKATUAK
KONTU IKUSKARIAK

Bezero guztien beharrei erantzuteko prest!



Euskadi Etorbidea, 6 (OÑATI) • 943 78 16 48 • onati@gualbiasesores.com • www.gualbiasesores.com



Albok eta Sasquatch taldeek iaz jokatu zuten finaleko irudi bat. IMANOL SORIANO

Aurrerapausoa emateko unea iritsi zaie taldeei

Herriko Futbol Txapelketa denboraldiaren erdialdera iritsi berri da, eta erabakita gelditu da zeintzuek jokatuko dituzten Liga eta Kopa txapelketak. Datorren asteburuan hasiko da fase erabakigarria; finalak maiatzeko lehen asteburuan jokatu dira

Iñigo Barrena Kortabarria OÑATI
Azken urteetako talde kopuru handienarekin ekin zion urrian Herriko Futbol Txapelketak 2023-2024ko denboraldiari, eta horrek astebururo bi partidu jokatzetik hiru jokatzera behartu zuen. Zalantzekin hasi ziren antolakuntzako kideak aldaketa hark nolako eragina izango zuen, baina, momentuz, txapelketaren erdia jokatu, biziberrituta ikusten dute HFT. "Ordutegi aldetik kezka genuen, baina nahiko ondo moldatu gara. Gainera, uste baino zeresan handiagoa ari da ematen txapelketa herrian, ohiko hizketagaita da berriz ere, eta hori seinale ona dela uste dugu", dio Jon Aiastuik, antolakuntzako kideak.

Liga eta Kopa, erabakita
Hilaren 17ko eta 18ko asteburuan hasiko da bigarren fasea, Liga eta Kopa jokatu dituzten taldea zeintzuek diren erabakita. Weingüter, Shatoken Moura, Tutelatraku, Hangöver, Albok eta Frakas

Brabas lehiatuko dira Ligan; eta Sasquatch, Iturritxo, Kelekona, Morekanbe, Zalaparta, Mazedonia eta Sarutobi, berriz, Kopa altxatzen saiatuko dira.

Ligako lehen lau sailkatuak Ligako finalerdietarako sailkatuko dira eta beste biak, Kopa finalerdietarako. Aldiz, Kopa txapelketan lehen bi sailkatuak izango dira finalerdiak jokatu dituztenak. Aiastuiren ustez, aukera guztiak daude zabalik: "Maila handiko txapelketa izaten ari da, baina zaila da ezer ziurra esatea".

Txapelketa jendetsuagoa
Hamahiru talde izateak jende eta zale gehiago izatea eragiten du, eta halaxe gertatzen ari da

TXAPELKETAREN FINALAK MAIATZEKO LEHENENGO ASTEBURUAN JOKATUKO DITUZTE

aurten ere. Hiru talde berri sartu izanak indarberritu egin du txapelketa, baina ez soilik kopuruari dagokionez. "Hiru talde berrik hiru lagunarte gehiago izatea eragiten du; horrek txapelketa zelaitik kalera eramatea dakar, gainera. Eta txapelketaren dinamikan ere buru-belarri sartu dira", adierazi du Aiastuik. Gainera, azpimarratu du talde berriei esker "emakumezko gehiagok" jokatzeko dutela, eta hori "pozgarria" dela, nahiz eta arlo horretan baduten "zereginik" oraindik.

Azkoagaingo harmailak ere beste kolore bat hartzen ari dira aurten; ordutegiak eta neurketen erakargarritasuna horren eragile izan daitezkeela dio Aiastuik: "Aurreko urteetan baino ikusle gehiago ditugu. Askok lagunak ikustera datoz, baina badira partiduen erakargarritasunagatik ere etortzen direnak". Arlo horretan "lana" egiteko dutela aitortuta ere, HFT "bizi-bizirik" dagoela dio.


Urrezko txartela izango dute jokoan etzi aizkolariek

Bi aste barru Azpeitian jokatu den binakako txapelketako azken finalista Oñatin erabakiko da

I.B.K. OÑATI

Urrezko Aizkolarien binakako txapelketa azken txanpan sartuta dago. Dagoeneko bi bikotek lortu dute bi aste barru Azpeitian jokatu den finalerako txartela; hirugarrena, berriz, etzi erabakiko da, domeka, 12:00etan, Oñatiko Foruen plazan; euria bada, kiroldegian izango da.

Hodei Ezpeleta eta Jokin Urretabizkaia *Basozabal*, Ugaitz Mugertza eta Ibai Soroa eta Jon Rekondo eta Oihan Larretxea bikoteak izango dira nor baino nor gehiago. Bikote bakoitzak 36 enbor moztu beharko ditu, bost modalitatetan, eta lana bukatzeko denbora laburren egiten duenak eskuratuko du finalerako txartela. Antolatzaileek adierazi dutenez, maila "handiko" bikoteak dira elkarren aurka arituko direnak.



Aizkolariek, iaz, plazan. I.S.

Gaszte mailako finalerdiak

Txapelketa nagusiaz gain, gaszte mailako banakako aizkolariek txapelketako bi norgehiagoka ere jokatu dira: Igoi Pikabea eta Jon Erdozia eta Oier Mitxelena eta Isidro Velasco izango dira aurrez aurre.

Hilaren 18an egingo dute mendi irteera Aloña Mendikoek

2024rako Aloña Mendi mendi sailak kaleratutako mendi irteeren egutegiaren barruan, otsailekoa Bizkaiko Enkarterrietan izango da, Bizkaia eta Burgos elkartzeko dituen Orduente mendikatean barrena. Hamabost kilometroko ibilbidea da eta 1.000 metroko desnibel positiboa du; bost edo sei ordu inguruan egiteko modukoa dela

diote Aloña Mendiko mendi saileko ordezkariak, eta ez duela batera zailtasunik.

Irteera goizeko zazpitan izango da, postetxe parean. Izena emateko azken eguna otsailaren 15ean izango da, eguena, eta Aloña Mendi tabernan edo alonomendi.mendi@gmail.com helbide elektronikora idatzita egin daiteke. Bazkideek hamar euro ordaindu beharko dituzte. Era berean, parte hartzaileak federatuta egon beharko dute derrigorrez.

ARATUSTEAK DEBAGOIENEAN



ARATUSTE KONTZERTUA: "BIXAMONA ERDI AROAN"

'GOIENA.EUS' ETA GOIENA TELEBISTA

OTSAILAREN 9AN, 22:30EAN, ZUZENEKO
'STREAMING'-A 'GOIENA.EUS' ATARIAN

ZUZENEKO

OTSAILAREN 17AN, ZAPATUA, 22:00ETAN

OTSAILAREN 18AN, DOMEKA, 17:00ETAN



ARATUSTEAK DEBAGOIENEAN

GOIENA TELEBISTA

OTSAILAREN 12AN, ASTELEHENA,
18:00, 20:00 ETA 22:00

'HEMEN DEBAGOIENA' SAIOAN

OTSAILAREN 13AN, MARTITZENA,
19:00, 21:00 ETA 23:00

'JAIK' SAIOAN



DESKARGATU
GOIENA
APP BERRIA!



goiena

Zu hemen zaude.

Xabier Urtzelai Atxa ARRASATE

Ainara Urrutiarendako (Aretxabaleta, 1981) iazko urtea "oso positiboa" izan da. "Azken bi urteak izan dira bereziki onak. Trail munduan hiru urte daromatzen serio, ez dut urte askotako ibilbiderik, eta denbora tarte laburrean asko ikasi dut. Iaz lasterketa askotan geratu nintzen pozik. Esaterako, Espainiako txapelketan [maratoi distantziako debutean] nazioarteko mailako korrikalariak egonda ere hirugarren egin izana ederra izan zen. Espainiako selekzioarekin Munduko Txapelketara joan izana, Skyrunning zirkuituan hamar onenen artean sailkatu izana... Niretako balio handiko lorpenak izan dira horiek, baina, bereziki, nabarmenduko nuke urtarriletik azarora arte izan dudana erregularitasuna eta selekzioak ordezkatzeko dakarren presioa ondo kudeatu dudala. Gainera, uste dut denboraldia luzea izan bada ere mentalki fresko egon naizela. Hori bai, atzean esfortzu eta sakrifizio handia egon da, eta momentu onak eta ez horren onak ere egon dira".

Urrutiak onartzen du orain momentuan korrikalari moduan zalantza handiekin dagoela. Euskal selekzioko hautatzaile izatea onartu berri du, eta horrek badu albo-kalte bat; alegia, atleta moduan ezingo dela nazioartean euskal selekzioarekin lehiatu, baina garbi dauka korrika egiten jarraituko duela. "Denboraldia amaitu zenean hausnarketa apur bat eginda konturatu nintzen Skyrunning zirkuituan bi urte egin eta gero etapa hori amaitutzat emateko ordua dela eta ilusioa egiten didaten lasterketetan egon nahi dudala. Hori bai, ez daukat ideiarik ere ze lasterketetan izango naizen", dio, barrez. "Zorionez, lasterketa askotako gonbidapena daukat, eta, selekzioarekin edo talde bat ordezkatzeko lehiatuko ez naizenez, erabateko askatasuna daukat inongo konpromisorik barik nik nahi dudana egiteko. Horrek izugarriko askatasuna ematen dit. Hala ere, buruak gauzak lasai hartzeko eskatzen badit ere, osterera ere entrenamenduetara itzuli naizenez gorpuzak oso ondo erantzun dit, eta konturatu orduko burua martxan hasten da osterara [Barre]. Aurrera dezakedana da Zegama-Aizkorrin



Ainhara Urrutia. ARITZ GORDO



Oihana Kortazar. ARITZ GORDO

Ilusio eta erronka berrieekin datoz

MENDI LASTERKETAK Erreferentziazko lasterkari Ainara Urrutiak, Oihana Kortazarrek, Ainara Uribarririk eta Malen Osak 2024an dituzten erronken gainean egin diote berba GOIENARI, eta 2023ko argi-ilunak ere inongo erreparo barik erreparatu dituzte

egongo naizela lehenengoz; lasterketa hori behin, behintzat, probatu beharra dago".

Aretxabaletakoak, hori bai, lasterkari moduan izango dituen erronkak euskal selekzioko hautatzaile lanarekin tartekatuko beharko ditu. "Ilusio handiz onartu dudana erronka da. Dagoeneko hasita gaude lanean, urtea planifikatu egin behar delako. Euskal selekzioan egoteko baldintzak zehaztuta daude, eta korrikalari jarraipena egitea eta eurekin hartu-emanetan egotea izango da lanetako bat. Duela gutxira arte, selekzioko korrikalarietako bat izan naiz, eta hori abantaila da, badakizulako zer den eurek sentitzen dutena, badakizulako atletek zelan estutzen duten euren burua. Izan ere, gure lana ere bada korrikalarien ondoan egon eta eurak lasaitzea, emaitza edozein dela ere".

Kortazar, nekaezin

Oihana Kortazarrek (Elgeta, 1984) aparteko aipamena merezi du. Elgetarrak 40 urte beteko ditu aurten, 2008tik dabil trail munduan eta 2023an 35 lasterketa egin zituen. "Uste dut lasterketa gehien egin ditudan urtea izan dela", dio, barrez. Kortazarrek ez du askorik behar urtea gogoz has-teko, baina onartzen du iazko urtarrilean Teiden egin zuen errekorra Youtuben erakutsi izanak motibatu egin zuela. Berez, errekorra hilabete lehenago egin zuen, 2022ko abenduan, baina egindakoa isilpean gorde zuten, eta urtarrilean Salomoneko kanalean erakutsi zuten. El Socorro hondartzatik hasi eta Teideko tontorrerako (3.718 metro) joan-etorria 6.41.18ko denboran egin zuen (55 kilometro) elgetarrak, aurretik Ragna Debats-ek zeukan

marka 20 minutu onduta. "Bideoa erakutsi genuenerako hiru aste neramatzan korrikarik egin gabe, denboraldia amaituta neukalako, baina egia da denboraldi berria gogoz has-teko baliagarria izan zitzaidala".

Aurretik zetorkion urte emankorren hasiera baino ez zen hura. "Urte guztiak izaten dira intentsitate handikoak, baina bai, 35 lasterketa kopuru polita da. Noski, lasterketa horien artean daude nazioartean oihartzun handia daukaten probak, eta baita entrenamendu moduan baliagarriak egiten zaizkidan lasterketa txikiago eta herrikoioagoak ere. Horieta asko gozaten dut, xarma berezia izaten dutelako". Eta bidean, nabarmenezko moduko emaitzak egon dira. "Espainiako maratoi distantziako txapelketa seigarren aldiz irabaztea garrantzitsua izan zen, Espai-

niako atletismo selekzioarekin Munduko Txapelketara joan eta selekzioko ordezkari azkarrena izatea ere garrantzitsua izan zen [helmugan bederatzigarren] eta Golden Trailen barruan Mont Blanc-eko maratoian podiumera igo izanari ere balioa ematen diot...".

Lasterketak, baina, bestelako eginbeharrekin eta ardurekin bateragarri egin behar dira, eta Kortazarri bereziki udan gehiago kostatzen zaio hori. "Urteko bigarren zatia hasiera asko kostatzen zait beti", dio, umorez. "Baina dagoeneko ez naiz larritzen; badakit horrela izan behar duela, eta kitto. Uztailean eta abuztuan etxeko txikiak oporretan egoten dira, eskolako erritmoa apuratu egiten da, eta gehiago kostatzen zait entrenatzeko denbora hartzea, eurekin egon nahi izaten dudalako: hondartzara joan, bestelako planak egin... Horrek, noski, talka egiten du ondo entrenatu nahi izate horrekin, baina egoerara egokitzea tokatzen da".

Hal, aparteko ilusiorik egiten ez badio ere, denboraldiko bigarren zati horretan Ultra Trail du Mont Blanc (UTMB) barruko OCC lasterketa zeukan Kortazarrek buruan -55 kilometro-. "Distantzia horretan lasterketa hori egiteko daukat oraindik, baina egia esango dizut, Chamonixen egoten den giroak ez nau askorik erakartzen, ezta lasterketak berak ere. Lehena ere askotan egon izan naiz,



Ainara Urizarri. ARITZ GORDO



Malen Osa. LISE NEUKOMM

eta ez nau askorik motibatzen. Iristen da momentu bat non lasterketa baten inguruan sentitzen duzun *feeling* edo sentazioei garrantzia ematen diezula, baldintzatu egiten zaituztela, eta ez, lasterketa hori ez dago nire lehenetsun artean. Baina egia da Salomon etxea- rendako garrantzitsua dela proba hori, eta ulergarria da, oihartzun galanta daukalako. Alegia, talde bateko kide zaren neurrian, halakoak ere onartu egin behar dira. Niregatik balitz, Golden Traileko lasterketa bakarra ere ez nuke egingo, urteak egin ditudalako hor, baina Salomon da babesle nagusia eta bertako kide naiz. Kontua da iaz azken orduko batzuegatik ezin izan nuela OCC proban egon, eta bai, aurten bertan izango naiz".

Urizarri, lesiotik bueltan

Ainara Urizarrirendako (Oñati, 1997) 2023ak asko izan du gazi-gozotik. Brooks taldeko atletak oso ondo hasi zuen urtea; besteak beste, Portugalen Goldenetako Louzango lasterketa irabazi zuen, Euskal Herriko txapelketan – Kilimon Trail- txapelkunorde izan zen, Zegama-Aizkorren ere aurreikusitako denbora egin zuen (5.29.42)... baina ekainean Vall d'Arango lasterketan be- launak nahikoa zela esan zion. "Mugimendu txar bat egin nuen, eta min hartu nuen. Lehenago- tik ere molestiekin nenbilen, ez zen lesio berria izan, baina fi-

sioterapiarekin, errehabilitazioa eginda... aurrera egitea lortzen nuen. Ahal nuen moduan iritsi nintzen helmugara, eta han hasi zen urtea okertzen. Abuztuan Alpeetara joan nintzen Brookseko taldekideekin; Sierre Zenal lasterketa egin nahi nuen, baina belauna ez neukan ondo, eta UTMBko ETC lasterketa ere ezin izan nuen egin [16 kilometro]".

Oñatiarrak etxera itzuli eta belauneko erresonantzia eginda ikusi zuen uste baino lesio larriagoa zeukala. "Golden nazionalako beste bi lasterketa egitea neukan buruan, finalean egon nahi nuelako, baina garbi neukan egoera hartan ezin nuela jarraitu". Eta ondoren etorri ziren belauneko tratamenduak: infiltrazioak, kartilagoan eta tendoian plasma jarri... Eta errehabilitazio lana. "Bi hilabetez geldu egin ondoren, ige-

"AURTEN NIRE KABUZ IBILIKO NAIZ KORRIKA, INOLAKO KONPROMISO BARIK"

AINARA URRUTIA

"IAZ DENBORALDI ERDIA MIN HARTUTA EGIN NUEN; POLIKI HASI NAHI DUT"

AINARA URIBARRI

rilekuan eta bizikletan hasi nintzen. Eta duela gutxi hasi naiz korrika apur bat egiten. Lehenengo korrikaldia abendu amaieran egin nuen; ordu erdi egingo nuen. Eta 4-5 hilabetez korrika egin gabe egon ostean, onartu behar dut barruak mugitu egin zitzaizkidala".

Urizarri aitortu du lesio horrek eman diola zer pentsatua: "Denok dakigu kirol jarduerak muturrera eramaten baditugu ez direla osasunerako onak. Hainbat medikurekin egin dut berba. Batzuek esaten dizute hobe duzula korrika egiteari uztea. Baina lasaitu nautenak ere egon dira, gauzak ondo egin ez gero korrika egiten jarrai dezakedala. Lan-kargak zainduta, lasterketa kopurua eta distantziak neurtuta... Eta haiei egin diet kasu. Gaur egun niretako oso garrantzitsua da mendian korrika egiten jarraitzea, bizitzeko modu bat da, eta dena bertan behera uztea... Oso gogorra izango litzateke".

Oñatiarra baikorra da 2024ra begira: "Badakit orain ezin ditudala astean 8 ordu korrika egin, bestelako entrenamenduak egin behar ditudala, baina garbi daukat lehiakorra izaten jarrai dezakedala. Golden nazionalako zirkuitua egin nahi dut, bospasei lasterketa, eta horien artean dago Aloñako Igoera. Gauza bat da, baina, egin nahi izatea eta beste bat da etxeko lasterketarako ondo prestatuta egotea".

Osa, arreta Goldenetan

Malen Osa (Oñati, 2002) da Salomon etxeak daukan beste erreferentziatzeko korrikalarie- tako bat. Oñatiarrak ere ez du 2023ko argi-ilunez zintzo berba egiteko arazorik. "Orokorrean, urte borobila izan da, baina pare bat estropezu izan ditut, eta une gogorrak bizi. Urtea oso indartsu hasi nuen; seguru- enik, indartsuegi. Lehen zatian Innsbruck-eko Munduko Txapelketa neukan buruan, eta, harako sailkatzeko, otsailean nuen Espainiako txapelketan ondo egon behar nuen. Eta behin sasoi puntua hartuta zaila da buruari geratzeko esatea, momentua aprobeztatu nahi izaten dugulako, baina etorkizunera- ko ikasgai ona izan zen hura. Urte hasierako lasterketetan oso errendimendu ona lortu nuen, baina helburu nagusira ez nintzen ondo iritsi; fisikoki

"TALDE BATEN EGOTEAK BADITU BETEBEHAR BATZUK, HALA DA"

OIHANA KORTAZAR

"AURTEN ZEGAMARA JOANGO NAIZ, BAINA PRESIO BARIK; EZ DA HELBURU NAGUSIA"

MALEN OSA

eta mentalki erretra iritsi nintzen. Gogoan dut egoera horri kosta egin zitzaidala buelta ematea, baina lortu nuen, eta urteko bigarren zatian Golden Traile- tan buru-belarri ibili nahi nuen. Eta lasterketa batzuetara za- lantza handiekin joan nintzen, lesioren bat tarteko, giharreta- ko arazoak... Halakoetan, mo- mentu garrantzitsu bat dato- rrela ikusten duzunean, eta gorputzak erantzuten ez duela ohartzun zarenean... Esaterako, Goldenerako finalean gertatu zitzaidan hori. Lasterketa au- rreko bi egunak oso gogorrak izan ziren, nahiz eta kanpotik ez diren ikusten. Bai, emaitza aldetik oso urte polita izan da, baina egon dira halako momen- tuak, bai".

Osak dagoeneko planifikatu du 2024a, eta ilusio berrituekin dago. "Lasterketei dagokienez, urte oso polita diseinatu dugu- la iruditzen zait, eta garbi dau- kat ez ditudala iazko akatsak errepikatu nahi. Epe luzerako korrikalaria izan nahi dut, eta, horretarako, orain egin beha- rreko lasterketa kopurua neur- tu egin behar dut. Golden Trai- leko zirkuituari emango diot lehenetsuna, Asiara joango naiz apirilean, Japonian eta Txinan lasterketa bana daudelako, eta han sailkapen orokorrera be- gira puntu kopuru polita batu nahiko nitzuke. Eta gero, Zega- man ere debuta egin nahi dut, jakinda ez dela helburu nagusia. Berez goiz da Zegamara joateko, baina horri ezetz esatea... Pre- siorik gabe joango naiz; goza- tzeraz. Badakit ez dela nire Ze- gama onena izango, baina, etorkizunean lasterketa hori irabazi nahi badut, pausoak poliki eman behar ditut".

Hain justu, aurten Aloñako Igoera Golden Trail zirkuitu barruan sartu dute, baina oñatiarrak aurreratu du ez dela etxeko lasterketako irteera puntuan egongo. "Iaz hirugarren urtez Aloña irabazi nuenean pentsatu nuen 2024an ez nuela lehiatuko, *stop* egiteko ordua zela, baina pena ere ematen dit. Edozelan ere, egia da nazioar- teko Goldenetan daukadala jarrita arreta, eta, hain justu ere, Aloñako Igoera jokatuko duten momentuan Asian egon- go naiz lehiatzen. Ikusle moduan lasterketarekin gozatu gura nuen aurten, baina kanpoan izango naiz".



Iazko sariketako irabazleak sari-banaketa ekitaldian. GOIENA

Maitasunari goxotasunez eta gordinkeriaz idatzita, askotariko erpinetatik

Beste pertsona bati zein nork bere buruari zuzendutako bost gutun "sakon" sarituko ditu Jardun Euskara Elkarteak 41. Amodiozko Gutunen Lehiaketan; otsailaren 14an, eguaztena, Bergarako Irizar jauregian egingo dute, 19:00etan, sari-banaketa ekitaldia

Aitziber Aranburuzabala Juldain
BERGARA

78 gutun eta 49 esaldi jaso dituzte, guztira, eta antolatzaileak "pozik" daude uztarekin. "Beste urte batzuetan saria jaso duen Ibon Segura Arkauz eskoriatzarren *Maita neurririk gabe, goza zoroen pare, amodioa muga dezakeenik ez baita, inor ez zoroen jabe* esaldia da epaimahaikideek nabarmendu dutena. Gutunei dagokienez, emakumezkoek idatzitakoak eta Gipuzkoatik bidalitako gutunak dira gehienak.

26 urte azpikoak dira jaso ditugun gutunen %64".

'Parte hartzaile berriaren saria'

Adierazle ona da datu hori, aurtun 41 urte bete dituen sariketarako belaunaldi gazteko idazleak erakartzen jarraitzen duela erakusten duelako. Hain justu, helburu horrekin sortu dute aurtun *Parte hartzaile berriaren saria*, Ibarako Saioa Etxegia Eizagirrek jasoko duena.

Sariketa estimatua eta berezia da hasiberriendako, baina baita

eskarmentua duten idazleentzako ere. Honela dio egubakoitzean sari nagusia jasoko duen Sara Aranburu Lasa ordiziarrak: "Tarteka parte hartu dut; pare bat urtetan bai. Gustukoa dut gaigatik; gozozalea naiz. *Amodiozko gutunak*-ek badu postretetik, azukre-koxkorretetik... Tentagarria niretzat; kar-kar-kar. Are gehiago, eskertzeak eta txalotzeak dira honelako ekimenak; aukera bat da, eta euskal kultura babes-teko modua". Aurrez saria irabazitakoa den Uharteko Iosune

de Goñi Garciak aurtun ere parte hartu du eta bigarren sari nagusia eskuratu du. "Aspalditik nenbilen neure buruari gutun bat idazteko ideari bueltak ematen, eta lehiaketara bidaltzea ondoren bururatu zitzaidan zerbait izan zen. Ez nuen lehiaketara berriz aurkezteko asmorik, baina, gutuna idatzi ondoren, bidaltzea erabaki nuen. Hala ere, sariketarako oso oroitzapen onak ekartzen dizkit".

Herriko idazleentzako ere "estimatu" da Jardunen sariketa; horren erakusle da aurtun 17 eskutitz jaso dituztela. Estreina-ko hartu du parte 16 urte dituen Eneka Mondragon Alberdik. "Lehiaketa polita iruditzen zait, parte hartzen dudana lehena aldia da, eta egindakoarekin oso pozik gelditu naiz". Bergarako da Gaztea saria eskuratu duen Aroa Elortza Payros; gutuna Herbehereetatik bidali badu ere, lan kontuak direla-eta atzerrian bizi da orain dela bi urtetik. "Sariketa berezia iruditzen zait niri ere, askotan amodioaren inguruan pentsatzean maitasun erromantikoa etortzen zaigulako burura, baina niretzat, beste esanahi bat hartzen duelako amodioak sariketara honetan".

Gutun "oso pertsonalak"

Maitasuna ulertzeko eta adierazteko askotariko moduak aurkitu dituzte gutunetan aurtun helduen epaimahaikide lanetan jardun duten Imanol Agirre idazleak, Zaloa Urain Kokein taldeko abeslariak, Oñatiko Maider Arregi bertsolariak eta iazko irabazle Iñigo Legorburuk eta baita gazteen epai-mahaia osatu duten Aranzadi ikastolako Anouk Roosek eta Iraia Garitaonandiak eta Ipintza Institutuko Kimetz Iraolak eta Yeray Meabek. *Zure gor-*

putza izenarekin sinatu du Sara Aranburuk lehen saria eskuratu duen gutuna. "Autoirudiarekin, sare sozialen presioarekin, anorexiarekin eta norbera den bezalakoa izatearekin lotutako sentimenduei buruz hausnartzen du. Debekatuta dagoena egiteko tentaldiaz; sareen sareez; gorputzarekin dugun harremanaz, imanaz; harekin harremantzeko marraz, mugaz. Sinadurak iradokitzen du gutuna gorputzaren beraren ikuspegitik idatzita dagoela, Uxuek bere buruari. Barne-hausnarketa bat da, gorputza mezuaren igorle gisa pertsonifikatuz. Gutunaren amaieran *zure gorputza* erabiltzeak lotura emozional eta sakona sinbolizatzen du idazten duen pertsonaren eta bere gorputzaren artean; haren buruarekiko harremanaren garrantzia islatzen du. Elikadura, nork bere buruaren zaintza eta korrika egitearen gaiak asko gustatzen zaizkit; ertzek, ordea, ez dute ezer onik ematen, eta horri buruz gogoeta egiteko buruketa moduko batean murgildu nintzen. Izan ere, anorexiaren gertuko egoerak pairatu dituzten lagunei haien kezkek entzuteak eta lagunartean gai horiei buruz hitz egiteak zer kontatua eman dit. Idaztea norbera eza-gutzeko modu bat izan daiteke, nahiz besteen lekuan jartzeko parada", dio Aranburuk.

Gaixotasuna da bigarren sari nagusia irabazi duen gutunaren gaia, Iosune de Goñik idatzi duena. "Orain dela bost urte, birus

**OTSAILAREN 14AN
IRIZAR JAUREGIAN,
19:00ETAN, EGINGO
DUTE SARI-BANAKETA
EKITALDIA**

AMAGOIA MUJIKA

'BERRIA' EGUNKARIKO ZUZENDARIA

GOIENA TELEBISTA, 'ELKARRIZKETTAP'

OTSAILAREN 14AN, EGUAZTENA, 19:30, 21:30 ETA 23:30

JONI UBEDA KAZETARIAK EGINDAKO ELKARRIZKETA



DESKARGATU
GOIENA
APLIKAZIOA

goiena
Zu hemen zaude.



bat hartu ondoren, oso gaixorik jarri nintzen, eta nire bizitzaren ardatza osatzen zuten gauza guztiei uko egin behar izan nien: doktoregoa, harreman sozialak, argazkilaritza, naturarekiko harremana... Askokostatu zitzaizkidan erantzunak lortzea, eta momentu hartan, sufrimendu fisikoaz gain, oso beldurtuta eta galduta nengoen. Eskutitza gaixotu berri zen Iosune hari idatzi nion, eta etorkizunetik iraganera doan besarkada baten modukoa dela pentsatzea gustatzen zait. Idatzi nuenean gripearekin nengoen, eta, agian, horrek prozesua zaildu baino gehiago, erraztu egin zuen, iraganeko Iosune horren gana hurbildu ninduelako", azaldu du Iosune de Goñik.

Bergarar onenaren saria irabazi duen Eneka Mondragon Alberdik ere "argi" zuen hasieratik kontu pertsonal bati buruz idatziko zuela. "Neure buruari idazten diot; orain dela 10 urteko neure buruari, hain zuzen ere. "Gaia hasiera-hasieratik oso argi nuen, niretzako izatea nahi nuen, zerbait pertsonala. Nola idazteak kendu dit denbora luzeagoa. Dena antolatutakoan, hamar minutuan idatzi nuen. Eskerrak eman nahi dizkiot irakasle bati, bereziki, hura izan baitzen bultzatu ninduen gutuna idaztera".

Barrutik idatzitakoa da Aroa Elortzarena ere, orain dela urte batzuk hil zen Luis Mari aitaitari zuzendutakoa: "Modu batera edo bestera, nire bi aitaiten heriotzak elkartuak idatzi dut gutuna. Luis Mariri idatzita dago, baina orain dela gutxi hil zen Luis aitaitaren heriotza oinarri hartuta. Sentimenduak altuan esan ordez orri zurietan idaztekoa naiz, eta ikasteko baliotza izan dit".



SARA ARANBURU

"Aitzakia ona da hitzekin jolasteko"

SARA ARANBURU LEHEN SARIAREN IRABAZLEA

Euskarazko irakasle ordiziarak irabazi du aurtengo sari nagusia.

Pozik sariarekin?

Gustura jasotzen dira horrelakoak. Hitzekin jolasteko aitzakia ona izaten da; asko gozaten dut prozesuan.

Zeure buruari idatzi diozu gutun irabazlea.

Bai; barne-hausnarketa bat da, gorputza mezuaren igoerle gisa pertsonifikatuz.

Zenbat gutun bidali dituzu?

Sei bidali nituen; a ze husteko gogoia!

Sari-banaketa ekitaldira joateko asmorik?

Bai; gustura, gainera. Horrelako ekitaldiak politikak eta interesgarriak izaten dira: zaletasun bera dutenekin elkartu, haiek ezagutu, besteenak entzun... Sare moduko bat sortzen da horrelakoetan, eta gustatzen zaizkit.



AROA ELORTZA

"Zirrara sortu dit gazteek saritzeak"

AROA ELORTZA GAZTEA SARIAREN IRABAZLEA

Gaur egun Herbehereetan bizi den bergararren gutuna saritu du gazte epaimahaiak.

Zorionak! Pozik?

Beti ematen du poza norbere lanek saria jasotzeak, baina zirrara berezia sortu dit gazteek aukeratutako gutuna nirea izateak, gazteekin konektatzea lortu dudala erakusten baitu horrek.

Aitaita bati idatzi diozu, zure beste aitaita gogoan hartuta.

Modu batera edo bestera, bi heriotzak elkartuak idatzi dut gutuna, bai.

Bakarra bidali duzu?

Ez, bi bidali nituen; aurrez idatzitakoak biak.

Zaila izango duzu eguazteneko ekitaldira joateko, ezta?

Bai, baina nire lagun min Andrea Gonzalez prest dago ekitaldian ordezkari lanak egiteko.

AEDk gazteentzako aurtengo literatura lehiaketa abiarazi du

Sei kategoria daude: ilustrazioak, bertso-paperak, narrazioak, komikiak, poesiak eta mikro-ipuina

A. Aranburuzabala ARRASATE LH-5 eta DBH-2 artekoek ilustrazioak, bertso-paperak eta narrazioak bidaltzeko aukera izango dute; DBH-3 eta batxilergoko bigarren maila artekoek eta erdi mailako heziketa zi-

kloetako bigarren maila artekoek, komikiak, poesiak eta mikro-ipuina.

Bertan parte hartzeko azken eguna martxoaren 19a da, martitzena. Hemen bertan daude oinarriak eta informazio gehia-

go: [Arrasateliteraturlehiaketak.wordpress.com](https://arrasateliteraturlehiaketak.wordpress.com).

Herriko sortzaileekin bat Maiatzaren 2an egingo dute sari-banaketa ekitaldia, eta Julen Ribas komikigilea gonbidatu dute. Herriko gazte sortzaile gehiagok kolaboratu dute lehiaketaren prestaketetan: Helena Azkarragaurizar marrazkilaria; iazko mikro-ipuina irabazletako bat izan zen Kepa Petrandak eta Danel Ezpeleta argazkilaria.

Goienakideen txokoa

OTSAILEKO SARIAK



Sarrerak

Arrikutz kobak bisitatzeko, sarrerak. Parte hartzeko sariaren izena: Arrikutz

ARRIKUTZ
GRATIKO O BAK

Otarrea

Bidezko merkataritzako produktuak. Parte hartzeko sariaren izena: Otarrea

www.harremandenda.org
Bidezko Merkataritza Produktuak

PARTE HARTZEKO:

Posta elektronikoz: goienakide@goiena.eus Whatsapp: GOIENAKIDE "sariaren izena" [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakia

"goiena app"-a / zozketa atalean. Parte-hartzailean arloan egingo da zozketa. Inkarne dagin (DNI 15/1996) legaren arabera jakinarazteko; zure datu pertsonalari Goiena Foruakiko Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuta dago. Datu biltegiziaz/leku bakoitzean indararen dagin sustapena goienakide@goiena.eus. Eskubide orokorrak: <https://www.goiena.eus/txostatu>

Irabazi bi lagunendako otordua

TARTUFO JATETXEARI ESKER

Begiratu Puntuak aldizkariako Otorduan atala eta hartu parte! Parte hartzeko azken eguna: otsailak 13



goienakide@goiena.eus



"Goiena app"-a / zozketa atalean.



GOIENAKIDE Jabetzea [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.



Puntuak aldizkaria jasotzeko, zozketetan parte hartzeko eta txartel digitalaren abantailaz gozatzeko...



2024KO GOIENAKIDE KUOTA: 65€
Deitu: 943 25 05 05 • goienakide@goiena.eus



DESKARGATU GOIENA
APLIKAZIOA

goiena"
kide

Okm: batzen gaituen distantzia

IRAGARKI SAILKATUAK

1. ETXEBIZITZAK

102. EROSI

Etxebizitza erosiko nuke Bergaran. Etxea erosiko nuke Bergaran. 3 logela eta igogailua izatea gustatuko litzaidake. Mabxiategi, Cristobrore eta Emai kale inguruetan. Telefonoa: 673 35 95 98

104. ERRENTAN HARTU

Pisu bila Arrasaten. Alokairuan hartzeko 3 logela dituen pisu bila nabill Arrasaten. Lan kontratu finkoa dut eta pertsona oso arduratsua naiz. Deitu telefono honetara: 633 05 22 60

2. GARAJEAK

203. ERRENTAN EMAN

Arrasaten garajea errentan eman. Arrasateko Olatre kalean garaje itxia errentan ematen da. Interesatuak deitu zerbaki hauek. 660 80 09 62 Ana edo 658 75 94 31 Josetxu

4. LANA

401. ESKAINTZAK

Debagoiena. Emakume pertsona nagusiak zaintzeko gertu. Etxean bertan bizi izaten edo beste la. Soziosanitario ikasketak ditut. 643 50 56 62

402. ESKAERA

Arrasate eta Oñati. Etxean bertan bizi izaten edo bestela lan egingo nuke. Nagusiak zaintzeko gertu. Soziosanitario titulua dut. 632 86 23 69

Arrasate, Aretxabaleta edo Eskoriatza. Astelehenetik ostiralera, 9:30etatik aurrera pertsona nagusien zaintzan lan egingo nuke. Soziosanitario ikasketak eta legezko agiriak ditut. Telefonoa: 689 50 70 54

Arrasate, Berga eta Oñati. Emakumea pertsona nagusiak zaindu eta garbiketa lanak egiteko prest. Astean zehar

zein asteburuetan orduka lan egingo nuke. Soziosanitario ikasketak ditut. Telefonoa: 695 12 06 79

Arrasate. Astean zehar, asteburuetan eta gauetan orduka lan egingo nuke. Garbiketa lanak egingo nituzke, baita nagusiak zaindu eta konpainia egin ere. Soziosanitario titulua dut. 634 94 30 78

Arrasate. Esperientzia handiko emakumea garbiketa lanak egiteko gertu. Astean behin lan egingo nituzke. Malgutasuna. 612 51 42 99

Bergara eta Arrasate. Orduka lan egiteko prest dagoen emakumea. Pertsona nagusiak zaindu eta garbiketa lanak egingo nituzke. Malgutasuna. 631 90 15 92

Debagoiena. Persona nagusiak zaintzen, gabiketa lanetan edota sukaldari lanetan jarduteko prest nago. Soziosanitario titulua daukat. Telefonoa: 602 87 65 07

Debagoiena. Astean zehar zein asteburuetan lan egingo nuke, orduka, pertsona nagusien zaintzan eta garbiketa lanetan. Legezko agiriak eta soziosanitario ikasketak ditut. Deitu telefono zerbaki honetara: 666 16 95 62

Debagoiena. Astelehenetik ostiralera bitartean, goizez zein arratsalde, etxeetan zainatza lanak egingo nituzke. Soziosanitario titulua dut eta behar izanez gero, gomendio gutunak aurkeztu ditzazket. Deitu telefono zerbaki honetara: 647 31 48 17

Debagoiena. Astelehenetik ostiralera garbiketa lanetarako, edo etxeetan pertsonak zaintzeko gertu nago. Lanaldi osoa edo orduka lan egin dezaket astelehenetik ostiralera bitartean. Soziosanitario titulua dut. Erreferentzia ezin hobekak ditut. Deitu 641 10 95 67 zerbakira.

Debagoiena. Emakumea gertu nagusiak zainduko. Legezko agiriak ditut. Soziosanitario tituluduna. 677 00 90 26.

Debagoiena. Emakumea nagusiak zaindu eta ospitalean zainatza egiteko prest. Garbiketa lanak ere egingo nituzke. Malgutasuna, astelehenetik ostiralera zein asteburuetan. Interesa duzenok, deitu zerbaki honetara. Telefonoa: 666 07 42 98

Debagoiena. Emakumea prestlarunbat eta igandetan nagusiak zaindu zein garbiketa lanak egiteko. 641 44 16 30

Debagoiena. Emakumezkoa etxeen garbiketa egin eta nagusiak zainduko prest. Egunean zehar edo gauzez lan egingo nuke. 691 28 53 25

Debagoiena. Emakumezkoa nagusiak zaindu eta garbiketa lanak egiteko prest. Soziosanitario titulua daukat. Interes duenak 64395527 zerbakira deitu dezala

Debagoiena. Emakumezkoa pertsona nagusiak zaindu eta garbiketa lanak egiteko prest. Etxean bertan bizi izaten edo orduka, astean zehar zein asteburuetan lan egingo nuke. Soziosanitario ikasketak ditut. 658 92 43 73

Debagoiena. Emakumezkoa prest nagusiak zaindu, garbiketa lanak, etab egiteko. Astelehenetik ostiralera, goiz zein gauzez (arratsaldeak okupatuta). 647 314 817

Debagoiena. Esperientziadun neska nagusiak zainduko edo garbiketa lanak egiteko gertu. Interesatuok deitu telefono honetara: 697 86 49 00

Debagoiena. Etxean bertan bizi izaten edo bestela lan egingo nuke, astean zehar zein asteburuetan. Pertsona nagusiak zaindu eta garbiketa lanak egiteko gertu. 602 82 99 55

Debagoiena. Etxean bertan bizi izaten edo orduka, astean zehar eta asteburuetan, egunez zein gauzez lan egingo nuke. Pertsona nagusiak zaindu eta garbiketa lanak egiteko prest. Soziosanitario titulua dut. Telefonoa: 626 91 49 04

Debagoiena. Etxean bertan bizi izaten edo orduka, astean zehar zein asteburuetan lan egingo nuke. Pertsona nagusiak zaindu eta garbiketa lanak egiteko prest dagoen emakumea. Deitu 631 96 46 33 zerbakira.

Debagoiena. Etxean, hotelen, tabernen, garbiketarako egin, nagusiak zaindu eta ostalaritzan lan egingo nuke. Esperientzia dut, baita malgutasuna ere. Interesatuok deitu telefono zerbaki honetara 631 91 71 69

Debagoiena. Garbiketa lanak egiteko prest nago. Interesatuok deitu telefono zerbaki honetara 688 65 32 00

Debagoiena. Nagusiak zaindu lan egingo nuke. Orduka edo etxean bertan bizi izaten. Deitu 624 09 66 51 zerbakira.

Debagoiena. Gizonezkoa nagusiak zainduko prest, gizonezkoak badira hobe. Orduka edo etxean bertan bizi izaten. Deitu 614 11 43 60 telefono zerbakira.

Debagoiena. Garbiketa lanak egin eta pertsona nagusiak zainduko prest dagoen emakumea. Soziosanitario ikasketak ditut eta legezko agiriak. Goizez zein arratsalde lan egin dezaket. Telefonoa: 641 51 13 06

Debagoiena. Gizonezkoa pertsona nagusiak zainduko gertu. Base-rietan lan egiteko prest. Legezko agiriak ditut, baita soziosanitario titulua ere. 632 76 59 52

Debagoiena. Goiz, arratsalde eta gauetan, orduka, lan egingo nuke. Ume zein nagusiak zaindu eta etxeen garbiketa egiteko prest. Neska gazte eta arduratsua naiz, esperientzia askoduna. Telefonoa: 672 78 04 30

Debagoiena. Goizetan, zainatza lan egingo nituzke. Interesatuok deitu telefono zerbaki honetara 651 96 78 69

Debagoiena. Pertsona nagusiak eta umeak zaindu eta garbiketa lanak egiteko prest dagoen emakumea. Etxean bertan bizi izaten edo orduka lan egingo nuke, astean zehar zein asteburuetan. 602 82 64 84

Debagoiena. Nagusiak zainduko nituzke arratsaldetan. Legezko agiriak eta soziosanitario ikasketak eginak ditut. Deitu 634 02 11 87 telefonora.

Debagoiena. Nagusiak zaindu, garbiketarako egin edo beste edozein lan egiteko prest nago. Telefonoa: 672 96 46 49

Debagoiena. Neska atsegina, umeak eta nagusiak zaindu eta garbiketa lanak egiteko prest. Malgutasuna osoa. 687 45 91 76

Debagoiena. Pertsona nagusiak edo haurrak zainduko nituzke. Garbiketa lanak egiteko gertu, etxe zein enpresetan. Azalera handiko garbiketarako egiteko titulua dut. Malgutasuna. Interesatuok deitu telefono honetara 602 44 48 98

Debagoiena. Pertsona nagusiak eta umeak zaindu eta garbiketa lanak egiteko prest dagoen emakumea. Astean zehar zein asteburuetan lan egingo nuke orduka. Soziosanitario titulua ateratzen ari naiz. Interesatuok deitu telefono zerbaki honetara 612 56 12 39

Debagoiena. Pertsona nagusiak eta umeak zaindu eta garbiketa lanak egiteko prest dagoen emakumea. Etxean bertan bizi izaten edo orduka lan egingo nuke, astean zehar zein asteburuetan. Interesatuok deitu telefono zerbaki honetara 632 63 77 38

Debagoiena. Pertsona nagusiak eta umeak zaindu eta garbiketa lanak egiteko prest dagoen emakumea. Etxean bertan bizi izaten edo orduka lan egingo nuke, astean zehar zein asteburuetan. Interesatuok deitu 632 19 08 26 zerbakira

Debagoiena. Pertsona nagusiak zaindu eta garbiketa lanak egiteko prest dagoen emakumea. Etxean bertan bizi izaten edo orduka, astean zehar zein asteburuetan lan egingo nuke. Telefonoa: 604 23 85 31

Debagoiena. Pertsona nagusiak zainduko nituzke orduka, astean zehar edo asteburuetan, egunez zein gauzez. Legezko agiriak eta soziosanitario titulua ditut. Deitu 602 01 32 58 zerbakira

Debagoiena. Pertsona nagusiak zaindu eta garbiketa lanak egiteko prest dagoen emakumea. Etxean bertan bizi izaten, orduka edo asteburuetan lan egiteko gertu. Soziosanitario titulua dut. Interesatuok 747 45 08 06 telefono zerbakira deitu

Debagoiena. Pertsona nagusiak zaindu eta garbiketa lanak egiteko prest dagoen emakumea. Etxean bertan bizi izaten, orduka edo asteburuetan lan egiteko gertu. Soziosanitario titulua dut. Interesatuok 627 28 06 82 telefono zerbakira deitu

5. IRAKASKUNTZA

501. JASO

Eskola partikularrak jaso Oñatin. Babxergoko lehenengo mailako ikasle batek matematikako eskola partikularrak behar ditu Oñatin, ahalik eta azkarren. Deitu 656 75 38 26 zerbakira.

8. DENETARIK

806. GALDU

Astore jaka. Zapatuan Astore etxeko jaka galdu nuen. XL neurriakoa eta beltza. Aurkitu baduzu 667 95 73 16

ZORION AGURRAK



BERGARA
Danel Olabarria
15ean, 4 urte.

Zorionak! 4 urte zure alaitasunaz gozatzen! Primeran pasau zure eguna! Besarkada bat etxekuen partetik, bereziki Martin eta Suan partetik.



BERGARA
Libe Garitaonandia
10an, 3 urte. Zorionak, politxo! Primeran pasau zure urtebetetze eguna. Asko maitxe zaitzugu. Patxo haundi bat etxeko danon partetik. Muaaa!



ARRASATE
Malen Zugasti Larrañaga
Otsailaren 10an, 7 urte. Zorionak, potxoli! 7 urte ia! Segi holako jatorra izeten! Disfrutau zure eguna mozorruen artian. Muxu familiaz partetik.



ARETXABAETA
Haizea Azkarate
Bilbao

10an, 10 urte. Zorionak! Ederto pasau zure hamargarren urtebetetze eguna! Besarkada estu bat eta patxo pilo bat danon partetik!



ARAMAIO
Bidane Larrañaga
Ibarguren

9an, 6 urte. Zorionak, Bidane! Jarraituz zoriontasun horrekin! Asko maitxe zaitzugu lastana! Familia danon partetik. Patxo potolo bat!



BERGARA
Jon Aranzabal
Elkoroberezibar

Otsailaren 8an, 9 urte. Zorionak! Patxo handi bat amamaren, osaba-izeben eta lehengusuen partetik.



ARRASATE
Garazi Bragado
Alvarez

7an, 10 urte. Zorionak gure etxeko pirata handiari! Dagoeneko bi eskuak bete atzamar egin dituzu, zerbaki borobila! Muxu handi bat etxekoon partetik!



OÑATI
Aiur Olasagasti
Bernal

Zorionak, matte! Zelako aguro pasaitzen dan denbora! Segi zure irribarriakin gure bizitzak alaitzen! Izugarri maitte zaitzugu ilargiraino eta bueltan!

IRAGARKIA JARTZEKO:

943 25 05 05

SAILKATUAK@GOIENA.EUS

WWW.GOIENA.EUS/SAILKATUAK

• Eguazteneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.

• Hortik aurrera ez da onartuko aldaketarik, ez eta iragarkia bertan behera uzterik ere.

• GOIENAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

ORDAINTZEKO ATALAK:

• Etxebizitza Saldu/Errentan.

Garajea Saldu/Errentan.

Lokala Saldu/Errentan.

Irakaskuntza eman.

Motorra Saldu/Alokatu.

Animaliak/Saldu.

Denetarik/Saldu.

• Iragarkiak Goiena paperean eta Goiena.eus-en argitaratuko dira.

• Astebeteko prezioa: 20 euro 18 euro Goienakideko bazkideentzat (BEZ barne).

• Astebete baino gehiagoz argitaratzeko, prezio bereziak aplikatuko dira.

• Profesionalen moduluak.

• Modulo bakarra: 25 euro (+BEZ).

Korosti
Inmobiliaria

Bergara:
Zubiaurre, 61m²
erabilgarri, 2 logela,
balkoia eta argi natural
askorekin.
120.000€



Antzuola: Irimo Barrena,
425m² erabilgarri,
herrigunetik gertu eta
bista garbi ikusgarriekin.
Bizitzeko aproposa.
190.000€

Bergara: Iriburu,
73m² erabilgarri, oso
eguzkitsua eta
kanpoaldekoa. Igogailua
duen eraikinean kokatua.
165.000€

Ibargarai 3 BERGARA
Tel.: 943 76 97 97
www.inmokorosti.com

Informazio
gehiago:



ASTEA GOIENA TELEBISTAN



ELGETAKO ALKATEARI ELKARRIZKETA

Ibon Unzetabarrenetxea elkarrizketatuko du Goiatz Aranak, kargua hartu eta zazpi hilabetera.

'Harira' Egubakoitza, 18:20, 20:20 eta 22:20



ARATUSTEAK DEBAGOIENEAN

Urteko jai koloretsuenak bailaran emandakoaren errebasoa egingo dute.

'Hemen Debagoiena' Astelehena, 18:00, 20:00 eta 22:00



SAUDI ARABIA EZAGUTZEN

Han bizi den Ibon Etxabari bergararrarekin egingo du berba Eneko Azurmendik.

'Debagoiendarrak mundutik' Martitza, 18:00, 20:00 eta 22:00



ARATUSTEAK DEBAGOIENEAN

Mozorro ikusgarrienak, protagonisten hitzak eta lehiaketetako irabazleak, erreportaje berean.

'Jaiak' Martitza, 19:00, 21:00 eta 23:00



AMAGOIA MUJIKARI ELKARRIZKETA

Joni Ubeda kazetariak elkarrizketatuko du Berria egunkariko zuzendaria.

'Elkarrizketa' Eguaztena, 19:30, 21:30 eta 23:30



GOIENA TELEBISTA NAHIERAN:
goiena.eus/telebista
Edo eskaneatu aldameneko qr kodea.

OROIGARRIA



Axun Uriarte Ugarte

Angel Mari Zubiaren alarguna

2024ko urtarrilaren 31n hil zen, 76 urte zituela.



Zurekin pasatutako momentu onak gurekin gelditu dira.
Beti egongo zara geure bihotzetan.

Zure lagun Mari Angeles, Merche, Dorita,
María Luisa, Lurdes eta Rosarito.

Oñatin, 2024ko otsailaren 9an

OROIGARRIA



Javier Larrañaga Gallastegui

2024ko otsailaren 3an hil zen, 92 urte zituela.



Zenbat atsalde eder ataixan jarrita elkarrekin,
Umore ona, patxara eta kontuak beti presente zurekin,
Zugandik ikasia eta zurekin gozatua betirako gurekin.
Muxu haundi bat tío Javier.

Zure ilobak.
Bergaran, 2024ko otsailaren 9an.

URTEURRENA

Eder Pagaldai Perea

2020ko otsailaren 14an hil zen, 29 urte zituela.



Beti izango zara gure bihotzean, Eder.
Asko maite zaitugu.

Zure familia.
Eskoriatzan, 2024ko otsailaren 9an.

MEZA

Maritxu Arkauz Urzelai

2024ko urtarrilaren 27an hil zen, 90 urte zituela.



Lerro hauen bidez Maritxuren sendiak eskerrak eman nahi
dizkizuegu, bihotz-bihotzez, horrenbeste eratan maitasuna eta
elkartasuna erakutsi diguzuen guztioi.

Haren aldeko ondra-meza zapatuan izango da, otsailaren 10ean,
19:30ean, Oñatiko Agustindarren elizan.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.
Oñatin, 2024ko otsailaren 9an.

HILDAKOAK

- Jose Maria Lazcano Aspe.** Aretxabaletan, otsailaren 1ean. 92 urte.
- Beatriz Errasti San Miguel.** Arrasaten, otsailaren 2an. 79 urte.
- Isabel Maria Algaba.** Arrasaten, otsailaren 3an. 88 urte.
- Iñaki Corral Ezcurra.** Arrasaten, otsailaren 4ean. 58 urte.
- Ambrosio Goiekoetxea Martinez.** Arrasaten, otsailaren 6an. 81 urte.
- Isabel Rocha Leon.** Arrasaten, otsailaren 7an. 88 urte.
- Fabiola Bravo Agüero.** Bergaran, otsailaren 3an. 80 urte.
- Julian Arana Ariznabarreta.** Bergaran, otsailaren 5ean. 89 urte.
- Javier Larrañaga Gallastegui.** Bergaran, otsailaren 4ean. 92 urte.
- Axun Uriarte Ugarte.** Oñatin, otsailaren 1ean. 76 urte.
- María Luisa Mediavilla Sainz.** Oñatin, otsailaren 5ean. 76 urte.

BERRI-ZAKUA



Xoxoten
Ipintza institutuko batxilergoko bigarren mailako Jarduera Fisikoa, Aisia eta Osasuna ikasgaiko ikasleak Xoxoten egon dira: batzuk elurretan eta besteak mahuka motzean eskalatzen.

Oroilore
Hileta zerbitzuak

Maitasunez bizi,
maitasunez agurtu

Gure artean agurtutako guztiei
euren bidez aurrizten lagundu
diegu, orain arte bezala, eta guztiek
izango dute agur berezia Oroiloren.

Gure eskerrik beronenak gagan
izan dituzten konfiantzagarriak eta
maitasunagatik.

Mario, Iban, Maribi eta Cristian

617 44 21 55
BERGARA • ANTZUOLA • Moyua OÑATI

BABESLEA

AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTENEKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 25 05 05 / kultura@goiena.eus

EGUBAKOITZA 9

OÑATI Inauteriak ikastetxeetan
11:00etan hasita, Urgain-Errekalden; eta 15:00etan, Txantxiku Ikastolan.
Oñatin.

ELGETA Aratuste-barikua
Escolako umeen kalejira, eta gero gerokoak.
Elgetan, 15:30ean.

ARAMAIO Korrikako arropasalmenta
16:30ean, kultura etxeko sarreran; eta 18:00etan, erretiratuen elkartearen sarreran.
Aramaion.

ANTZUOLA 'Azken festa' ikuskizuna
Tomaxen Abenturak pailazo taldearekin.
Torresoroan, 17:00etan.

ARETXABALETA Aratuste-egubakoitza
Egubakoitz Argal jaia, Leizarra musika eskolak antolatuta.
Ibarra kiroldegian, 18:00etan

ARETXABALETA M8: batzarra
Batzar ez-mistoa deitu du Atxabaltako Mugimendu Feministak.
Udaletxe zaharrea, 18:00etan.

OÑATI EH Bilduren herri batzarra
Hainbat gai landuko dituzte; besteak beste, Debagoiena Eskualde Proiektuaren azalpena.
EH Bilduko bilgunea, 18:00etan.

ARRASATE Aratuste kontzertua
Arrasate Musikaleko ikasleak.
Amaia antzokian, 18:30ean.

ARAMAIO Aratusteak: euskal dantzak
Euskal Herriko hainbat txokotako dantzak egingo dituzte Lagun Artean dantza taldeko dantzariak.
Aramaion, 19:00etan.

ARRASATE 'Memorias de la mar ciega' liburuaren aurkezpena
Josu Arteaga egilea egongo da ekitaldian, Patxi Irurzunekin.
Kulturaten, 19:00etan.

ESKORIATZA 'Zinemaren festa' kontzertua
Beheko Errota musika eskolako bandaren Aratuste kontzertua.
Zaldibarren, 20:00etan.

ARRASATE Elkartasun kontzertua
Goikobaluren, Goikobalu Txikiren eta Arrasate Gazte Abesbatzaren emanaldia, Mozambikeraren eta Indiaren alde.
Parrokian, 20:00etan.

BERGARA Aratuste kontzertua: 'Bixamona erdi aroan'
Bergarako Musika Bandaren eta Bergarako Orkestra Sinfonikoaren emanaldia. Sarrerak, zortzi euro.
Udal pilotalekuan, 22:30ean.

ZAPATUA 10

OÑATI Oñatiko Inauteriak
10:00etan, Eltziatik aterako dira; 13:30ean, goizeko konpartsaren amaiera, Foruen plazan; 17:00etan, arratsaldeko konpartsaren hasiera, Zubikoa kiroldegian; eta 20:00etan, Oñatiko Inauterien amaiera ekitaldia, Foruen plazan.
Oñatin.

ANTZUOLA Aratuste-zapatua
10:30ean, Oinarin dantza taldearen kalejira, txistulariekin batera. Eurekin ibiliko dira Hartza, Tximinoa eta Hezitzailea; 12:30ean, dantza saio nagusia; 14:30ean, bazkaria; eta 18:00etan, Sutan txaranga.
Antzuolan.

ARRASATE Aratuste-zapatua
12:00etan, pregoia, eta ostean, desfilea; 13:00etan, mozerro lehiaketako sari banaketa; 18:00etan, kale animazioa Arrasate Musikaleko txarangarekin; 19:30ean eta 22:30ean, Bide Batez taldearekin dantzaldia.
Arrasaten.

LEINTZ GATZAGA Aratuste-zapatua
12:00etan, herri kirolak; 13:00etan, pintxo lehiaketa; 14:30ean, bazkaria; eta 17:00etan, musikarekin girotutako arratsalde-pasa.
San Migel plazan.

ESKORIATZA Aratuste-zapatua
12:30ean, Ad Libitum txaranga; 13:00etan, trikitilariak eta mozerro desfilea; 14:30ean, herri bazkaria; 16:00etan, DJ Moto; 18:15ean, mozerro lehiaketako sari banaketa; eta 18:30ean, Laket taldea.
Fernando Eskoriatza plazan.

ARAMAIO Aratuste-zapatua
17:30ean, kalejira; 18:00etan, mozerro lehiaketa eta txokolate-jana; eta ostean, disko festa.
Aramaion.

BERGARA Pirritx, Porrotx eta Marimotots
Ez gara jaitsiko! ikuskizuna egingo dute. Sarrerak, sei euro.
Udal pilotalekuan, 18:00etan.

BERGARA Tekno gaua
Jon Malax, Elaine MRK, Anomalia, Alexander M, Ima eta Zumi. Sarrerak, bost euro.
Kartzela zaharrea, 21:00etan.

DOMEKA 11

ARETXABALETA Aratuste-domeka
10:00etan, diana; 11:45ean, txino dantza; 12:00etan, desfilea; 13:00etan, kalejira; 14:30ean, herri bazkaria kiroldegian; 15:00etan, bazkari *golfoa* Iturrigorri; 18:00etan, DJ Mikeltxi; 18:45ean, sari banaketa; eta 19:00etan, Santa Ageda neska-mutilen dantza saioa.
Aretxabaletan.

OÑATI Urrezko Aizkora
Finalerdiak jokatuko dituzte. Eurria bada, Zubikoako pilotalekuan.
Foruen plazan, 12:00etan.

BERGARA Txistulari banda
Aratusteetako emanaldia.
Osoko bilkuren aretoan, 13:00etan.

ARRASATE Familian Jolasean ekimena
0-8 urte artekoendako.
Okendoko ludotekan, 17:30ean.

OÑATI Bolant dantzak
Oñatz dantza taldearen eskutik, Aita Madina txistulari taldearekin eta akordeoi jotzaileekin.
Oñatin, 18:00etan.



KATXIPORRETA

BERGARA 'Ez gara jaitsiko!' ikuskizuna
Pirritxek, Porrotxek eta Marimototsek geldialdia egingo dute Aratusteetan. Zuhaitz gainetara igoko dira, natura zaintzearen garrantzia aldarrikatzeko. Sarrerak, sei euro.
Bihar, zapatua, pilotalekuan, 18:00etan.

BERGARA Erraldoiak eta txistulari banda
Aratusteak.
Bergaran, 18:30ean.

ESKORIATZA Santa Ageda neska-mutilen dantzak
2006an jaiotakoen emanaldia.
Fernando Eskoriatza plazan, 19:00etan.

ARRASATE 'Esnearen kolorekoa' antzezlan
Tanttaka Teatroyen lana. Mireia Gabilondo, Jose Ramon Soroz eta Jon Olivares oholta gainean. Sarrerak, hamar euro.
Amaia antzokian, 19:30ean.

ASTELEHENA 12

DEBAGOIENA Pentsiodunen elkarretaratzea
Pentsio duinak eskatuko dituzte Antzuolan, Arrasaten, Oñatin eta Bergaran.
Herri horietan, 12:00etan.

ARRASATE 'Txotxongiloen ametsa' erakusketa
Corrado Massaciren bilduma, martxoaren 2ra arte.
Kulturaten, 17:00etan.

OÑATI Xomorroi buruzko erakusketa eta liburu aurkezpena
Xomorroiak. Animalia txikiak, ikuskizun handia da erakusketa eta *Arraio tximista* liburua.
Kultura etxean, 18:00etan.

OÑATI 'Oñatiko emakume mojen izaera, bizimodua eta ekarpena, ikuspegi feministatik' ikerketa lanaren aurkezpena
Selma Huxley Barkham ikerketa bekaren III. edizioko lana.
Santa Ana antzokian, 18:30ean.

MARTITZENA 13

DEBAGOIENA EITBra eta Itsasmuseumera bisita
Goienagusiren eskutik. Autobusa Eskoriatzatik irtengo da eta herririk herri geldialdiak egingo ditu.
Eskoriatzan, 08:00etan.

OÑATI Aratusteak ikastetxean
Elkar Hezin ospatuko dituzte gaur.
Elkar Hezin, 10:00etan.

ARETXABALETA Aratuste-martitzena
11:00etan, kalejira Irulitxa txarangarekin; 18:00etan, buruhandiak eta Irulitxa txaranga; eta 20:00etan, Txinen hileta.
Aretxabaletan.

ARAMAIO Aratusteak San Martin Eskolan
Kalejira, ikuskizuna eta txokolate-jana. Eguraldi txarra bada, frontoian egingo dute ekitaldia.
Bizente Goikoetxea plazan, 14:30ean.

BERGARA Musika eskolako banda gaztearen kalejira
Aratusteak.
Bergaran, 16:30ean.

OÑATI Aratuste-martitena

17:00etan, *Txaplin* pailazo ikuskizuna Zubikoan; 18:00etan, Elkartasun txokolate-jana, Oñatiko elizbarrutiko misio taldeak; eta ordu berean, erraldoiak eta buruhandiak eta disko festa Foruen plazan. *Oñatin*.

ARRASATE Aratuste-martitena

17:00etan, disko-festa; 17:00etan, *Azken festa* ikuskizuna; 17:30ean, Samasiku txarangaren kale-animazioa; 18:00etan, erraldoien eta kilikien konpartsaren kalejira; 19:30ean, Nemux taldea; eta 21:00etan, sardina-ehorzketak. *Arrasaten*.

ARAMAIO Aratuste tailerrak

Maskarak eta kariokak egiteko. 5 urtetik beherakoak, heldu batekin. *Ludotekan, 17:00etan*.

ARRASATE 'Nagusiendako laguntza digitala' hitzaldia

Begoña Callejak eta Monica Navajasek egingo dute berba, Arrasateko Nagusien Kontseiluak gonbidatuta. *Kulturaten, 17:30ean*.

ANTZUOLA Merienda eta mozerro lehiaketa

Landatxo elkartearen eskutik. *Landatxopen, 18:30ean*.

EGUAZTENA 14**ESKORIATZA Areskoren VI. emakumeen martxa**

Aretxabaletatik Eskoriatzarainoko joan-etorria egingo dute. *Aretxabaletan, 12:00etan*.

BERGARA Kafe Konpon

Etxeko tresna txikiak konpontzeko. *San Joxepen, 16:00etan*.

BERGARA Eguaztenetako azoka
Garaiako produktuak erosteko. *Oxirondon, 18:00etan*.

ARETXABALETA Literatura solasaldia

Eduard Louis idazlearen *Para acabar con Eddy Bellegueule* liburuaren gaineko saioa, Monica Leivak gidatuta. *Udal liburutegian, 18:00etan*.

ARRASATE 'Tortura genero ikuspegitik' liburuaren aurkezpena

Arrasateko zortzi emakumeren testigantzak jasotzen dituen lana aurkeztuko dute Juan Ramon Garaik, Nekane Ayensak eta Iñaki Barrutiak. *Kulturaten, 18:30ean*.

OÑATI 'Punkaren beste aldea' dokumentala

Arrasateko Jesusi Etxebarria musika irakaslearen ibilbidea jasotzen duen ikus-entzunezkoa, Perlata musika taldeak egindakoa. *Gaztetxean, 19:00etan*.

BERGARA Amodiozko Gutunen 33. Lehiaketa

Sari banaketa ekitaldia egingo dute. *Irizar jauregian, 19:00etan*.

BERGARA 'Perfect days' pelikula

Jatorrizko bertsoan eta azpitu-luekin. Sarrerak, hiru euro. *Seminarixoan, 20:00etan*.

EGUENA 15**ARRASATE Sasoibide**

Bi aukera: Donostiara, Emakumeak Zientzian egitasmoa ezagutzera; edo Antoina hezegunea ezagutzera. *Biteri plazan, 10:00etan*.

ESKORIATZA Bingo-jokoa

16:45ean, Haur Hezkuntzakoak; eta 18:00etan, Lehen Hezkuntzakoak. *Ludotekan*.

ARETXABALETA Odola emateko aukera

Autobusa etorriko da. *Durana kalean, 16:45ean*.

ANTZUOLA 'Aurretiazko borondateak' hitzaldia

Jesus Millan medikuak eta Felix Garcia erizainak egingo dute berba, Landatxo elkarteak antolatuta. *Olaran etxean, 18:00etan*.

ELGETA 'Ipuinak kontatzeko aholkuak' tailerra

Maite Franco ipuin kontulariaren eskutik. Izena: liburutegian. *Liburutegian, 18:00etan*.



PERLATA

OÑATI 'Punkaren beste aldea' dokumentala

Arrasateko Jesusi Etxebarria musika irakasle ohiaren ibilbidea jasotzen duen ikus-entzunezkoa egin du Perlata musika taldeak. Taldeko kideak ekitaldian egongo dira, Burrunda Faktoriak gonbidatuta. Debalde. *Eguaztenean, gaztetxean, 19:00etan*.

ARRASATE Ahoz aho jaialdia

Charo Pitak eta Odei Arregik Galiziako eta Euskal Herriko ipuinak kontatuko dituzte, hurrenez hurren. 3-6 urte artekoendako. *Kulturaten, 18:00etan*.

ESKORIATZA Literatura solasaldia

Joe Saccoren *Notas al pie de Gaza* liburuaren gaineko saioa, Monica Leivak gidatuta. *Kultura etxean, 18:00etan*.

OÑATI Oñatiko emakume mojen gaineko erakusketa

Izen bereko ikerketa lanaren baitan egindako irudien erakusketa, hilaren 25era arte. *Santa Anan, 18:00etan*.

BERGARA Irakurketa taldea

Kartzelako irakurketa taldeak Mikel Antzaren *Atzerri* liburuaren gaineko saioa egingo du, idazlearekin berarekin. *Kartzela zaharrean, 18:30ean*.

OÑATI 'La memoria infinita' filma

Zineklubean. Sarrerak, bost euro. *Zinema-aretoan, 19:30ean*.

ARRASATE Kooltur Ostegunak: EzEzEz taldea

Bilboko laukotearen kontzertua. Unai Madariaga, Eneko Ajangiz, Alvaro Olaetxea eta Mikel Irigoyen dira taldeko kideak. Sarrerak, zazpi euro. *Gaztetxean, 22:00etan*.

ZINEMA**ARRASATE****AMAIA ANTZOKIA**

Valle de sombras
Zapatua eta astelehena: 19:30.
El fantasma de Canterville
Zapatua: 17:00.

BERGARA**SEMINARIXOA**

Acusado
Domeka: 19:30.
Katak, la pequeña ballena
Domeka: 17:00.

OÑATI**KULTURA ETXEA**

Valle de sombras
Egubakoitza: 22:00.
Zapatua: 19:30, 22:00.
Domeka: 19:30.
Astelehena: 19:30.

Patrick. Heroi txikiak

Zapatua eta domeka: 17:00.

GASTEIZ**FLORIDA**

Robot dreams
Zapatua eta domeka: 12:00.
Wish, el poder de los deseos
Zapatua eta domeka: 12:00.

Wonka

Zapatua eta domeka: 12:00.

El correo

Egubakoitzetik domekara: 21:45.
Astelehena eta martitena: 19:30.

La zona de interes

Egubakoitzetik domekara: 18:45, 21:00.
Astelehena eta martitena: 16:45.

Los que quedan

Egubakoitzetik domekara: 21:45.
Astelehena eta martitena: 19:45.

Migración

Zapatua eta domeka: 16:45, 19:15.
Astelehena eta martitena: 17:00, 19:15.

Sala de profesores

Egubakoitzetik domekara: 16:45, 21:45.
Astelehena eta martitena: 17:00, 19:15.

El color púrpura

Egubakoitzetik domekara: 16:45, 19:25.
Astelehena eta martitena: 17:00, 19:15.

Ferrari

Egubakoitzetik domekara: 16:45, 19:25.
Astelehena eta martitena: 17:00, 19:15.

Las cuatro hijas

Egubakoitzetik domekara: 16:30.
Astelehena eta martitena: 19:45.

Patrick (euskaraz)
Zapatua eta domeka: 12:00.

EGUBAKOITZA 16**BERGARA Emakume zientzialarien lehiaketaren sari banaketa**

Lan onenak saritzeko ekitaldia egingo dute. *Laboratoriumen, 12:00etan*.

OÑATI Odola emateko eguna

Aurrez hartu behar da ordua, 943-00 78 84 telefonoan. *Enpresagintzan, 16:30ean*.

ESKORIATZA 'Goazen!' telesaila

Telesailaren atal zaharrak ikusteko aukera egongo da. 16:45ean, Haur Hezkuntzakoak; eta 18:00etan, Lehen Hezkuntzakoak. *Ludotekan*.

ARRASATE 'Txotxongiloen ametsak' erakusketa bisita gidatua

Corrado Massacik emango ditu azalpenak. Izena emateko: *kultura@arrasate.eus*
Kulturaten 17:30ean.

OÑATI 'Breviario de ecología libertaria' liburuaren aurkezpena

Carlos Taibo egilea egongo da ekitaldian, STH taldeak gonbidatuta. Ostean, solasaldia egiteko aukera. *Kultura etxean, 19:00etan*.

BERGARA Amustei taldea

Bergarako laukotearen kontzertua. Mikel Garate, Kepa Leturia, Iñigo Irizar, Joseba Aldanondo eta Iñigo Ibarzabal oholza gainean. Sarrerak, zortzi euro. *Seminarixoan, 20:00etan*.

ZAPATUA 17**ARRASATE 'Makinak gara' tailerra, familian**

Arraguak dinamizatuta. Gaur, lehenengo saioa. Izena: bibliotekan edo udal webgunean. *Kulturaten, 11:00etan*.

ARRASATE Ludoteka ibiltaria

3 eta 12 urte arteko haur eta aurrenerabeendako. Orduategia: 11:30-13:30. *Musakolako gazte txokoan*.



AZKEN BERBA

AINTZANE OIARBIDE

Beasain-Durango

Beasain-Durango autobidea bukatzeko azterketak burutu ondoren, errepidearen behin betiko proiektuari ekingo diote Gipuzkoako eta Bizkaiko foru aldundiek azken zatia eraikitzeko, Epele eta Elorrio artekoa. Obra konplexua; 800 metroko tunela aurreikusten da Kanpanzarren.

Debagoienetik Bilbora 40 minutuan iritsi ahal izango gara errepidea amaituta dagoenean; eta garrantzitsuenaz ez da hori, segurtasuna baizik.

Lehen goan entzun nuen EH Bilduko lehendakari gaia, beste herrialdeetako errepide kilometroekin gure sare "erraldoia" alderatuz. Eta zein da arazoa Euskal Herria egituratu eta segurtasunez komunikatzen bada? Zein da arazoa gure ikasleek joan-etorriak egiteko hori behar badute, gure enpresak lehiakortasunean irabaziko badute? Garraio publikoa hobetuko bada? Erakunde arduetan gaudenok herritarron onerako diren eskakizunak bete behar ditugu, horretarako gaude, eta ez proklama eta kritika politikoa hutsak egiteko.

2011n, Bildu Aldundian sartu zenean, Larraitz Ugartek esan zuen Deskarga ez zela egingo. Ba, gero, berak hasi eta hankak gora utzi zuen. Beste batzuek konpondu eta eraiki dugu; Deskarga hortxe dago, eta "Kanpanzarko autobidea" ere hortxe izango da herritarron mesedetan.

BUKATZEKO

Munduko argazki onenen artean aukeratua

Goienaren Udako Argazki Lehiaketako argazki onenaren saria irabazi zuen Iker Zubizarretak ateratako argazkiak, eta orain, mundu mailako argazki onenen artean hautatu dute; otsailaren 29ra arte egongo da argazkia bozkatzeko aukera

Julen Murua Mesonero ARRASATE

Iazko uda amaieran erabaki zuen Iker Zubizarretak mundu mailako argazki txapelketa batean parte hartzea, eta, gaur-gaurkoz, lehiaketa horretako finalistetako bat da. *Greenstorm Global Photography* lehiaketa da, hain zuzen; izan ere, aurten lehiaketaren hamabosgarren edizioa jokatu da. Guztira, 17.716 argazki jaso zituzten antolatzaileek, 153 herrialdetan banatuta, eta horietatik 34 argazki igaro dira argazki kame rarekin ateratako argazkien finalera; horien artean Debagoieneko ordezkari gaia dago: Zubizarreta bera, hain zuzen.

Lehiaketan izena "kasualitatez" eman zuela dio Zubizarretak: "Lehiaketa hastear zegoela esaten zuen iragarkia ikusi nuen sare sozialetan, eta ea zorterik izango ote nuen ikusteko bidali nuen argazkia". Aurretik ez zuen ezagutzen lehiaketa hori Zubizarretak, baina "itxura ona zuela ikusita" erabaki zuen izena ematea. Hilabete batzuetan zehar ezer jakin gabe egon eta gero, duela bi aste jaso zuen arrasatearrak lehiaketako antolatzaileen deia: "Duela bi aste inguru deitu ninduten eta jakinarazi



Iker Zubizarretak Dolomitetan ateratako argazkia. IKER ZUBIZARRETA

zidaten beste argazki batzuekin batera nirea izan zela hautatua finalera igartzeko. Argazki on asko izan ziren hautatuak, eta horietako bat nirea izatea berri oso ona izan zen".

Goienaren lehiaketan garaile

Hain zuzen ere, *Greenstorm Global Photography* argazki lehiaketan parte hartu duen argazki berarekin eman zuen izena argazkilarri arrasatearrak Goienaren Udako Argazki Lehiaketan; bertan, argazki onenaren saria eskuratu zuen. Hori horrela, Goienak antolatutako argazki lehiaketan izan zuen "arrakasta bera" izatea "ederra"



Iker Zubizarreta. ENEKO AZURMENDI

izango litzatekeela aitortu du Zubizarretak.

Lau urteko ibilbidea

17 urte inguru zituela hasi zen Zubizarreta bere lehenengo argazki kamera erabiltzen, eta arrasatearrak dio hasieran ateratzen zituen argazkietatik gaur egunekoetara "alde handia" dagoela. Hasieratik izan du gustuko paisaia eta kirola uztartzen dituen argazkiak ateratzea, eta horregatik erabaki zuen lehiaketa horretan parte hartzea: "Paisaia eta kirol argazkilaritza dut gustuko; bereziki, pertsonak agertzen direnean neurrien arteko aldea ikusteko. Argazki hori aukeratu nuen nik ateratakoen artean gehien gustatu zitzaidanetako bat delako eta lehiaketa motarekin ere zerikusi handien duena delako".

Dolomitetara

Iazko uda amaieran, abuztuan, atera zuen argazkia. Oporretan Dolomitetara joatea erabaki zuten hainbat lagunek, eta han haren argazkilaritza esparru gustukoena uztartzeko aukera izan zuen. Paisaiari garrantzi handia emateaz gain, ilunabarrak eta egunsentiak ere baliatzen ditu Zubizarretak argazkiak ateratzeko, eta egun hartan Cadini di Misurina mendi ingurura joan ziren une hori bizi izatera: "Han inguruan ikusi nuen asko gustatu zitzaidan enkoardaketa bat, eta lagun bati esan nion bertan korrika hasteko nik argazkia atera nezan. Argazkiak mendiaren eta naturaren handitasuna erakusten du; askotan ateratzen ditut horrelakoak, argazki esanguratsuak iruditzen zaizkit eta".

Bidali zure argazkiak eta eskuratu otarre bikaina!

Jon harategiaren eta Hankabeltz urdaitegiaren produktuekin osatutako otarra *Goiena.eus*-eko inprimakiaren bidez bidali Aratusteetako argazkiak. Parte hartzeko epea, otsailaren 9tik 14ra bitartean. Irabazlea zozketa bidez erabakiko da otsailaren 15ean. Zenbat eta argazki gehiago bidali, orduan eta aukera gehiago!

ARATUSTEETAKO ARGAZKIEN
GOIENA LEHIAKETA 2024

LAGUNTZAILEAK:



goiena
Zu hemen zaude.